

# Goienkaria

2007ko otsailaren 16a > Egubakoitza > VII. urtea > 276. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

## G2a


Manu Muniategik  
liburua aurkeztu  
du ARCON > 44

MERKATARITZA  
Ibai Artek dio Zabaletako gunearen  
proiektua alderdikoia dela > 19

ONDAREA  
Aurten hasiko dira Antzuolako  
parroquia konpontzen > 36

"Intsektuen  
eta izurriteen  
inguruan  
eraikitako  
konjurua da  
Aratustea"

Jose Angel  
Irigarai  
Idazlea > 09



ARETXABAleta > ENPRESA

## Lucio Garay fabrika itxi egingo dute

Burgosen beste bat zabalduko dute, eta horregatik itxiko dute Aretxabaletakoa > 15

BERGARA > ZERBITZUAK

## Zabalotegi, antzerki eta zinemarako

Formatu txikiko emanaldiatarako egokituko dute Zabalotegi aretoa > 24

ESPAINIako GERRA > HILOBIA

## Beste hilobi bat dago Eskoriatzan

Arrasaten egon ziren Gas-teizko milizianoak dira, datu guztien arabera, Eskoriatzako baserri baten ondoan lurperatuta daudenak. Lau-zortzi gorpu egon litzek. Hain zuzen, lurperatuen familiakoen bila dabilta orain, hilobia azalarazteko eta gorpuzkiak ikertzen hasteko. > 05

## AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08  
Elkarrikzeta > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-41  
Kultura > 45  
Sailkatuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55

INGURUMENA > LEINTZ IBARREKO ETA OÑATIKO URAK GARBITUKO DITU

## Epeleko araztegia egiten hasi dira eta 2011n bukatuko dute

**INSTALAZIOA** Bi zatitan banatuta dago: batean, ura iragaziko dute eta bestean, biologikoki tratatuko dute

**KOLEKTOREA** Proiektu berean, Zubillagatik araztegira arteko kolektorea egingo dute; tunel barruan joango da 1.375 metroan

**ERREPIDEA** Araztegia eraiki ahal izateko GI-627 errepidea desbideratu egingo dute, eta laster egingo dute hori > 04



GALERIAN BARRENA Turistek bisitatu ahal izango duten galeria 53.a da, Arrikrutzeko barrunbeko ekialdean dagoena.

XABIER URTZELAI

**Maiatzean irekiko dute  
480 metro luze den  
Arrikrutzeko koba**

Haitzulo barruan, langileak zortzigarren gunean dabilta lanean, azken zati horretako oinezkoen pasabidea jartzen. Kanpoan, berriz, aparkalekuak eginda daude eta harreraguneko eraikina prestatzen dabilta. Hala, maiatzera gura dituzte lanok

amaitu. Oñatiko Arrikrutzeko koba arkeologikoki eta paleontologikoki da aberatsa. Haitzuloak ondo erakusten du urtetan urak zelan moldatu duen barrualdea. Horrekin batera, 60ko hamarkadan lehoi baten aztarnak aurkitu zituzten hantxe. > 2-3

IPARRAGIRRE SAGARDOTEGIA

Osiñaga auzoa / Hernani 943 55 03 28  
Eguaztenetik zapatura gaez zabalik, zapatu eguerdietan ere bai  
[www.iparragirre.com](http://www.iparragirre.com)

Škoda Octavia Combi


NOLAKO BIZIMODUA  
IZANGO ZENUKE BIZITZEKO  
TOKIRIK GABE?

Simply Clever

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

SKODA AUTO



OINEZKOENDAKO PASABIDEA Konposite materiala erabili dute oinezkoen pasabideak egiteko. Bestalde, atzeragarritasunaren printzipioa oso kontuan izan dute lanak egiteko.

XABIER URTZELAI

**ARRIKUTZEKO GALERIA** > BISITARIEK 53. GALERIA IKUSI AHAL IZANGO DUTE; 70 MINUTUKO IBILBIDEA IZANGO DA

# Maiatzeko zabaldu gura dute Arrikrutzeko koba

**GOGOR LANEAN** Haitzulo barruan lan egitea ez da erraza, baldintza gogorrak dira-eta. Orain, azken gunean dabiltza lanean, besteak beste, oinezkoen pasabidea jartzen

**XABIER URTZELAI > OÑATI**  
Aizkorriko mendigunean daude Arrikrutzeko kobak, Gesaltza-Arrkrutz sistema karstiko barruan-kare harria-. Hala, Goi-Jurasiko eta Behe-Kretazeo artean sortutako barrunbea da -156 eta 96 milioi urte artean-. Berezitasun handiko gunea da, 14 kilometroz osatutako galeriek Gipuzkoako barrunbe handiena egiten dute-eta.

Hori horrela, turistek bisitatu ahal izango dutena 53. galeria da, Arrikrutzko barrunbeko ekialdean dagoena. Galeria hori Aldaola erreka lehengo hobia zen, eta bisitaldiak iraungo duen 70 minutuetan konkrezio estalagmitiko interesgarriak ikusi ahal izango dituzte. 480 metroko ibilbidea izango dute horretarako, zortzi gunetan banatuta.

**480 METROKO IBILBIDEA** Tarte horretan, bisitariak arkeologikoki eta paleontologikoki aberatsa den kobazuloan zehar ibili ahal izango dira, erosoa

to Murgiondoren esanetan, seku-lako lana egiten dabilta: "Baldin-tza gogorrak dira lanerako, baina euretako askok espeleologia kontuak atsegin dituzte, eta lan egiteko orduan hori igarri egiten da. Gainera, koba barruan kon-tu handiz egin behar da lan".

**EGONGO DA ZER IKUSI**  
Milioika urtean urak moldatutako barrunbea da Arrikrutz, eta hori da atea gurutzatu eta bere-hala lehenengo igartzen dena: hezetasuna. Hala, lehenengo metroak eskaileratan behera egin-го ditugu -ibilbidean zehar 55 metro jaisten dira, eta batez bes-te bederatziz graduko malda du-. Hala, urak zizelkatu duen harrian berehala antzematen dira estalagmita eta estalagmitak, urte askoko lana. Ez da ikuskizun bakarra

izango, besteak beste, zortziga-rren galerian egingo duten bal-koiak ere harridura bat edo bes-te sortuko du-eta. Tarte horre-tan, oinezkoen pasabidea altu egongo da, eta bisitariek barrun-bea zeharkatzen duen erreka iku-si ahal izango dute, behean. Ikus-garritasunarekin jarraituta, ibil-bidean zehar bederatziz geldialdi egingo dituzte, eta geldialdi horie-tan turistek ikus-entzunezkoen bitarnez batuko dute informazio gehiago. Hori horrela, Eurocom enpresak egingo ditu bideoak, eta Patxi Zubizarretak testuak.

Arrikrutz arkeologikoki zein paleontologikoki da aberatsa. Azterketa oso garrantzitsuak egin dituzte han. Eta, azterketa

horiekin lortutako emaitzek harrituta utzi dute bat baino gehiago: batetik, hartz aztarna-tegi aberatsa aurkitu izan dute, eta baita panteren burezurrak ere. Aurkikuntza harrigarriena, baina, haitzuloetako lehoi baten hezurdura izan da, Estatuan dagoen bakarra. Diotenez, 60ko hamarkadan bi abadegai haitzu-loan galdu, eta haien aurkitu zitzuten lehoiaren aztarnak. Egun, Aranzadi ikerketa taldeak du hezurdura, eta Arrikrutzten erreplika bat jarri gura dute.

**ATZERAGARRITASUNA**  
Aurreratu dugu haitzuloan kontu handiarekin dabiltzala lane-an. Hala, Murgiondok aurreratu

**Turistek bisitatu  
ahal izango duten  
galeria 53.a da,  
Arrikrutzko  
barrunbeko  
ekialdean dagoena**

**Milioika urtean urak  
moldatu duen  
barrunbea da  
Arrikrutz; hezetasun  
handia igartzen da  
barrura sartzean**

dugu proiektua egiterakoan atzeragarritasuna izan dutela kontuan: "Haitzulo baten lanean hasi aurretik argi izan behar da atzeragarritasunaren printzipioa. Hau da, kobazulo bat publikoari irekitzean inork ez du pentsatzten bihartutako kobazulo hori bisitagarri izango ez denik, baina guk kontu handia izan dugu horrekin. Batetik, jarri diren tresna guztiek desmuntagarriak dira, eta, bestetik, kobazuloarekiko errespetuagatik, kutsadurak galarazteko ahalegin berezia egingo da. Hori horrela, orain arte bisitatu ditugun haitzuloetan burdina, altzairua... erabili dituzte, eta hemen dugun hezetasunarekin material horiek berehalako honda-tuko lirateke. Hori baztertu

## "Lanean hasi aurretik atzeragarritasunaren printzipioa izan dugu kontuan: zegoen moduan utzi ahal izatea, alegia"

## "Aloña Mendiko Espeleología Taldeak eta Aranzadik sekulako lana egin dute Arrikutzten"

guran, hemen material konposi-teen alde egin dugu: beira zunta eta erretxinaren arteko nahasketak". Danimarkatik ekarri dute oinezkoen pasabideak egiteko materiala, eta egitura horiek duten pisua baino lau aldiz arinagoa izango da.

### LAU MILIOIKO AURREKONTUA

Diru hori erabiliko dute Arrikutzeko kobako proiektua egiteko. 240.000 euro Diputazioak jarriko ditu, 720.000 euro Turismo Sailak eta Madrilgo etorriko dira 500.000 euro. Gainontzekoa Oñatioko Udalak jarriko du (2.540.000 euro). Bistan da, baina, turismo aldetik Arrikutzek bultzada handia emango diola Oñati. Besteak beste, Fitur ferian erakusteko Eusko Jaurlaritzak aukeratutako eskaintzetako bat izan da-eta.

Amaitzeko, lehen ere esan dugu maiatzerako amaitu gura dituztela lanak. 12 urte dela sortutako egitasmoaren emaitza izango da hori, eta benetako obrak azken urtebetean egin badituzte ere, lehenago proiektua egituratzeko, azterketak egiteko eta alderdi politiko guztien babes jaosotzeo egin den sukaldetako lana azpimarratu du Murgiondok: "Azken baten, ezin da ahaztu Arrikutz orain dela 12 urte herriaren artean sustatu ziren parte-hartze guneetako emaitza dela. Eta adierazi beharra dago Aloña Mendiko Espeleología Taldeak (AMET) eta Aranzadik ordaindu ezin daitekeen lana egin dutela".

Ikerne Altube > Turismo eta Garapen Agentziako teknikoa

## "Oñatik, Arantzazuk eta Arrikutzek turistak ekarriko dituztela uste dugu"

GOIENKARIA > HERRIA  
Arrikutzeko kobak duen erakargarritasunaren gainean egin dugu berba Ikerne Altuberekin, eta baita gureko turismoa bultzatzeko izango duen eraginaren gainean ere.

### Zelan antolatuko dituzue bisitak?

Bisitariek harreragunetik haitzulo sarrerara dagoen tartean sistema karstikoan kanpotik ikusi ahal izango dute. Ibilbidean zehar bederatzi puntu eszenografiko egongo dira. Hala, puntu horietan gidariekin espeleologiarren, geologiaren eta paleontologiarren gaineko azalpenak emango dituzte, goi mailako sistema informatikoaz lagunduta.

### Ze zerbitzu eskainiko du horrek?

Besteak beste, argiztapenarekin eta audioarekin girotutako bisitaldia izango da. Horrekin batera, azalpenak ulertzeko bisitariek bost hizkunta izango dituzte aukeran: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta katalana.

Arrikutzeko koba erakusgai egonda Madrilgo Fitur ferian. Zer-nolako erantzuna izan duzue?

Batetik, esango nuke lur azpiko mundu hori berez dela erakargarria, interesa erraz pizten duela. Bestetik, Fiturren erakutsi dugu Arrikutzeko



X.U.

koba dela Euskal Autonomia Erkidegoa turismo mailan duen beste aukera bat; eta Gipuzkoako barnealdeak, batez ere, behar zuen horrelako bat. Hala, Oñatierekin eta Arantzazurekin batera daitekeen eskaintza turistikoa da; jendea hainbat egun igarotzen etorri ahal izango da Oñati, egongo da eta zer ikusi.

Turismo aldetik bultzada izango du Oñatik.

Hori espero dugu. Bidaia agentziak gerturatu ziren Oñatiko eskaintzaren gainean galdezka, eta ikusteko dagoenaren arabera bidaia antolatzen dituzte. Epe motzean ez dugu turismo igoerarikigarriko, baina epe ertainera, bai.

### ARRIKUTZEN IKUS DAITEKEENA



Estalaktitak



Estalagmita

Geologian, estalaktitak kareharriko haitzulo bateko sabaitik zintzilik dauden mineral biltegiak dira. Gehienbat material kaltzio-karbonatoa izaten da.

Estalagmitak zoruan sortzen diren material biltegiak dira, sabaitik erortzen den materialak sortua. Gainera, elementu bi horiek hormigoian ere sor daitezke.

# 2+1=35

**GOIENKARIA 2 eta Pendrive 1; 35 euro**

Ez gabiltza txantxetan. Egia da, gezurra dirudien arren. Urtean 35 euroren truke, Goienkaria bi egunean eroango dizugu etxera, egubakoitzetan eta astelehenetan, urte osoan! Eta, horretaz gain, USB lapitz edo Pendrive bat opari egingo dizugu. Bikaina, ezta?



= 35  
euro

**Deitu telefono honetara 09:00etatik 18:30era:  
902-36 38 51**

**INGURUMENA > LAU BAT URTE IRAUNGO DUTE ARAZTEGIA ERAKITZEKO LANEK**

# Hasi dira Epeleko araztegia eraikitzen

Epeleko araztegia eraiki ahal izateko, GI-627 errepidea desbideratu beharko dute; horretarako lanak berehala hasiko dira

**AINTZANE IRIZAR > ARRASATE**

Otsailaren 5ean hasi zituzten Epeleko araztegia eraikitzeko lanak. Espainiako Gobernuko Ingurumen Ministerioa da lanen arduraduna; Construcciones Especiales eta Dragados enpresei esleitu zizkien lanok Ministerioak, 26.286.611 euroren truke. Arduradunek espero dute 2011. urtean martxan jartzea araztegia.

Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatiako urak jasoko dira araztegian, eta, behin ur hori araztuta, Deba ibaira isuriko dute.

Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoa da lanen arduraduna; euren esanetan, araztegia martxan jarri eta hilabete gutxiarra igarriko dugu Deba ibaiaren egoera hobetu dela, alde fisikoari eta kimikoari dagokionez. Hobekuntza biologikoak nabaritzeko, ordea, urte batzuk pasatzen beharko dira.

**INSTALAZIOEK BI ZATI**

Bi zati izango ditu Epeleko araztegiak: bata Kataideko industrialdearen ondoan eraikiko dute; beste zatia, berriz, Etxezarreta ondoan eraikiko dute, autobidean sartzeko errepidearen beste aldean, Bergara aldera, hain zuzen ere.

Lehenengo zatian, Kataide ondokoan, kolektoreetatik datozan ur zikinak iragazi eta urak dakartzen hondakin materialak bahetuko dira. Pabiloi itxia izango da eta pabiloi barruan egingo da azaldutako prozesu guztia; horrela, ur zikinek sortzen dituzten usain txarrak kanpora zabaltzea saihestuko da.

**ERREAKTORE BIOLOGIKOA**

Bigarren instalazioa, Etxezarreta ondokoia, irekia izango da, estali gabea. Hemen, lehenengo instalazioko prozesua amaitu eta gero geratzen diren hondakin

kutsakorrak guztiz desegingo dituzte, tratamendu biologikoko baten bitartez.

**ZUBILLAGAKO KOLEKTOREA**

Epeleko araztegiaren proiektuan barruan, gaur egun Oñatitik Zubillagaraino iristen den kolektorea araztegiraino ekarriko dute. Horretarako, mendia zeharkatzen duen tunela eraiki beharko dute. 1.375 metroko luzera izango du tunelak.

**ARAZTEGIA DATUTAN**

> **AURREKONTUA**

Araztegia eta Zubillagatik araztegirainoko lanen aurrekontua da 26.286.611 euro.

> **2011. URTEAN MARTXAN**

48 hilabete dituzte eraikitzeo.

> **ENPRESA ERAKITZAILEAK**

Construcciones Especiales eta Dragados enpresak.

> **TUNELA**

1.375 metroko tunela, Zubillagatik Epelera kolektorea egiteko.



KATAIDE Industrialdearen ondoan hasi dira eraikitzen araztegia.

XABIER URTZELAI

**LAN KONPLEXUA**

Felipe Roman ingeniariek azaldu digun moduan, lan konplexuada: "Alde batetik, Zubillagatik Epelera kolektorea ekartzeak asko zailtzen du proiektua, tunela egitea lan konplexua izango delako. Bestetik, kontuan hartu behar dugu eremu murritzean egin behar dugula araztegia, errepidearen eta errekanaren artean geratzen den lur zatian". Horrela, lanek 48 bat hilabete iraungo dute. Azkeneko sei hilabetan araztegia martxan jartzeko probak egiten jardungo dute arduradunek.

**ERREPIDEAREN DESBIDERAKETA**

Epeleko araztegia egin ahal izateko, GI-627 errepidea desbideratuko dute. Arrasaterako noranzkoan, Epeleko biribilgunera iritsi aurretik dagoen bihurgunetik biribilgunera bertara, 350 metroko errepide zatia. Romanek azaldu digunez, berehala hasiko dira lanek; izan ere, araztegiaren lanek aurrera egin ahal izateko beharrezko da errepidea desbideratzea. Bestalde, lanek irauten duten bitartean bidegorria moztu eta oinezkoak errekanen bestetik aldetik bideratzeko aukera ere aztertzen dabilta.

## Etxean konposta egin nahi duzu?

Leintz-Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Oñatin, Bergaran, Elgetan edo Antzuolan bizi zara?

**Debagoineneko Mankomunitateak etxe anponeta egiteko bigarren kanpaina jarriko du martxan.**

Bizitza bakarreko etxe batean bizi bazara eta lorategia baduzu, edo lursail bat, edo antzerako zerbait, deitu ezazu Debagoineneko Mankomunitatera eta har ezazu parte.

**Eskaerak egiteko epea:**  
**otsailaren 21etik martxoaren 9ra,**  
**8:00etatik 14:00etara.**

**Informazio gehiago nahi izan ezkerro:**  
**Debagoineneko Mankomunitatea.**  
**Arrasate Pasealekua, 5 behea.**  
**20500 Arrasate.**  
**Tel.: 943 79 33 99.**



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA



HAUTESKUNDEAK > EB-IU ETA ARALARREN AKORDIOA

## Aralar bakarrik aurkeztuko da ibarreko herri batzuetan

Arrasaten eta Bergaran ez dute koaliziorik osatuko Ezker Batuarekin

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Aralar eta Ezker Batua alderdiek maiatzeko hauteskundeetarako koalizioa osatzeko akordioa sinatu dute asteon. Elkarrekin aurkeztuko dira EAEko hiru batzar nagusietan, hiriburueta eta ehun bat herritan.

Akordioaren gainean, Oxel Erostarbe Aralarko Gipuzkoako koordinatzaileak zera adierazi digu: "Bi alderdiok euskal gizarteak erabakitzeko eskubidea duela onartzen dugu; ez da nahikoa saia kera bat egiteko?". Zera gaineratu digu: "Erakutsi gura dugu desberdinak izanda ere adostasunak topa daitezkeela, eta lortu dugu erakundeara ezkerretik eragitera doazen herriarren zerrenda zaba-la elkartzea".

Ezker Batuko Ander Rodriguezek zera azaldu digu: "Koalizioarekin ezkerreko alternatiba pluralaren alde apustu egin dugu. Egungo aukerekin identifikatuta sentitzen ez diren ezkertiar askorendako alternatiba gara, ezkerreko proiektu argiarekin". Zera gaineratu

digu: "Urteak eman ditugu ezkerreko alderdiok elkarri bizkarra emanda, eta garaia da elkarrekin lanean hasteko".

ASKOTARIKO ERABAKIAK

Aralarri dagokionez, herri bakoitzeko batzordeak dauka autonomia osoa koalizioan aurkezu edo ez erabakitzeko. Debagoieneko hainbat herri-tan hartuta dute erabakia: Bergaran eta Arrasaten, Aralar bakarrik aurkeztuko da. Bergarako kasuan, Iñigo Iñurragi Aralarko zinegotziak zera azaldu digu: "Udalean, EBren lan egiteko moduarekin ez gara ados egin eta ez dugu akordiorik egin". Joxe Etxeberriak, Arrasateko Aralarko zinegotziak, azalpen hau eman digu:

"EBrekin hainbat gaien gainera ez dugu adostasun handirik eduki eta giroa ez da baterre kuriosoa. Hortaz, erabaki dugu bakarrik aurkeztea". Xabier Sarasua Aralarko Aretxabaletako zinegotziak adierazi digu oraindik ez dutela era-baki zer egin.

ESANAK

**"Akordioa sinatzea berri positiboa da, ezker pluralari begira, apustu estrategiko garrantzitsua da-eta"**

Ander Rodriguez > Ezker Batua

**"Aralaren eta Ezker Batuaren koalizioa saiakera bat da datorren erreferente aurrerakoi zabalago bati begira"**

Oxel Erostarbe > Aralar

AP-1 > ISUZKITZAKO TUNELAREN BI ALDEEK BAT EGIN DUTE

## Arlabango bigarren tunela ere bukatu dute zulatzen

Arrasate eta Etxabarri-Ibiña arteko autobide zatia 2008. urte hasieran zabalduko dute

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Oraingo astean amaitu dute Arlabango Isuzkitzako bigarren tunela zulatzen. Arabatik Gipuzkoarako norabidean, tunelaren bi aldeek bat egin dute. Abenduan amaitu zuten Isuzkitzako beste tunela, Gipuzkoatik Arabaroko norabideko. 2004ko irailean hasi zituzten lanak.

Araba eta Gipuzkoa lotuko dituen AP-1 autobidearen zatia dagozkie Isuzkitzako tunelak. Euskal Herriko tunelik luzeena izango da, 3.377 metroko luzerarekin.

LAN ZAILA

Isuzkitzako tunelak zulatzea lan konplexua izan da. Kontrolatutako leherketen bidez zulatu dute. Horretan adituak diren langileek, hiru txandatan jardun dute lanean, astean zapzi egunez.

2008AN ZABALIK

Arrasate eta Etxabarri-Ibiña arteko zati guztiak 2008. urte hasieran zabaltzea espero dute Bidegiko arduradunek. Gaur egun, Eibartik Arrasateraino dago zabalik AP-1 autobidea, 15,1 kilometro, guztira.



ELGETA 2004an Elgetan aurkitu zuten hilobian zazpi lagun zeuden lurperatuta, horietako bi Arrasatekoak.

GOIENKARIA

ESPAINIAKO GERRA > LAU-ZORTZI GORPU EGON LITEZKE

## Gasteizko milizianoak daude lurperatuta Eskoriatzako hilobian

Lurperatuen senideen bila dabilta orain, hilobia azalarazteko eta gorpuzkiak ikertzen hasteko

OIHANA ELORTZA > ESKORIATZA

Arrasaten egon ziren Gasteizko milizianoak dira, datu guztien arabera, Eskoriatzako baserri baten ondoan dagoen hilobi baten lurperatuta daudenak. Ibarreko fusilatuenei elkartea Gasteizko Ahaztuak elkartearrekin bateria ari da lanean lurperatutako senideen bila. Familiekin egin behar dute baimena izateko hilobia azalarazteko eta lurperatutako gorpuzkiak ikertzen hasteko.


Ibarreko fusilatuenei elkartea bazekien Eskoriatzan hilobi bat zegoela. Ondoko baserritarra

horren lekuko izan zelako zekien hori. Lurperatutu nortzuk dauden, ordea, Gasteizko Ahaztuak elkartearak lanaren senitartekoak aurkitzen saiatuko da orain. Eskoriatzako hilobian lau-zortzi gorpu egon litezke, eta zerrenda horretako lagunenak direla uste dute. Senitartekoekin egin eta ikerketak hasi arte ez dute esango Eskoriatzako hilobia non dagoen.

DEBAGOIENEKO HILOBIAK

### Hilobi gehiago daude aztertzeko ibarrean

Eskoriatzakoaren aurretik, Arrasaten ikertu zuten Spainiako gerrako beste hilobi bat 2002an; bi lagunen gorpuzkiak aurkitu zituzten han. Bi urte geroago, 2004an, Elgetan aurkitu zuten beste hilobi bat; zazpi lagun zeuden lurperatuta han, horietako bi Arrasatekoak. Eskoriatzan aurkitu dutena jakinarazi duten ibarreko hirugarren hilobia da, baina fusilatuenei elkartean lanean dabilzanek badakite gehiago ere badaudela. Lekukoek esanda dakite zehazki non dauden hilobi horiek, eta denborarekin jakinaraziko dituzte, haien ere denbora behar dute-eta lanerako.



ENEKO AZKARATE

Arantxa Tapia > Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburuordea

# "Instituzioek atera behar dute aurrera AHT, eta horretarako eztabaidea luzea izan dute"

T.M.-M.B. > ARAMAIO

Astelehenean, Eusko Jaurlaritzako Garraios sailburuorde Arantxa Tapia Aramaion izan zen, AHTren gainean berba egiten. Jendez lepo bete zen udaletxea. Udalak eskatuta izan zen sailburuordea Aramaion.

**Debagoiendar batek zertan igarrisko du AHTren onura?**

Ez Debagoinari bakarrik, orokorrean esan behar da onurak ekarriko dituela, ekonomikoki eta sozialki ere bai. Sozialki diot –nahiz eta askotan esaten den ezetz– badirelako trafiko berezi batzuk AHTra pasatuko direnak, beste sareak librea go geratuko dira. Ekonomikoki, eraikitze lanetan ez ezik, gerora ere lambideak sortuko ditu, beste aktibitate ekonomiko batzuk ekarriko dituelako. Gainera, Debagoinarentzako bereziki ari gara lantzen geltoki bat Ezkion.

**Eta zein kalteri egin beharko dio aurre ibarrak?**

Onartzeko da azpiegitura bat egiten denean naturari kalte egiten zaiola, nahiz eta gero berriro osatu. Bestalde, kontuan hartu behar da azpiegiturarekin hainbat emisio gutxiagotu egingo direla: serratuko gara errepiideetik auto batzuk kentzen eta garraio publikoa bultzatzen. Hortaz, bai eragingo ditu hainbat kalte, baina baita onurak ere.

**Tranbia, esaterako, AHTren kalteen konpentsazio gisa ulerdu behar dugu?**

Ez du zerikusirik. AHTren proiektua aspaldikoa da, azkeneko urteetan bultzada eman zaion arren. Tranbiaren proiektua askoz berriagoa da. Ibarra zituen behar batzuei erantzuteko osatu zen eta serratuko gara ahalik eta azkarren egiten. Baino ez da trukean ematen.

**Zertan da tranbiaren proiektua?**

Nahiko aurreratuta dago, baina herri askotan hobekuntzak proposatu dizkigute eta horiek aztertzen ari gara ahalik eta oneña izan dadin herri guztientzako. Aurten lotuta geratuko da.

**Zergatik da horren erraza AHTren kontra dagoen jendea aurkitzea eta horren zaila aldeko jarrerek aurkitzea?**

Hori edozein proiecturekin gertatzen da. Herri hotzetan garen bezalakoak garelako edozein proiecturen kontra jende asko aurkituko duzu eta alde gutxi. Baino hori gure izaera da.

**Informaziorik eza askotan salatu da.**

Ez dut esango orain arte informazio handirik egon denik, bai-



Garraio sailburuorde Arantxa Tapia astelehenean izan zen Aramaion. TXOMIN MADINA

**"Debagoinarentzako bereziki ari gara lantzen geltoki bat Ezkion, leku aproposa dago"**

**"Gizarteak eztabaidea eman da, ezetz esaten dela badakidan arren"**

**"Aramaioko tartaren lizitzazioa eginda dago eta lanak lauzpabost hilabetetan hasiko dira"**

na egon egon da. Baino orain proiectua garatzen ari den neurriaren herrietara ere iristen ari da. Bestalde, kaltetuekin, batik bat lur jabeekin banan, informazio guztia hor dago eta kaltetuekin banan-banan banan ari gara lanean ahalik eta neurri egokiena bilatzen. Une hotzetan obrak Gasteiz inguruaren hasi dira eta desjabetzeak ahalik eta gutxienak izan dira –%70aren ondespenarekin ari dira obra egiten. Informazioa eskuratzeko eta lur jabeekin lan egiteko informazio bulegoa ere ireki dugu, Lurranek izeneko.

Deitzen duenari informazio orokorra ematen diote.

**Gizarteak eduki du eztabaiderako astirik?**

Eztabaidea izan da, ezetz esaten dela badakidan arren. Heme-roteketa jotzen baduzu ikusiko duzu eztabaidea eman dena. Dena den, instituzioek atera behar dute proiectua aurrera, eta instituzioen eztabaidea luzea izan da eta jarraitzen du. Legebiltzarrean askotan eztabaidearen ostean, erabakiak hartu behar dira. Prest gaude hobekuntzak entzuteko, baina "bai" edo "ez" eztabaideraren garaia pasa da.

**Noiz hasiko dira lanak gurean?**

Aramaioko tramua lizitzazioa egina dago eta laster hasiko dira, baina ez dakit noiz. Lauzpabost hilabete barru.

**Udalatxen kasuan, zergatik hobetsi duzue trenta mendi barrutik joatea?**

Saiatu gara ahalik eta bide egokiena bilatzen. Eragin tekniko batzuk aztertu behar dira proiectua egiteko orduan. Badakitz ur asko dagoela mendi horretan eta azterketa bereziak egin direla.

kontsumoa



Oinetakoek baldintza batzuk bete behar dituzte.

GOIENKARIA

## Oinetako egokiak erosteko zenbait aholku ematen ditu OCUK

M.B. > BERGARA

Oinetakoak erosteko orduan kontu handiz jokatu beharra dagoela azpimarratzen du OCUK, oinetan arazorik izan bai ez bada, behintzat. Material edota orkoi desegokia aukeratzea juanikote zein maskurren oinarri izan daitekeela nabarmenitzen da.

Eskainitako aholku artean, zapata barruan oineko mugitzeko askatasun nahikoa izan behar dutela azaltzen da. Horren harira, probatzeko orduan, potoloenean eta oinez egitea gomendatzen da. Aurrealdea malgua eta josturek ondo amaituta egon behar dutela aipatzen da, era berean. Transpirazioa ahalbideratzen duten materialak eta takoi handirik ez duten oinetakoak ere aholkatzen dira. Hiru zentimetroko altuera baino gehiago ez izatea azpimarratzen da, gehienbat egunero erabiltzekoak baldin badira.



**Etxetresnen berritze plana urte amaiera arte luzatzen da**

Industria ministerioak etxetresna elektrikoen berritze plana urte osoan egitea erabaki du. Bi milioi aparatu zahar aldatu nahi dira.

Horretarako, 50 eta 85 euro artean eskaintzen ditu hozkailu, garbigailu, izozkailu edo ontzi-garbigailua. A klaseko etiketadun energetiko berriagatik.



**Lodosako piperrak atseginagoak, baina garestiagoak ere**

Consumer aldizkariak egindako ikerketa baten arabera, Lodosako jatorri izendun piperrak atseginagoak geratzen badira ere, askoz ere garestiagoak dira.

Kilo garbiko 14,63 eta 16 euro artean kostatzen da eta jatorri izenik ez dutenak, berriz, 6,38 eta 11,34 euro artean daude.

## British Airways-ek bigarren maletagatik kobrebatu du

Martitzena ezkerro, British Airways-ekin bidaiatzentz duenari eta maleta gehiegiz eramatzen duenari garesti aterako zaio bidaia.

Europen barrena ibilten direnek 85 euro ordaindu beharko dituzte bigarren maletagatik. Distantzia luzea hegaldikoek, berriz, 180 euro inguru.

## Euriborraren igoerak urtean 1.200 euro igoko ditu hipotekak

Azkenaldian ohiko bilakatu da euriborrak igoerak izatea. Otsailaren 9an %4,1ean kokatu zen.

Etxebizitzen hipoteketan laster laster nabarituko da. Modu horretan, 26 urtean ordaintzeko duten 144.000 euroko mailegu bat berriz aztertzeak urteko 1.200 euroko igoera eragingo du.

# kutxaNOMINAK

## SMS bidezko Abisu zerbitzu berria

Nomina  
sartu orduko  
guk abisua  
bidaliko.

Doako zerbitzua. Nomina **kutxa**n helbideratua izateagatik, besterik gabe.

Sartu [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)-en eta eman izena.

**gure artekoak**

**SAN MIGEL DEKORAZIOAK** > Gremioei eta partikularrei igeltsua, pladurra, isolmenduetarako materiala, azulejuak, lan-tresnak... saltzen dizkiete; eta orain dela gutxitik, profesionalendako segurtasunerako materiala ere bai.

Ainhoa Carazo

## "Gure enpresan beti izan du lehentasuna segurtasunak"

AINTZANE IRIZAR > BERGARA  
Familiako enpresada Decoraciones San Miguel. Lau langile ditu eta gremioei materiala saltzea da euren zeregin nagusia. Berriki segurtasunerako materiala saltzen hasi dira. 1989an sortu zuen enpresa Ainhoaren aitak.

**Zer eskaintzen duzue zuen enpresan?**

Batez ere, gremioei materiala saltzen diegu: igeltsua, pladurra, isolmenduetarako materiala, material iragazgaitza, suteak ekiditeko material berezia...

**Eta orain, baita lanerako segurtasunerako arropa ere.**

Bai; orain dela bi hilabete hasi ginen segurtasunerako materiala saltzen: arropa, kaskoak, oinetakoak, belarrietarako tapoiak, maskarak, eskularruak... Segurtasunarekin zerikusia duen era guztietako materiala eskaintzen dugu.

**Zelako bezeroak dituzue?**

Segurtasunerako materialari dagokionez, bezero guztia dira profesionalak: igeltseroak, elektrikariak... Bainan, bestelako materiala, gehienbat gremioei saltzen diegun arren, asko dira etortzen zaizkigun partikularrak. Mainatsu asko dago.



Ainhoa segurtasun materiala jantzia daukan manikiaren ondoan. A.I.

**FITXA TEKNIKOA****> KONPETENTZIARIK EZ**

Igeltsu eta isolamendu lanik ez dute egiten gurean, hemendik kanko bakarrik, euren bezeroei konpetentziarik ez egitearren.

**> POSTA ELEKTRONIKOA**

ainhoa@decoracionessanmiguel.com. Webgunea laster izango dute.

**> MATERIALA EUROTAN**

Ez dira batere garestiak: kaskoa, 3 euro; oinetakoak, 22-42 euro; maskarak, 10 zentimo, tapoiak, 1,50 euro; eskularruak, 2,65 euro.

**Geroago eta garrantzi handiagoa ematen zaio segurtasunari, ezta?**

Bai; gaur egun asko zaintzen dira segurtasun kontuak, batez ere, obra handietan. Kontrol handia egoten da agintarien aldetik, eta hori poztekoa da. Denok kontzientzia hartu behar dugu segurtasun neurriek duten garrantziaz, bai enpresariekin, baina baita langileek ere. Gure enpresan beti eman izan diogu garrantzi handia eta horregatik hasi ginen segurtasunerako materiala saltzen, oso gertutik ezagutzen genuen mundua zelako.

**begi-bistan**

**Kontrol arriskua  
(Aramaio)  
2007/02/15**

Argazkia: Ubane Madera.  
Testua: Aintzane Irizar.

Errepideko seinale berezia ikus-ten dugu azkenaldian Aramaiko irteeran. Kontuz, kontrolak dio seinale horrek. Gidariekin badakite, bida, Goardia Zibilak topatu ahal dituela errepide erdian.

**Har ezazu parte:**  
Argazkia eta azalpentxoak  
bidali honako helbidera:  
goienkaria@goiena.com

**etxeko leihotik**

Goiatz Arana &gt; GOITBKO albistegietako arduraduna

## Gehiegi aguantatzen zuten lehen; orain, batere ez

Tenerifeko Inauterieta ospakizunak normaltasunez egingo dira azkenean, kaleko ekitaldi eta guzti. Bizi-lagun batzuen kexek jarri zitzuten zalantzaren Tenerifeko Inauteriak, munduko garrantzisuenetakoak eta Espainiako Estatuko luzeenak eta koloretsuenak. Kalean ateratzen duten zaratak atsedenerako eskubidea urratzen diela argudiatuta jo zuten epaitegietara, eta haserretu egin zen irlako alkatea, Inauteriak bertan behera uzteak mesede baino kalte handiagoa ekarriko zuela esanez. Horren alde egin du epaileak eta, horrenbestez, nahi adina zarata ateratzeko argi berdea eman die ondo pasatzeko gogoz direnei. Eta poztzen naiz ni ere, ze demonstre gero! Bakean lo egitea gauza ederra denik ezin uka dezaket, baina urteko egun batzuetan festa egingo eta horren kontra egin beharra ere... Zarata, arrazoia? Barkatu, aitzakia esango nuke nik. Aste bukaera oro errepikatuko balitz, ni ere ados bizilagunekin, baina ez dut uste kasua denik, lehendik ere ezagutzen ditut-eta urtean lau egunetan festa egiten den herrieta barraketako musikarekin molestatzen direnak ere.

**> Oñatin Aratuste-martitzena izango da egun guztien artetik potoloena, baina Arrasaten zapatua indartze-ko ahalegina egingo dute. Bergaran ere gainbehera doa aste barruko festa.**

**> Txikiteoaren bide beretik doaz, beraz, jaiak ere. Atzean geratu dira egunero tabernaz taberna ibiltzen ziren koadrilak. Aste bukaean azaltzeko, aste barruan etxean ezkutatu behar. Dena ezin.**

**izen propioak**

**Oskar Arana**  
ITZULTZAILEA

Oskar Arana aramaioarrak Paul Auster idazlearen liburu bat itzuli du eta eman du argitarra, Alberdania argitaletxearen esku: *Bidaia scriptoriu-mean zehar*, hain zuzen ere. Itzultzen duen Paul Austerraren bigarren liburu; iaz *Brooklyn eroikeriak* itzuli zuen.



**Itziar Astiazaran**  
FARMAZIA DEKANOA

Nafarroako Unibertsitateko Farmazia fakultateko dekanoa da Itziar Astiazaran arretxabaletarra. Iazko urrian Gipuzkoako Urrezko Domina jaso zuen; orain, berriz, Gastronomiako Euskadi Saria jaso du Euskadiko Gastronomia Akademian esku.



**Xabier Azkarate**  
KORRIKALARIA

Kantabriako triatlloi zurian laugarraren postuan sailkatu zen Xabier Azkarate antzuolarra, Alto Campoen; beteranoen artean bigarrena izan zen, baita kantabriaren artean ere. Kontuan hartu behar dugu Kantabriako lizenziarekin jardutu duela.

Jose Angel Irigarai (Iruñea, 1942) idazlea da, eta antropología eta gizartea asko interesa satzen zaizkio. Horrez gain, Aratustezale handia da. Jai horien gainean berbaldia egin zuen eguztenean Arrasaten. Besteak beste, Aratuste jaiak gehienok uste baino zaharra- goak direla esan du, eta gizar- tea eraberritzeko egiten den errituala dela azaldu.

**Jose Angel Irigarai > Idazlea eta kulturagilea**

# "Intsektuen eta izurriteen inguruaren eraikitako konjurua da Aratustea"

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Jose Angel Irigarai idazle eta kulturagile iruindarra Arrasateko Kulturaren izan da, Arizmendi ikastolak gonbidatuta, Aratusteen jatorriaz berba egiten. Arrasate Irratian elkarriketa egin dio Aitziber Aranburuzabalak. Han esandakoak jaso ditugu.

Gurean, Eguren-gizena ospatzenten dute, Eskoriatzan batik bat. Zuk zelan deitzen diozu egun horri?

Ostegun-zuri edo Orakunde deitzen zaio Baztan aldean. Gero, Ostiral-mehe; eta gero, Zaldun-ihaua (domeka), Astelehengi-ihaua eta Astearte-ihaua.

**Aratuste, Karnabal, Inauteri... Zein da berba egokia?**


Debagoienean, bizkaierazko lurraldean, Aratuste erabiltzen da betidanik, eta berba polita da. Haragi-uztearekin lotu izan da, eta horrek lotura ei dauka *carnem levare* esaldiarekin, hau da, haragiari uzten zaio, bai jateari –bizkaieraz, okela–, eta bai sexu aldetik ere. Hortik eratorri dela uste izan da, eta beharbada hala da.

Baina beste teoria batzuek inausketarekin, podarekin, lotzen dute Aratustea; izan ere, *arazu* berba badago, garbitu esan nahi duena. Zuhaitzak eta landareak garbitzearekin zerikusia izan dezake, hango animaleiek, intsektuek eta izurriteek ez gaitzaten jan.

**Aratustearren ondoren, Garizuma dator. Zerikusia du Aratusteak horrekin?**

Tradizionalki, Caro Barojak eta beste hainbatetik ondorioztatu dute Aratustea hortik datorrela: baraualdi sasoiaaren aurretik datorrena. Hala ere, ez dago baterre argi horrela denik. Sinisgarriagoak dira beste teoria batzuk. Inauterietan eta antropologia arloan, geruza asko daude, eta batak betea estaltzen du. Muinean, oso Zaharra den jai erritual bat egongo da, eta horren gainean eransten joan zaizkio geruza desberdinak.

Nire ustez, ospakizunaren kutsua hauxe da: metafora baten, landare eta zingiratzen sortzen diren intsektuek arazoak sortzen dizkigute. Horren gainean eraiki den konjuru-ospakizun moduko bat da Aratustea, ez ditzaten gure uztak akabatu. Baino gero, kristautasunak beste geruza bat dakar. Bakotzak du bere balioa, eta oneña da elkarren osagarri moduan



IKER BARANDIARAN

ulertzea. Geruzak beti bizirik daude; importanteena da muina, zergatik eta zelan sortzen den Aratustea egiteko behar hori.

**Eta badakigu zein den jatorri hori?**

Nik uste dut oso Zaharra dela. Garai baten, lotu da kristautasunarekin: Garizuma aurretik, jaia jo eta sua egin beharra, sentzialitatea, orgia, ardoa... Baina frogatu da kristautasuna iritsi ez den tokietan ere horren antzeko jaiak ospatzten direla. Hori baino Zaharra da.

Gure hemisferioan, Eurasian, bi urtaro oso nabarmen daude, uda eta negua, eta uztaren ondoko ernalketa eta joritasunaren ondoren luraren isiltasuna dator. Aro hori amaitzean dagoela, mundua esnatzea eta oporatasuna gertatzeko konjuruak egiten dira. Horietan, erritual jaietan gertatzeten den modura, gizartea sorkuntzazko denbora batera bueltatzen da, eta kaosa berpizten du: animaliak, gaiz-

JATORRIA

**"Kristautasuna baino zaharragoa da Aratustea; beharbada, Paleolito garaikoa"**

MOZORROAK

**"Mozorro' eta 'zomorro' berba bera da; mozorrotzean, gizartea zomorro bihurtzen da"**

GARBIKETA

**"Orain ere, Inauteriak gizartea kritikatzen edo kitzikatzen du, bere burua garbitu eta bizirik iraun dezan"**

kia, orgia, eta sakrifizio moduko bat egiten diitu eta, horien bidez, gizartea eraberritu egiten da eta berriro sortzeko gai da.

Nik uste dut muina beharbada Paleolito garaitik datorrela. Segurua da nekazaritza hedatu zen garaitik datorrela, hau da, orain bospasei mila urtetik.

**Mozorrotzea berria da?**

Ez, oso Zaharra da. Hala, aitzaren papera egiten ei zuten pertsonaien irudiak eta mozorroak aurkitu izan dira orain 15.000 urtekoak. Mozorroa oso Zaharra da, eta gure barnean erreprimita dagoen oldar mundua kanporatu egiten dugu horren bidez; gure 'bestea ni' aurkitu eta osatuta gelditzen gara. Beti oso kaitikoa da senaren mundu, eta hori bizi izatea ahalbidetuz, osatuago ateratzen gara. Ohitura hori oso-oso Zaharra da: Urbeltzak animalien kontrako konjuru gisa interpretatzen du, eta hark nabamentzen du *mozorro* eta *zomorro* berba bera dela

metatesi batekin, eta horrek esan nahi du, seguru asko, mozorro-zearekin zomorro bilakatzen garela, intsektu kaltegarri, eta intsektuak gosea asetzeko behar dituen opariak eskatzen ditu. Hain zuzen, konjuru hori izan daiteke Inauteriena.

**Lehen, mozorro zehatz batzuk zeuden?**

Garai baten, mozorro gehienak ziren gaiztakeriekin zerikusia zuten pertsonaien irudipena: Ziripot, Mielotxin... Orain, hori oso ahaztua dago, baina, orain ere, Inauterik gizartea kritikatzen edo kitzikatzen du, garbitu eta bizirik iraun dezan.

**Sardina-ehorzketa zer diozu?**

Berri samarra da. Baliteke kostaldean arrain bat izatea; barnealdean, beste animalia mota bat erabiltzen da, txerria-edo. Gosetearekin eta arazoekin zerikusia duen zerbait edo norbait erretxa, adierazten da gizartea berriz garbitua gelditzen dela.



zabalik

Oskar Elizburu

## 'Euskal' emakumeari

Euskararen egoera normalizatzea da AEK-k daukan helburu nagusienetako, eta bide horretan ditugu eskola praktikoak, erabilera jarduerak, eta, zelan ez, aldarrikapen eta jaia dugun Korrika. Badira 15 ekitaldi euskararen sugea egiten, herriz herri eta auzoz auzo euskararen aldeko mezua eta aldarrikapena zabaltzen, eta horretan guztiok arrotzeko moduko militantzia eta lana egin dela ezin inork ukatu.

Ekitaldi bakoitzean sektore bat omentzeko erabakia hartua dauka Korrikak, eta aurtengoan, *Euskal emakumeak* aukeratu ditu.

Euskal emakumeek lan ikaragarria egin dute historian zehar euskararen zabalkundean eta transmisioan. Euskara, debekatura eta gizarteko leku zabaletatik zokoratuta egon denean, etxe-

### "Euskal emakumeek lan ikaragarria egin dute euskararen zabalkundean eta transmisioan"

### "Elkartegi gehienetan inurri lana egin duten gehienak dira emakumeak"

gordetzen egin dutena eta egiten dutena ezin dezakegu ordaindu; eta ez hori bakarrik, azken urteotan, oztipo guztien gainetik, ikastolak, gauzeskolak eta euskararen aldeko mugimendu eta elkarte gehienetan bultzatzaile eta txin-durri lan demasa egiten duten gehienak emakumeak dira.

Askotan, besteengandik bereizten edo nabarmenzen direnak omentzeko joera daukagu, haiek denon isipilu bilakatu nahian edo, eta zoritzarrez, *eguneroko lan txiki baina eraginkorrena egiten dutenak ahaztu egi-en ditugu*. Euskal emakume guztiak dira, beraz, Korrika 15ek omendu nahi dituenak, familiako lana, eskoletakoa, elkartetako, euskara ikasten dabilzanak, laguna erabiltzera animatzen dutenak...

Emakume bakoitzak badaki zertan diharduen, eta omenduen multzoaren parte da berez, egiten duenagatik, baina manifestua sinatuz gero, publikoki.

Heldu euskarari!

## Goienkaria

**Argiratzalea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendaria** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larranaga (Publizitatea) **Erredakzia** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larranaga, Amaia Mundiniano, Zortzta Martin, Imanol Elortza, Itxaso Bereziar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzaran, Ane Bereziar, Iratxe Bengoia

### EGOITZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otarra Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.



LAGUNTAILEAK

OID erakundeak  
ikuskatutako astekariaEusko  
JaurialtzaGipuzkoako  
Foru AldundiaArrasateko  
UdalBergarako  
UdalOñatiako  
UdalAretxabaletako  
UdalEskoriatzako  
UdalAntzuolako  
UdalAramaioko  
UdalElgetako  
UdalLeintz Gatzagako  
Udal

## herritarak galdezka

**HERRITARREK ALEGAZIOAK**  
EGIN DIEZAIKETE  
PROIEKTUEI  
**Irakurle batek idatzi digu galde-tuz ea zer egin behar den udale-an dagoen proiektu bat alegazio-ak egiteko?**

Proiekturei alegazioak egiteko epe jakin bat egoten da. Hortaz, kontuan hartu behar den lehenengo gauza da alegaziook egiteko epe tarte horren barruan aurkeztu beharko direla. Egin nahi den alegazio hori norberak idatzi eta udaletxera eraman behar du. Idatzia orri arrunt baten egin daiteke, eta makinaz zein eskuz aurkeztu daiteke. Gero, proiektauri dagokion udal zerbitzuan aurkeztu beharko da. Esaterako, azpiegitura baten gaineko proiektuari egiten bazaio alegazioa, bada, bulego teknikoan aurkeztu beharko da.

Proiektaua udalarena baldin bada, hark emango dio erantzuna, baina beste erakunderen batean izanez gero, Foru Aldundiarrena, Eusko Jaurlaritzarena..., hara bideratzeko ardura du udalak, eta handik jasoko du erantzuna alegazioa egin duenak.

**LABEGARAIETAKO ZIBURUEK**  
IKA-MIKA ERAGIN DUTE

**Bergarar batek auzoan jarri diz-kieten ziburuen gaineko kexua du. Herrigunean -Espoloia- zeuden ziburuak kendu eta berriak jarri dituztela dio eta zaharrok euren auzora eraman dituztela. "Zergatik egin du Udalak hori?", galdetzen du.**

Udalek azaldu dutenez, Espoloi-lik kendu dituzten ziburuak ez

ditzute kendu egoera txarrean zeudelako, baizik eta, arautegia-ren arabera, halako ziburuak ezin dutelako zuhaitz artean egon.

Horrekin batera gehitu dute Labegaraietan jarri eta gero, margotu eta txukundu egingo dituztela eta zoruan zulodun goma berezi bat jarriko dutela neska-mutikoen segurtasuna bermatzeko eta lokatzik ez egiteko. Gainera, ziburu multzoa osatzeko berriak ere jarriko dituztela azpi-marratu dute.


**BASERRIETAKO PLASTIKOA**  
BATZEKO EGUNA

**Baserri ingurunean sortzen den plastikoa batzeko hurrengo eguna noiz den galdetu digu irakurle batek.**

Otsailaren 27a da baserri ingurunean sortutako plastikoa batze-ko eguna. Debagoieneko landa garapenaren elkartek ematen du zerbitzu hori eta hilean behin izaten da. Elkartetik ohartarazi dutenez, ohiko lekuetan laga beharko da plastikoa, eta arratsaldez ateratzea komeni da. Infor-mazio gehiago: 943 76 25 47.

## marrakiz

Unai Busturia



## Mezua: Preso jarraitzen du

**Imanol Murua Uria**  
www.berria.info/blogak/imanol

**E**spainiako auzitegiak eta espelte erakundeak kritikatu zituen De Juanak bi artikulutan, gogor kritikatu ere, baina idatzi haien osorik irakurri dituenak badaki han ez zela mehatxurik. Halaxe erabaki zuen, hain zuen, auzi hau lehenengoz bere esku izan zuen epaileak, Santiago Pedrazek, artxibatu

egin baitzuen, delitu zanturik ez zegoelako. Alde guztietako presioak eterri ziren gero, sektore atzerakoienek kontro-latutako epaimahaiaren aginduz auzipetzea ondoren, 96 urteko kartzela eskaera, 12 urteko sententzia...

Lopez Aguilera Justizia ministroak agindu zuena betetzen ari zen, azken batean, Espainiako botere judizial independentea: legez zegokion bezala aske gelditzea eragotze-ko, akusazio berriak eraiki-tzen. "Mehatxu terroristak" egotzita zigortu zuten 12 urtera, baina halakorik ez dute ikusi orain Goreneko epaileek.

Errugabetza gehiegitzo iruditu, ordea, eta beste delitu bat topatu diote, lerro artean onto bilatuta: terrorismoaren apologia, mehatxu arruntekin batera.

## Pasioa kazetaritzan

**Goio Arana**  
www.goiena.net/blogak/superbai

**H**asieratik esango dut ez ditudala gustuko (edu-kiaz ari naiz, diseinuan, denetik dagoelako) hiriko

## plazara

Udal Hauteskundeak gero eta ger- tuago ditugu. Hori horrela eta alfabetoa erabilita, hainbat gai- ren gainean jarduten du Iñaki Gal-

dosek. Esaterako, Aralar-EB koa- lizioa Debagoienean ere izango ote den galdetzen du. Hainbat gau- zatan urrunegi ikusten ditu. Ezker

Abertzalea legalizatuko ote duten ere galdeztzen du. Hark halaxe nahiko luke. Horiek eta beste hainbat gai ekarri ditu orriotara.

Iñaki Galdos \*

## Udal Hauteskundeak: gogoetak alfabeto gisa

**A**poderatuak eta interben- toreak: alderdiek mahaie- tan jartzen dituzten ordez- kariak. Jendeak ez ditu oso gus- tuko. Beharrezkoak al dira oraindik?

Batzar Nagusietarako hau- teskundeak ere badira egun bere- an. Herri askotan differentzia handiak egoten dira alderdien emaitzetan hautestontzi batetik bestera. Debagoienean ez hain- bestea.

Curriculuma janzteketa eta gauzak ikasteko ez da modu txarra 4-8 urtez zinegotzi izatea. Hori da gazte asko konbentzitzeo era- biltzen dugun bidea. Eta egia da.

Diru gehiegia gastatzen al da kanpainetan? Bai, zalantzatik gabe. Eta gero eta garbiago dau- kat alferrik gastatzen dela gehie- na.

Emakumeak zerrendetan sartzea ez da gauza erreza. Ez dakit zergatik baina gizonezko- ei baino gehiago kostatzen zaie baiezkoa ematea. Lege bat ere izango dugu, parekotasuna ber- matzeko. Ikuisko ditugu emai- tzak.

Funtzionarioak omen dira udaletan agintzen dutenak eta ez alkate eta zinegotziak. Egia ote?

Galdu egin dut koalizioaren borroka. Demokraziaren legea gehiengoak dioena errespetatzea da.

Herriaren izenean gehiegia egiten dugu berba.

Independenteak zerrendetan? Gero eta gutxiago! Portzier- to, zer da "independentea" izatea?

Joxeba: zergatik joan zinen Eslovakiari legealdi erdian?

Koalizio berria: EB-Aralar. Gure eskualdean ere bai? Gauza askotan urrunegi ikusten ditut.



MIKEL ARROIAIBE

Legalizatuko ote dute Ezker Abertzalea? Hala bedi!

Marketina, garai berrieta gailentzen ari dena. Gogoratzen al ditugu garai bateko kanpaina?

Nazka, jende askok alderdie- kiko sentitzen duena. Autokritika beharrezko dugu.

Nabardura txikiak: askotan alderdien arteko liskarrak eta alderdi barrukoak pizteko nahi- koa izaten dira.

Omenaldi beroa, alderdieta- ko afiliatu zintzo eta leial asko eta askok merezi dutena, herria- ren alde lana egiteagatik.

PSOE eta PP. Hauek ere, beste era bateko "ilegalizazio" mota baten biktima, zerrendak

**"Curriculuma janzteketa eta gauzak ikasteko ez da modu txarra 4-8 urtez zinegotzi izatea"**

**"Galdu egin dut koalizioaren borroka. Demokraziaren legea gehiengoak dioena errespetatzea da"**

osatzeko: beldurra, mehatxuak... Autokritika behar dugu horretan ere.

*Quosque tandem abutere patientia nostra?* Herritar askok politikooi esaten digutena.

Referendum gehiago egin beharko lirateke herrieta hain- bat gai erabakitzeko? Gogoeta sakona egiteko gaia da, zalantza- rik gabe.

Sorpresa zerrendetan, inde- pendenteak bezala, gero eta gutxiago.

Tranbiarena da hurrengo legealdirako gure eskualdean daukagun erronka nagusienetako. Gai izango al gara adosta- sun zabalak lortzeko?

Usteak erdi ustel! Zenbat zurrumurru, txutxu-mutxu eta esamesa egongo da zerrenden inguruan hurrengo asteetan gure herrieta? Ezetz laurdenak asmatu!

Valeriana da, zalantzarik gabe, hurrengo asteetan politi- koek gehien hartuko dutena. Eta hauteskunde egunean, zer esa- nik ez!

Web orriak, hautagai guz- tiak prestatzen ari direnak. Agian, modan dagoelako, behar- rezkoak direlako baino gehiago.

X-ak jartzea: jende askok zerrendetan egin nahi lukeena. Noizko, zerrenda irekiak?

Y grekoak, trena. Kanpainan puri-purian egongo den gaia. Ni alde nago.

Zinegotziak behar ditugu gure herrieta. Animatzen al zara?

\*Eako Gipuzkoako presidente da Iñaki Galdos

## zer deritzozu?

www.goiena.net

Mozorrotuko zenuke inor? Eta zertaz?

BAI	%100
EZ	%0

## &gt; BUSH IRAK-EKO HERRITA- RREZ

Ikusiko nuke gustura Bush Irakeko herritar bat legez, eta bere lagun guztiak diren bezalakoak, yankiak.

Miren

## &gt; NIRE SENAR OHIA

Nire senar ohia igelez jantziko nuke. Ipuinagatik diot. Musu ugari eman nion baina ez zen printze bilakatu. Igel izaten jarraituko du bizitza osoan.

Ainara

## &gt; HAINBAT LAGUN

Jende pilotu etortzen zait burura eta ez mozarro polita jartzeko, gainera. Bat esatekotan, Bush.

Aitor

## &gt; ABIADURA HANDIKO TRENA

Horixe mozorrotuko nuke nik: Abiadura Handiko Trena. Tren soziala izatea nahiko nuke eta hala mozorrotuko nuke. Gaine- ra, zoritzarrez, gainean daukagu: Aramaion ere laster hasiko ei dira lanak. Unai!

## DATORREN ASTEKOAH: Nahiko zenuke merkata- ritzagunea gurean?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

kaleetan, eta zenbait toki publikotan, doan banatzen dituzten 20 minutos, Qué! ADN, Metro eta era horretako egunkariak. Egunkari horiek duten kazetaritza estiloa negargarria iruditzen zait -hurrengo baterako utziko dugu euskarari ematen dioten tratamendua!, tontakeri mordoa argitaratzen dute, eta tontakeria ez dena, idazten duten tonuagatik, ikuspuntuagatik edo motz idazteagatik, berehala, tontakeri edo bitxikeri hutsa bihurtzen dute.

Atzo, guztiz harrituta geratu nintzen 20 minutos-ko Bilbaoko edizioko azalean irakurritako

izenburu batekin. Albistearen gaia, Cabo Verden sekulako krudelkeriaz hildako bi neska italiarren (hirugarrena, txiri- paz irten zen bizirik) kasua zen.

Benetan gaiztoa iruditu zait esaldi berean "lapidación" eta "pasional" hain modu nazkagarrrian batza (edizio guztietan atera zuten izenburu bera). Hau ote da, "erakargari", "ulergarri" eta "erraz irakurtze- ko" moduko idazketaren adibidea? edo, haserretu barik, motz idaztearen "ordin" moduan ulertu beharko ditugu horrelakoak?

"Crimen, pasional"? Pasioz itsu egongo ote ziren hiltzaile-

ak hilketa antolatzerakoan? Pasio handia sentituko ote zuten halako astakeria egiten ari zirela? Pasioz bete-beterik hilko ote ziren bi emakumeak? 20 minutos-eko kazetaria, bere lanbidean jartzen duen pasio handiak bultzatuta idatziko ote zuen horrelako izenburua? eta, zuzendari "apasionatu" batek eman zion oniritzia?

Gero, beste egunkari baten argitaratutako iritzi artikulu batengatik 96, 13 edo 3 urteko kartzela zigorra eskatzea gauzarik logikoa irudituko zaie 20 minutos-eko irakurle askori!

Inauteriak iritsi dira ailegatu da desfasa. Itxuraldatzen hasi gaitezen prest al daukazu disfraza?

Berdin Karnabal zein Inauteri edo berdin Aratuste, jai aitzakian onartzen dugu makina bat arau hauste

Maskara eta soineko eder glamouraren garrantzia. Karnabaletan dotoreziaz jantzi ohi da Venezia.

Tenerifera begiratuta dirdiratsu erregina. Zarata gutxi atera arren bada festarako grina.

Hain urrutira joan gabe ere ai, zein leku aproposa Mozorro jantziz jada prest dago Jai girorako Tolosa.

Gurean ere sortu nahi bada Aratuste jai polita, denok kalera irten gaitezen mozorroren bat jantzita.

## kopak

Irati Agirreazaldegia

## Inauteri, herria mozorrotu bedi

Inauteriak iritsi dira ailegatu da desfasa. Itxuraldatzen hasi gaitezen prest al daukazu disfraza?

Berdin Karnabal zein Inauteri edo berdin Aratuste, jai aitzakian onartzen dugu makina bat arau hauste

Maskara eta soineko eder glamouraren garrantzia. Karnabaletan dotoreziaz jantzi ohi da Venezia.

## Badator munstroa

Piter Encinas eta Joxe Ruiz (Zutik)  
Debagoiena

Gaien sartu aurretik, politikari profesional baten komentario batzuk kritikatu nahi ditugu. Herritarrengandik oso urrutti, ilargian-edo, bizi delako egingo zituen beharbada, baina tira... Horrelako jendeak herritarren mugimenduei buruz esan ohi dituen astakeriez ari naiz. Zergatik esaten dituzten? Eurek proiektatzen dituzten makro-proiekturek zuzenean eragiten digutela kontuan hartuta, baztertu egiten ditugulako: errauskailuak, superportuak, planta gasifikatzaleak, autobideak eta beste hainbat proiektu. Den-denaren aurka gaudela esaten duzue, baina gezur izugarria da hori. Natura, nekazaritzarik ekologikoa, planeta iraunkorra (baliabideak zaintzen dituena), ibai, aire eta itsaso garbiak (kutsatu gabeak) eta abar defenditzen ditugu gogotik. Politikari sasi-profesional horiek sarritan "demokrazia" hitza erabiltzen dute aho betean, eta zera galdetzen diegu: zergatik ez zarete demokraziaz balitzat eragindako herritarrei zuen proiektu handien alde edo kontra dauden galdezko, eta jakina horien erabakia errespetatu gaia edozein dela ere: Zornotxa, Zubietza, Getxo eta abar.

Eta orain idazki honen helburu den gaian sartuko gara bete-betean. Bai esaten diogu tren koblentzialari, betiko trenari alegia, garraibide publiko ona dela pentsatzen dugulako, autobideak eta Abiadura Handiko Trenak baino kalte gutxiago egiten diolako inguruari. Bai, horren alde gaude erabat, herriak eta pertsonak hurbiltzen dituelako, AHTek ez bezala.

Ez esaten diogu AHTri, milioika metro koadro baso, zelai... suntsituko dituelako. Abiadura Handiko Trena lehen sektorearen lagun kaskarra da, baserriak suntsitu eta baserriar askoren hondamena ekarriko du.

Diru-kontuei lotuz, aurrekontua 6.000 milioi euro inguru da. Eusko Jaurlaritzaren 33 urterako etxebizitza-aurrekontuaren parekoa edo 50 urterako hezkuntza-aurrekontuaren parekoa.

AHT ez da egokia gure orografiaren dako. Izan ere, zubiak eta tunelak egin arren, inoiz ere ez ditu hartuko esaten diren abiadurak (250 km/h). Gaur egun izugarri hitz egiten da energia aurreztekoko beharrari buruz, negutegi-eraginari buruz, planetaren berotzeari buruz... Eta nola liteke aldi

## Non daude babes ofizialeko 92 etxebizitzak?

Enrike Letona (Herri Anitzaren izenean) > Arrasate

**B**abes ofizialeko etxebizitzentzozketa atzeratu egin da Arrasaten. Udaleko indarrak antolaketa prestatzeko ez dira ados jartzten. Guk, berriz, bizi-bizirik daukagu oriomenean Gelman galduzako babes ofizialeko 92 etxebizitzat. Gauza batzuk ez ditugu ulertzen, edo, hobeto esanda, entenditu ez ditugu entenditzen (gauza horiek egitea nola permititzen den), baina ulertu ondo ulertzen ditugu. Bizi dugun eredu ekonomiko honekin diru dezente duen edozein Guibert (Gelma erosia zuena) etorri daiteke eta lantegi bat erosi. Aldez aurretik badaki ez duela erosten hainbat langile lanik gabe gera ez daitezten, bere asmoa lur horietan etxeak eraikitzea da. Lasai asko esango dizu: "Negozioen mundua horrelakoa da". Gu eredu ekonomiko horren kontra gaude, jakina!

Gainera, legislatura honetan Udalean dauden indar politikoek, Ezker Batua izan ezik, Guibert jaunak diru gehiago egin dezan laguntza ederra eskaini diote. Norbaitek galdeztuko du, nola egin dute hori? Ba, modu erraz eta sinplean esanda, Gelmako orubearen gestio sistema aldatz.

Aurreko legislaturako Udala zuzentzen genuenok garbi ikusi genuen Guibert-ek "lapurreta" itzela egin behar zuela; beraz, gure eskuetan zegoen neurri batzuk jarri genituen; hau da, esan genion babes ofizialeko etxeak (merkeagoak) 212 izan behar zirela eta etxe libreak (oso garestiak) 177. Gaur egungo Udalak, berriz, guk jarritako neurri hori aldatu egin zuen eta negoziazio prozesuan babes ofizialeko etxeak (merkeagoak) 125 izatea erabaki zuen eta etxe libreak (oso garestiak) 293.

Guk pentsatzen dugu guztiok daukagula eskubidea etxe duin bat izateko bizi guztirako zorretan sartu gabe. Eta kenketak eta batuketak egin ondoren azpimarratzeko oso datu garrantzitsua ateratzen zaigu: 92 familiak lau aldi gehiago ordaindu beharko dute etxeak! Horrela defenditzen ditu herritarra Udal honek?

Ez dakigu dagoeneko Gelmako etxebizitzak salduta dauden. Badakigu, ordea, prezio horretan ezin direla erosi etxe horiek. Beraz, aukera polita izan daiteke esateko ez gaudela ados prezio horiekin. Nola? Pelotazo horien kontra kanpaina eginez!

Etxe duina izateko eskubidea dugu! Arrasate ez dago salgai!

berean munstro hori impoztzea? Gure ustez zentzugabekezia izugarria da. Abiadura Handiko Trenak potentzia eta energia-gastu handiagoa du ohiko trenak baino.

Eta azkenik, diskurtso filosofikoari helduz, uste dugu abiadura eta askatasuna ezin direla uztartu, goazen tokira minutu batzuk lehenago heltzeak ez du ezertarako balio. Bizi bizi egin behar da, lasai, presarik gabe. Hori da balio duena, bizimodu estresatua baino askoz osasuntsuagoa da.

Bukatzeko, aldeko esaldi bat: bai ohiko trenari.

P.D.: Gogorarazi gura dugu Sustapen Ministerioak dagoeneko adjudikatu dituela zenbait atal (besteak beste Arrasatetik Elorriora bitarteko, 4,4 km inguru) eta Udalatxeko tunela (3 km-tik gora). Hortaz, datozen bi hiletan zenbait ekintza egingo dira: hitzaldia, mendi martxak, kontzentrazioak... Bada, gonbidatuta zaudete guztiguztiok horietan parte hartzera eta proiektuari ezetz esatera.

datuak? Alde zaudetenok ikusi al dituzue? Ba al duzue benetan pisuzko arrazoirik alde egoteko? Eman al dizuete politikarien informaziorik? Erakutsi, erakutsi guri ere!

Ez ote da gizakiok omen dugun adimen eta hausnarketako gaitasuna martxan jartzeko garaia? Guztia itsu-itsuan sinisteak ez ote digu egunen batean bere buelta ekarriko... Ezin gara ordezkarri soil izanez agintari uste direnen hitzaz fidatu. Elgetako herritar, talde eta eragile denoi luzatzen dizuegu gonbita hurrengo bileretan parte hartzeko, informazioa elkartatzeko...

## Konponbide demokratikoa

Leire Lardizabal

Debagoiena

Zauriaren baitako ebakia izan liteke askorentzat. Eta esaldiari zentzuera modu desberdinatan har daki. Euskal Herrian bizi dugun gatzaka politikoa azalean daramate beraiek marraztuta. Herri honen identitatea aldarrikatu dute molde desberdinatan.

Euskal herritarren eskubideak bermatuak izan daitezen egin dute lan. Eta, paradoxikoki, izaera politikoa zein oinarritzko eskubideak ere onartzen ez dieten erregimen biren espesietan dira gatibu; gatzaka politiko honek eraginda dira orain preso. Estatus politikoa aldarrikatzen jarraitzen dute oraindik ere, eta ukazio guztien gainetik, beraiek ere arazo honi konponbide demokratiko bat emateko soluzio bila dabilta. Hortik, euskal preso politikoen kolektiboak gatzakaren erroak aztertz egin duen hausnarketa berria. Arazoaren oinarrian dago espinpiar eta frantziar gobernuek Euskal Herriari bere izate propioa onartzeari egiten dioten ukazioa. Eta honi lotuta dator baita, euskal herriko biztanleei beraien herriaren gainean erabakitzeko duten eskubidearen debekua ere.

Benetako konponbide demokratiko bat Euskal Herriko zazpi lurraldeak errealtitate nazionalaren parte direla onartu beharko luke, eta haietan bizi diren guztiek dutela antolatzeko eskubidea. Gatzaka politikoi benetako konponbide demokratiko bat eman ahal izateko euskal herritarroi autodeterminatzeko eskubidea onar diezaguten ezinbestekoa da. Inor gutxik pentsa dezake arazoaren eragina zuzenean pairatzen dutenekin kontatu gabe arazo bat soluzio erreal bat aurkitu

dakiokeenik. Baino euskal herritarroi ez digute galdeztzen zer nahi dugun. Are gehiago, estatuek hainbat modutan zigortu dute euskal naziotsunaren, izaerarekin lotutakoedozein mugimendu. Adierazpen askatasuna isunekin, poliziaren kargekin, atxilotekin etengabe zapaltzen dute (azken egunei errepaso bat jotzea besterik ez dago, urrutago joan behar izan gabe); gazte mugimendua terrorista deklaratzen dituzte; justizia bera ere komeni zaien neurrira moldatzen dute behin eta berriz herri honen eraikuntzan saiatzen diren haien gainontze-koak dagokien eskubideen alde lan egitera anima ez ditzaten.

Mendekuzko politika atzerakoia ardatz hartuta, errepresso ezin kamaleonikoagoaz baliatu dira urteetan – eta baliatzen jarraitzen dute– euskaldunoi geure herriaren gainean erabakitzeko eskubidea behin eta berriz ukatzeko. Denok ezagutzen dugu jarrera horrek ekarri dizkigun ondorio latzak: atxiloteka masiboa, tortatuak, isun ekonomiko desorbitatua, hildakoak, ehunka preso politiko dispersio politikak sakabanatuta... Egun dugun adibiderik gordinena, Iñaki de Juana presoaren kasua dugu: Finean, iritzia emateagatik ez zaie axola izan presoa hiltzen uztea... Non ote dago eskubideak, adierazpen askatasuna babesten dituen biolentziarik gabeko sistema demokratiko hori?

Euskal preso politikoen kolektiboak egindako hausnarketak, autodeterminazio eskubidea errespetatzeaz batera, amnistia ematea ikusten du beharrezko. Amnistia ez dute presoen askatze soil bezala planteatzen; errepressoak eragindako ondorio guztien bihurtzea, nolabait buelta ematea bezala ere ikusten dute.

Benetako konponbide demokratikoak, beraz, autodeterminazio eskubidea eta amnistia bermatu beharko lituzke beraz. Euskal preso politikoen kolektiboak gatzakaren erroak aztertz egin duen hausnarketa berria. Arazoaren oinarrian dago espinpiar eta frantziar gobernuek Euskal Herriari bere izate propioa onartzeari egiten dioten ukazioa. Eta honi lotuta dator baita, euskal herriko biztanleei beraien herriaren gainean erabakitzeko duten eskubidearen debekua ere.

Euskal Herritar guztiak eskutuan dago benetako soluzioa. Denok dugu eskubidea konponbidearen bidean parte hartzea, erabakitzeko. Urratsezurrats, gure etorkizunaren gainean erabakitzea, autodeterminatza lortuko dugu! Zeuk ere eman pausoia!

## Bada garaia

Geaxi Ezpeleta

(Elgetako AHTren aurkako taldea)  
Elgeta

Badar azkar batean gugana. Bere bidean bere aho erraldoiaz harrapatzet duen guztia irentsiz. Horrela erabaki dute herri honetako agintarietik. Ene! Baina demokraziak ez al zuen esan nahi herriaren boterea edo tankerako zerbaite? Eta noiz erabaki dugu guk ba tren hau nahi dugunik? Guk ez dugu gogoan behintzat... Beno, baina agintariak teorian gu gara, beraz, eta politikariak gure ordezkariekin beraien ordezkariekin beraiengaran eragin zuzena duten hau bezalako gaien inguruaren iritzirik ez eskatzea? Herritarren ahotsa proiektu honen interes politiko ekonomikoak azpitik ote dago ba? Esan digute trafikoa gutxituko duela, garapenerako beharrezko dela, garraiobide ia perfektua dela... Baina non daude



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefonia:  
943 25 05 01



Faxa:  
943 25 05 13



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goinena.com



# hamaika esperientzia, proiektu bat

- elkarlana
- lankidetza
- herrikoia
- aktiboa
- prestatua
- kalitatezkoa
- integratzailea
- berritzalea
- konpromisoduna
- sustatzailea
- euskalduna

MATRÍKULAZIOA: OTSAILAREN 26TIK MARTXOAREN 9RA

## HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

**Gatzaga/Eskoriatza**  
**Luis Ezeiza Eskola**  
• Tel.: 943 71 49 38  
Ate irekiak: Otsailak 26, 17:00-19:00

**Aretxabaleta**  
**Kurtzebarri Eskola**  
• Tel.: 943 79 00 49  
• bilera: Otsailak 15,  
euskaraz: 18:00 , erdaraz: 19:00

**Arrasate**  
**Arrasate Herri Eskola**  
• Tel.: 943 79 20 69  
• bilera: (Bedoñabe) Otsailak 12, 18:00  
• bilera: (Musakola) Otsailak 14, 18:00

**Aramaio**  
**San Martin Eskola**  
• Tel.: 945 44 50 04  
Ate irekiak: Otsailak 26tik aurrera

**Bergara**  
**San Martin Agirre Eskola**  
• Tel.: 943 76 21 47  
Ate irekiak: Otsailak 24, 16:30-19:30

**Antzuola**  
**Antzuolako Herri Eskola**  
• Tel.: 943 76 62 68  
Ate irekiak: Otsailak 26tik aurrera

**Elgeta**  
**Elgetako Herri Eskola**  
• Tel.: 943 76 82 26  
Ate irekiak: Otsailak 22, 16:00

**Oñati**  
**Errekalde Herri Eskola**  
• Tel.: 943 78 07 64  
Ate irekiak: Otsailak 24, 16:30-19:00

## BIGARREN HEZKUNTZA

**Arrasate**  
**Arrasate Institutua**  
• Tel.: 943 79 44 47  
• bilera: (Aramaio) Martxoak 5, 18:00  
• bilera: (Arrasate) Martxoak 6, 18:00

**Aretxabaleta**  
**Kurtzebarri B.H.I.**  
• Tel.: 943 79 57 40  
Ate irekiak: Otsailak 21, 18:00

**Bergara**  
**Ipintza Institutua**  
• Tel.: 943 76 31 42  
Ate irekiak: Otsailak 28, 18:30

**Oñati**  
**Zuazola Larrañá Oñatiako BHI**  
• Tel.: 943 78 12 68  
Ate irekiak: Otsailak 22, 18:00

**goieskola**  
debagoieneko euskal  
eskola publikoa

# ARATUSTEAK 2007 GOITB-N Nor zara zu?

ARATUSTEAK 2007

Saio berezia

Martitzenean, otsailaren 20an  
21:45ean



*Ikustekoa!*

Babeslea:

Baster-alde  
jatetxea



**iKER**

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48  
**BAINUAK:** ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

**FAGOR**

# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35  
Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**  
Askoz ere zerbitzu gehiago eskaintzen ditu liburutegi berriak > **19**



> **BERGARA**  
Miguel Altuna ikastetxearen gaineko berriak SMS bidez > **25**



> **ESKORIATZA**  
Udalerriko mugarrien gaineko liburuxka kaleratuko dute > **35**



> **ARAMAIO**  
Gizonezkoak behar dira dantza taldearen omenaldirako > **38**

ARETXABAleta > INDUSTRIA

## Aluminios de Precision (Lucio Garay) fabrika itxi egingo dute, Aretxabaletan

### BURGOSEN BERRIA

Lantegi horren ugazabak berria ireki behar du Burgosen

### BIAK EZ

Burgosko lantegiaren irekierak ekarriko du Aretxabaletakoia ixtea

### MARTXOAN

Martxoan batzarra egingo dute batzordeak eta enpresaburuak, gauzak zehazteko

### UBANE MADERA > ARETXABAleta

Kezkatuta zebiltzan Aretxabaletako Aluminios de Precision (lehengo Lucio Garay) lantegik langileak etorkizunarekin. Izan ere, sarra-sarra zurrumurua zebilen Jose Uribesalgok-lantegiko ugazaba, edo, bestela esanda, Joserol SA izeneko talde industriala- Aretxabaletako lantegia itxi eta Burgosen berria zabaltzeko asmoa zuela.

Bada, oraingo eguztenean GOIENKARIARI konfirmatu dio-te hori horrela izango dela.

### BURGOSEN 2009RAKO

ELA sindikatuko metal arloko arduradun Iñaki Arrieta jakinarazi duenez, martitzenean enpresa batzordea egin zuten eta orduan konfirmatu zizkien enpresaburuak zituzten beldurrak: "Hiru gauza konfirmatu zizki-gun: batetik, Burgosen lantegi berria zabalduko duela. Bigarrenik, hura zabalduz gero, biak, Aretxabaletakoia eta Burgoskoia ez zituela mantenu behar. Eta azkenik, Aretxabaletakoia itxi egin behar duela".

Batzar hartan izan ziren enpresa batzordeko kideak (ELA eta LAB sindikatuetako bina ordezkari eta CCOOko bat) eta sindikatu bakotzeko metal arloko arduradunak.



BASABEN Gaur egun, Aretxabaletako Basabe industrialdean dago Aluminios de Precision enpresa, 23. pabiloian.

MIRARI ALTUBE

Batzar hartan landutakoen gaineko zera ere jakinarazi du ELAKo ordezkaria: "Esan zuen Burgosera doala hemen Jaurlarritzak ez diolako ezer ganorazkorik aurkitu. Horrez gainera, esan zuten, baita ere, datorren urteko lehen hiruhilekoan hemengo seko-zio bat nahi dutela hara eraman. Eta 2009rako gura dutela hango lantegia %100ean funtzionatzen izatea. Baina hori egitea oso zaila izango dela ere badakite".

**MARTXOAN BESTE BATZAR BAT**  
Hori guztia zelan egin eta Aretxabaletako langileekin (80 inguru) zer gertatuko den oraindik zehaztu barik dutela adierazi du Iñaki Arrieta: "Martxoan beste batzar bat egingo dugu, gauzak zehazten joateko".

Bestalde, GOIENKARIAtik ahalegindu gara Jose Uribesalgo enpresako ugazabarekin berba egiten, baina hark ez du adierazpenik egin gura izan.

### BURGOSEN 200 LANGILE

Burgosen zabaldu gura duen lantegiaren gainean, berriz, *Diario de Burgos* aldizkariak argitaratu duenez, 200 langilek jardungo dute han eta 25-27 milioi euro inbertituko dituzte. Hain zuzen ere, 42.000 metro koadroko orubean eraiki-ko dute pabiloia berria, Villalonquejar izeneko gunean. Aurreikuspenak betez gero, 2008ko urtarilean hasiko dira eraikitze lanak egeiten eta 2009ko lehen hiruhile-

koan aluminiozko piezak produzitzen hasteko moduan izango dira. Burgosko egunkariaren arabera, enpresari arrasatearrak era-baki du Burgosen lantegia zabaltzea "fondo galduko dirulaguntzak eman behar dizkiotako".

**IA 20 URTE ARETXABALETAN**  
Aluminios de Precision enpresa ia 20 urte daramatza Aretxabaletan. Autoendako piezak eta aeronautikarakoak lantzen dituzte.

**zerbitzuak****GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapata, 17	Azkoaga	Ferreras 1	943 79 15 15
Domeka, 18	Azkoaga	Iturrioz 17	943 79 19 99
Astelehen, 19	Corcuera	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26
Martitzena, 20	Irizar	Erguín 15	943 79 12 39
Eguaztena, 21	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Eguena, 22	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65
Egubakoitz, 23	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09

**BERGARA**

Zapata, 17	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 18	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehen, 19	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Martitzena, 20	Urrutikoetxea	Oxirono 4	943 76 11 74
Eguaztena, 21	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Eguena, 22	Gualar	San Antonio 5	943 76 11 05
Egubakoitz, 23	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63

**ONATI**

Zapata, 17	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Domeka, 18	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehen, 19	Anduaga	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Astelehen, 20	Anduaga	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 21	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 22	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Egubakoitz, 23	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58

**ARETXABAleta**

Zapata, 17	Iturrealde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Domeka, 18	Iturrealde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Astelehen, 19	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 20	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 21	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 22	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitz, 23	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Oasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalaitzaingaak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

**GARRAOAK**

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboa	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67

**Kiroldegia**

Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77

**Arrasateko kiroldegia**

Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05

**Asteleheneko kiroldegia**

Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05

**Antzuola**

Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05

**Leintz Gatzaga**

Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05

**Oñati**

Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05

**Udalak**

Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05

**URBANOAK****ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibar, Ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obregon, Onerreka, Makaztenea, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.	
Gorostizatik Eroskira (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makaztenea, Obenberria, C. Obregon, Galizia, Bengoa eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:05, 09	

**kale inuesta****Mozorrotuko zara? Zelako giroa egoten da Inauterietan?****Mariano Legorburu**  
Langilea  
Eskoriatza**Ainhoa Leturiaga**  
Langilea  
Eskoriatza**Bizenet Kortazar**  
Erretiratua  
Eskoriatza**Jabier Altuna**  
Langilea  
Eskoriatza**Mila Goñi**  
Langilea  
Eskoriatza

Bai, ziur. Urtetik urteria giro hobea egoten dela esango nuke. Irakurri dut Udalak eta komertzioek bono batzuk atera dituztela mozorrotuta doaznen artean zozketatzeko, eta ondo deritzot.

Azken urteotan ez naiz askotan atera, baina lehen giro hobea zegoela uste dut, martitzen gauean ospatzen genuenean. Hala ere ondo dago: zapatuan helduentzako eta martitzenean umeentzako.

Ni, neu, ez naiz mozorrotuko baina giro ona egoten da, inolako gehiegiketria barik. Inauteriak oso gustuko ditut eta ideia ona deritzot komertzioek egingo dutena, bonoak banatu.

Bai horixe. Herritarrek zapatuan ospatzen dituzte eta komertzioetakoon martitzenean. Geure taldeetxoa daukagu eta geure giroa sortzen dugu. Hala, bonoak atera ditugu jaia indarrean.

Bai. Giroa norberak sortzen du, baina nik gustuko ditut Inauteriak eta giro polita egoten da herrian. Udalak eta dendariok elkarrekin ateratako bonoek jaia indarrean.

**txaloak eta txistuak**

OIHANA ELORTZA

**San Lorentzon, autobus berezirik ez**

Irakurle bat kexu da, Oñatiako San Lorentzo auzoan autobus zerbitzu berezirik ez baitago, duela hilabete batzuk Diputazioak banatutako garraio publikoaren ordutegietan hala azaltzen den arren. Markesinan, gainera, ez dago ordutegirik eta jendea zain egoten da.

**asteko datua****115**

Bergarako Miguel Altuna institutuak 115 enpresek hitzarmena sinatu du. Lanbide Heziketako ziklo ezberdinak ikasleek aukera izango dute aipatu enpresetan proiektuak egin edota praktiketan aritu ahal izateko.



KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria****5 galdera...****Iban Peñakoba**

Peñakoba autoeskolako arduraduna

**1.** Aurreko astean, autoek argiak egun osoz piztuta eramateko proposamenaren onartu zuen Senatuak. Zer-nolako eragina izango luke?

Ez da erraza esatea, baina uste dut hoberako izan daitekeela. Iparraldeko herrietan erabilitzen den neurri bat da, argi gutxiago dagoelako han, eta, hasiera baten, onerako izan daiteke, ez gehiago ikusteko bakkari, baizik eta norberari ikusteko balioko diolako. Herrietan agian ez, baina kanpoan, abiadurarekin, neurri ona izan daiteke.

**2.** Frogatuta dago Europa-ko herrialde horietan ondorio onak dakarrela neurriak?

Bai. Finlandian-eta urte ugari daramate, eta ekoizleek autoa martxan jarri bezain pronto argiak automatikoki pizten direla egiten dituzte ibilgailuak. Horren alderik okerrena da, agian, hasieran gain-kostua ekar dezakeela.

**3.** Hemen ere eragin bera izan dezakeelakoan zaude?


Agian ez du horrenbesteko eraginik izango, argi gehiago dagoelako, baina edukiko duela ziur nago. Neurria derrigorrezkoa da aspalditik motorrentzat, eta egunez argia daraman motarra askoz hobeto ikusten da. Autoekin gaua bera gertatuko da.

**4.** Azken horren harira, kaltetuta aterako direla diote motorzaleek...

Ez nago ados. Azken baten, esklusibotasunak ez du motorrentzako bakarrik izan behar. Motorra ikusiko da berdin-berdin. Errepidean doan edozein ibilgailu, argiekin baldin badoa, hobeto ikusiko da.

**5.** Zein motatako errepideetan erabili beharko lirateke argiak?

Oraindik zehaztu barik dagoelakoan nago. Guri, behintzat, ez zaigu horren berririk iritsi. Dena dela, behar den eragina izateko argiak beti erabiltea derrigortzea izango litzateke egokiena; bestela, jendea ez da-eta enteratuko.



ZERBITZUAK > BAZTERKETA JASATEN DUTENEI LAGUNTZEKO PROTOKOLOA

# Kalean bizi direnei laguntzeko protokoloa abiarazi du Udalak

Halako pertsonek sarri Gizarte Zerbitzuetara jotzen ez dutelako egin dute araudia

Pertsona horien guztien egoera aztertu, eta baliabideetara bideratuko ditu Udalak

UBANE MADERA > ARRASATE


Sarri ikusten ditugu eskaleak Arrasateko kaleetan. Batzuk eskean bakarrak ibiltzen dira, baina beste batzuk kalean bizi dira. Orain arte, halako pertsona batek Udalera jotzen bazuen laguntza eske, Udalak egiten zuena zen inguruko hiriburueta aterpetxeren batera bideratu, autobusearako txartela emanda.

Baina halako egoeran dauden pertsona askok ez dute Udalera jotzen. Askok, ez daukatelako Gizarte Zerbitzuen berri edo oso egoera gogorrean daudelako: "Ikusten dugu etxe bako jendea, kalean bizi dena, guztiak ez direla heltzen Gizarte Zerbitzuetara. Bada, haien gure zerbitzuetara heldu ahal izateko eta hemendik haien arazoa aztertu eta haien

beharrei irtenbide bat emateko egin dugu protokoloa. Guri balio digu halako kasuak detektatzeko eta ahal den neurrian erantzuna emateko", adierazi du Gizarte Zerbitzuetako Maite Azpirik.

**NONDIK NORAKOAK**

Hala, oraingo astean onartu duten protokoloari esker, honako bidea segituko dute aurrerantzean Udalean: kalean bizi den pertsona udaltzainek detektatuko dute; haien txosten bat egingo dute pertsona horren egoeraren gainekoa eta Gizarte Zerbitzuetara bidaliko dute; han baloratuko dute pertsona horregana zela gerturatua: "Nahi dugu eurak borondadez etortzea hona (udaltzainek esplikatuko dizkiete gure zerbitzuak); ez badatoz, gu joango gara". Hala,



CARITAS Caritasek ere ematen ditu laguntzak; parrokoaren etxearen dago.

I.B

Udalean pertsona horren egoera aztertu eta haren beharrak ikusi eta gero, "EAEn dauden baliabideetara bideratuko dugu: larrial-dietako etxebizitzetara, gizarte

zentroetara. Pertsonaren egoera larria bada, beriz, Udalak gau baterako ostatua eman ahal izango dio (haurdunei, adinez txikikoen eta gaixoei, besteak beste)".

> LANPOSTUAK  
**Udal lanpostuetarako beste bi azterketaren data zehaztuta**

Zehaztu dute udal liburuzain eta erizain izan gura dutenek martxoaren lean izango dute la aurreneko azterketa. Bie 10:00etarako egin diete hitzordua, Uarkapen.

Bestalde, astelehenean, otsailaren 19an, udaltzain eta arotz izan gura dutenek euskalazko proba egin behar dute. Adi ibili behar da, proba ez da eta Arrasaten izango, Portugaleteko UNEDen baizik; arotz-gaiek, 09:30ean dute hitzordua; udaltzain-gaiek 11:00etan.

> OBRAK  
**Obrengatik-eta protesta egiteko, eserialdia Garibain**

Gaur, egubakoitza, hitzordua dago 19:30ean Garibain eserialdia egiteko. Anonimo batek egin du deia, "obrengatik eta herriko errepide nagusien mozketarengatik protesta egiteko". Hain zuzen ere, Garibai etorbidea lehengo moduan erabili ahal izan beharko litzatekeela pentsatzen dute, "zirkulazio handiegia dago Arrasatek dituen bi errepide nagusietako bat ixteko".

## Hitz egin eta nabigatu 1€\*-ren truke

Proba ezazu 3 hilabetetan,  
hilean bakarrik ordainduta

Telefoniaren hileko kuota + Finkoetako deiaak 24 orduetan + Banda Zabala 3 megako

...eta, gainera,  
proba ezazu  
**TB Digital Osoa**  
hilean 10€  
gehiagoren truke



 ROUTER  
COMUNICACIONES, S.L.

Errebal, 15  
Eibar

① 943 700 369

Maalako Errebala, 8  
Arrasate

① 943 71 27 81



-en Banatzaile Ofiziala

\* Sustapen honek 2007ko martxoaren 31ra arteko kontratazioentzat balio du. Sustapena amaitu ondoren, produktu guztiak kontratatura segituko dute, bezeroak besterik jakinarenaz ez badu. Telefono finkoetara egingo 24 orduetan egindako deia, Ahots Tarifa Finkoaren baldintzen arabera. Ez dira sartzen nazioarteko deia, tarifa gehigarrikoak, sare adimenduna eta mugikorrak. Gehienez, hilean 5.000 minuto. Epea amaitu ondoren, produktuen prezioak hauek izango dira: kuota 15,5 €, Ahots Tarifa Finkoa 33 € eta 3 megako Banda Zabala 39 € eta TB Osoa 25,90 €/deskotzalea sartu gabe. Zeharkako zergak ez daude sartuta. Sustapen honek lehen hilabetetan balio du. Galdu Euskaltelen saltokietan sustapen honen baldintzei buruz.



IBAI ARTE Ezkerretik hasita, Josemi Salaberri, Angel Alonso, Jesus Mari Elkoro eta Jesus Uriarte.

ZERBITZUAK > LUR AZPIKO EDUKIONTZIAK

## Zerkaosteta kalean ere ipiniko dituzte lur azpiko ontziak

Bost edukiontzi ipiniko dituzte, Garibai eta Zerkaosteta kaleak lotzen dituen errepide zatian

ipiniko dituzte eta bana pape-ra eta kartoia, ontziak eta bei-ra batzeko.

### ANTZINAKO HARRESIA

Bestalde, Zerkaostetako lanen harira, astelehenean, Gazteluondo eskola inguruan, Arrasateko antzinako harresiaren leihu edo itsu leihu batekin egin zuten topo, ezustean. Espaloia altxatu dute han, azpiegiturak sartzeko. Eta, hain zuzen ere, espaloipean aurkitu dute itsu leihoa. Edozelan ere, Udaletik adierazi dute obrak bukatu ostean atzera ere estali egingo dute-la itsu leihoa eta harresia lehen-gotan utziko dutela: "Lur azpian dago hori eta oso arraro geratuko litzateke zulo bat bistan uztea; eta noizbait erakutsi nahi badute, hortxe dago", esan du obra arduradun Izaro Agirrek.

U.M.> ARRASATE  
Kontzezino kaletik Zerkaoste-tara doan errepide zatian lur azpiko edukiontziak ipiniko ditu Udalak, Zerkaosteta kalean egiten dabilzten obrak apro-betxatuta. Hain justu ere, Itur-bide egoitzaren ondotik pasa-tzen den errepide zatian ipiniko ditu Biurrarena enpresak.

Herriko beste hiru gunetan egin duten moduan, zabor arrunta batzeko bi edukiontzi

ZERBITZUAK > MERKATARITZA

## Merkataritzaguneak ezingo ditu gainditu 13.000 metro koadroak

Ibai Artek prentsurrekoan salatu zuen Txomintxo promotoreak Udalari aurkeztu dion txostenetan "erabat alderdikoia" dela

UBANE MADERA > ARRASATE  
Zabaletan eraiki gura duten merkataritzagunea dela-eta, Ibai Arte merkatari elkartea etorkizunarekiko dendari txikiek duten kezka erakutsi zuen martitzanean prentsurrekoan.

Horrekin batera, merkataritzagunearen promotore Txomin-txok Udalari Arrasateko gaur egungo merkataritzaren gaine-an aurkeztu dion txostenetan gogor kritikatu zuten: "Erabat alderdikoia, batere serioa eta ordaindu duenaren neurrian egindakoa" dela salatu zuten. Baita ere salatu zuten txosten hori egiteko modua: "Ia 110 telefono dei-eginko dituzte; guretako bakarra

nahikoa izan da -Estatistikako Institutu Nazionalera- jakiteko beharrezkoak direla 23.000 biztanleko herri batean 460 telefono dei muestra bat ontzat har-tzeko eta 200 dei baino gehiago muestra horrek gutxieneko balioa izateko".

EROSKI TALDEA EZ DAGO ATZETIK  
Arrasateko Udalaren dokumentu bat ere helarazi zuten prentsurrekoan. Hark Eroski Taldea zuze-nean identifikatzen du Zabaleta-ko merkataritzagunearen proiektuaren bultzatailea moduan.

Aldiz, atzo, eguna, Ibai Artek berak gezurtatu egin zuen Eroski-kiren implikazioa. Ibai Artek

Jesus Mari Elkorok jakinarazi du Udalaren Eroski proiektu hori garatzea proposatu ziona. Bainan, Eroskik ez zuela onartu, ekonomikoki zein lege aldetik ez dutelako bideragarri ikusten. Uda-laren dokumentuari dagokionez, berriz, akatsa izan dela diote.

HERRI BARRUAN GURA DUTE  
Horrez gainera, Eusko Jaurlari-tzak Arrasateko Udalari bidali-tako jakinarazpen bat ere erabi-li zuten Ibai Artek ordezkariek, erakusteko legearen arabera Arrasate moduko herri baten ezin dela eraiki 13.000 m<sup>2</sup> baino gehiago dituen merkataritzagunerik.

Bestalde, Ibai Artek oso nabarmendu zuten eurak merkataritzagune baten aldekoak direla, "baina herriaren barruan kokatuta", Eibarren moduan. Arrasaten leku egokiak badaudela diote: Gelma, Cerrajera, Legarre...



U.M.

## Badator Katamixarra

Badira informazioa helarazteko hainbat modu bitxi. Horietako bat ikusi dugu oraingo astean Arrasaten. Izen ere, kaleetan azaldu dira kartel mordoska bat haserre aurpegia eta harridura ikurra duen katamixar baten marrazkiarekin. Oraindik ez dakigu zein mezu helarazi gura duten, baina datozen egunotan "gehiago" jakingo dugula iragarri dute.

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMARIUAK  
**AGR**  
Garcia Rípa

ZAHARBERRITZEAK  
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:  
Kale txikil 3 beheha (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**Metal aroztegia eta PVC**  
Leihoak eta itxierak

**Egur aroztegia**  
Leihoak  
Ateak  
Armairu-enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

**Osagariak**  
Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahaiak eta aulkiaiak

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

**arbolapeta**  
**beinko** arrasate

**OSORIK PUB**  
Ignazio Zuloaga 4  
ARRASATE



TAMAINA HANDIA Liburutegiak Monterrongoak baino askoz zerbitzu gehiago eskainiko ditu; argazkian, Mertxe Perez de Ciriza eta Olatz Bartolome.

IKER BARANDIARAN

**ZERBITZUAK** > KULTURATEKO LIBURUTEGI BERRIA

# Askoz zerbitzu gehiago eskainiko ditu Udal liburutegi berriak

Eraikin berrian egin duten banaketan adin eta zerbitzu guztietarako leku nahikoa dago

Udal Zerbitzuko arduradunen asmoa da liburutegian are eta fondo handiagoa jartzea

IKER BARANDIARAN &gt; ARRASATE

Atzo, eguna, zabaldu zuten Kulturate kultura etxearen kokatutako liburutegi berria. Udal Liburutegiko arduradun eta langileek pozarren hartu dute albistea. Aspalditik kexu dira Monterronen ez dutelako zerbitzu egokia emateko leku nahikorik, ezta material guztia ganoraz gorde eta erakusteko ere.

Bada, liburutegi berria aurreko baino askoz handiagoa da, eta askoz aukera gehiago ematen dizkie erabiltzaileei.

**FONDOA HANDITZEKO BEHARRA**

Hortaz, orain Udal Liburutegian arazo txiki bat dute: fondoa handitzeko premian daude, hain zuzen ere. Liburutegiko zuzendarri Mertxe Perez de Cirizaren esa-

netan, kontua aspaldikoa da: "Nazioartean gomendatutakoaren arabera, biztanle bakoitzeko bizpahiru liburu izan behar dira liburutegietan, eta gu hortik urrun gaude".

**ORDENAGAILU GEHIAGO**

Liburutegi berrian ordenagailu asko jarri dituzte. Gune bakoitzean bat baino gehiago dago, eta ohiko ordenagailuen gelatik kanpo ere badira Interneten ibiltzeko beste hainbat ordenagailu: "Kontsultak egiteko eta nabigatzeko erraztasun handiagoak jartzea erabaki dugu".

Ordenagailuekin batera, inprimagailuak ere jarri dituzte, jakina. Eta, horrez gain, fotokopiak egiteko bi makina: bata goian eta bestea behean.

Bestalde, hemerotekak, esaterako, gune propioa dauka, eta han leku handia dute.

**BIDEOTEKA EGUNERO ZABALIK**

Berrikuntzetako bat da hemen-dik aurrera bideoteka egunero goiz eta arratsaldez zabalik egongo dela. Liburutegia zabalik dagoen orduetan edonork hartz ahal izango ditzake DVDak, VHSak edo dena delakoak. Eta materia-la bueltatzeko ere bada berri-

kuntzarik: hemendik aurrera, liburutegia itxita dagoen egunetan eta orduetan, sarrera nagusiaren alboan dagoen buzoia era-bili ahal izango da.

Bestalde, liburutegiaren era-biltzaile garrantzitsu batzuk ikas-leak dira. Horretaz jabetuta, eurendako espresuki ikasketa gune bat sortu dute. Helduen liburutegitik aparte dago eta 40 lagun baino gehiagorendako lekua dago bertan.

**LIBURUTEGIA GUNEZ GUNE****> HELDUEN LIBURUTEGIA**

Ordenagailu eta mahai gehiago jarri dituzte kontsultak egiteko.

**> FONOTEKA**

CDak, musikaren gaineko DVDak eta liburu eta aldizkariak dituzte.

**> BIDEOTEKA**

Egunero dago zabalik, eta, filmeez gain, liburuak eta aldizkariak daude.

**> HEMEROTEKA**

Zerbitzu handiagoa emango dute.

**> TOKIKO BILDUMA**

Arrasateren gaineko argitalpen guztiak batuta dituzte.

**> HAUR ETA GAZTEENA**

Banatuta daude 6 urte artekoen haurtxoteka eta gazteen gunea. Materiala eta espazioa kontuan hartuta, berritzalea da oso.

**> IKASKETA GELA**

Helduen liburutegiaren alboan baina bereiztuta, 40 lagunetik gora ikasteko gunea.

**MUSIKA**

## Melodiaz jositako punka, The Boys-ekin

Ingalaterrako klasikoak 3.60 aretoan arituko dira gaur, NCCrekin

I.B.&gt; ARRASATE

Melodia handiko punk-rockaren zaleek hitzordu garrantzitsua dute gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan. 23:00etan hasiko da kontzertua, eta Ingalaterrako The Boys taldearen aurretik, Donostiarriko Nuevo Catecismo Catolico izango da agertoki gainean.

Ingalaterrako 77ko punk eta oi! talde gehienek ez dute gaur egun kontzertu borobilik ematen. The Boys, berriz, salbuespenetako bat dela esaten dute hainbat adituk.

**URTEEK ON EGIN DIETE**

The Boys boskotea 1976an sortu zuten, eta diskotexekin zorte txarra izan zuten arren, punkaren indarra eta power-poparen melodiak batzen dituzten pieza ezagun asko idatzi dituzte: *First time, I don't care, Soda pressing, Brickfield nights*, eta beste hainbat.

&gt; IKASTAROA

## Tailaren hasierako maila ikasteko eskolak

ARTEk (Arrasateko Tailaginen Elkarteak) tailaren hasierako maila ikasteko eskolak emango ditu datorren astetik aurrera.

Gaurtik, egubakoitza, aurrera, interesa dutenek ARTEk Arrasateko Erguin kalean duen egoitzara jo dezakete. Bestela, honako telefonoetara dei dezakete, gauzez, izena emateko: 645 705913 edo 943 794079 (Felix), edo 943 797757 (Jose Maria).

**OGARAN jatetxea**  
Garagartz auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**Txitxinpe**  
Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak  
Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Astelehenetik ostiralera eguneko menua

**Belun**  
Garagartz auzoa Tel.: 943 79 61 14

**((112)) SOS DEIAK**

AMETS

BENGOA

BOLIÑETE

BRANKA

HAIZEA

IAMAI

ITZALA

MONTE

OSTANTZ

PLUS ULTRA

RUMBA

# ARRASATEN GIRORIK ONENA!



ARRASATEKO ARATUSTEAK 2007

> ESKUBALOIA  
**Bi puntu gutxiago dituen Seyce Eskolapios gurean**

Bihar, zapatua (16:00, Iturripe) Ford Mugarrak bi puntu gutxiago baino ez dituen kontrarioa izango du aurrean. Bilbotarrek 15 puntu batu dituzte orain arte, eta azken jardunaldietan garaipenari heldu ezinka dabilen Ford Mugarrak 17 puntu ditu. Izan ere, azken hiru norgehiagoketan Balerdiren eta Fertxuren mutilek gertu izan dute garaipena, baina partidua errematatzea falta izan zaie.

> SASKIBALOIA  
**Mugarri Alkesak Zornotzaren bisita izango du bihar**

Igoera faseko azken sailkatuaren kontra jokatuko du bihar arratsaldean (18:00, Iturripe) Mugarri Alkesak.

Etxeko taldeak Padura eta Consmetal ditu aurretik. Consmetalek oraindik ez du norgehiagokarik galdu -bederatzti partidu-, baina Padura eskura dagoen kontrarioa da. Horretarako, baina, Zornotzak -bi garaipen- eta hala-ko taldeek ezin dute aparteko buruko minik eman, nahiz eta igoera fasean ez dagoen bromatarako tarterik.

**ATLETISMOA > ESPAINIAKO TXAPELKETA**

# Sevillan lehiatuko da Perez, azken ordura arte itxaroten egon eta gero

Aurten 4,90 metroko marka egin du, eta Arrasatekoak ez ditu txapelketarako behar diren bost metroak gainditu; beste askok ere ez, eta beste aukera bat eman diote

X.U. > ARRASATE

Arrasateko atleta Jonathan Perez justu-justu sailkatu da Espainiako atletismo txapelketarako. Sevillan egingo dute txapelketa hori, eta Federazioak bost metroko marka ezarri zuen sailkatzeko. Orain arte, pista estalian egindako saltoek balio izan dute pista irekirako, baina aurten ez. Hori horrela, atleta asko geratu dira sailkapenetik kanko, eta beste aukera bat eman behar izan diete. Hala,



5,10 METRO Hori da Jonathan Perezren orain arteko marka onena. GOIENKARIA

aurten 4,90 metroko saltoa hirutan eginda, Arrasateko Sevillan izango da aste bukaeran.

**AKATS TEKNIKOAK ZUZENDU**

Hori esan digu Perezek, azkenaldian teknika aldetik hartu dituen hainbat ohitura txar

zuzendu egin behar dituela: "Grippeak jota, azkenaldian ez naiz gura beste ibili, eta salto egitearakoan ohitura txar batzuk haritu ditut". Bestela, Arrasatekoak sasoi onean dagoela aitortu digu; Sevillan lan ona egiteko itxaropenarekin.

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK (KOPA)**

Saukelu Abian - Iturrioztaberna .....	9-0
Betrayer - AT Celaya .....	2-3
THC - Iluntz .....	2-6
Dribling-Lasagabaster .....	2-2*

\*Penaltietan, Omu Driblinek egin du aurrera.

**SAILKAPENA**

	P	J
1. Saukelu Abian .....	28	10
2. Dribling .....	24	10
3. AT Celaya .....	23	10
4. Betrayer .....	22	10
5. HLB 108 .....	21	10
6. Iluntz .....	20	10
7. Cipris .....	16	10
8. Iriztu Taberna .....	15	10
9. Mc Awen Dauen .....	14	10
10. Abokajarro .....	14	10
11. Lasagabaster .....	13	10
12. Dublin Irish Pub .....	12	10
13. Manhattan Pippol .....	11	10
14. Iturrioztaberna .....	7	10
15. Billy & The Cowboys .....	7	10
16. Equus .....	6	10
17. THC .....	4	10
18. Cicatrus .....	3	10

## Jardunaldia atzeratuko dute Aratusteak ospatzeko

Hainbat taldeek ekimen berezia egingo dute Aratusteak zapatauan ospatzeko. Hori horrela, txapelketako antolatzaillek erabaki dute oraingo asteburuan jardunaldirik ez jokatzea. Horrela, arrasatearrek behar den moduan ospatuko dituzte Aratusteak.

**ALDEDI**

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

arrasatearrak kanpoan

Naroa Etxebarria > Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten dabil  
Birminghamen bost hilabete eman ditu

# "Hasiera baten, Birmingameko kultura aniztasunak harritu ninduen gehien"

MIRIAN BITERI > ARRASATE  
Ingalaterrako bizimodua gogoan  
du oraindik Naroa Etxebarria arra-  
satearrak. Birminghametik iritsi  
berria da; Ikus-entzunezko Komu-  
nikazio ikasketak direla-eta, bost  
hilabete eman ditu han. Hasiera  
batetan, ingelesarekin galdu samar  
ibili zela aitortzen du, eta hiriko aniz-  
tasunekin harrituta geratu zela ere  
azpi marratzen du. Denbora igaro  
ahala, ordea, oztoko guztiak gain-  
ditu eta hona eta hara ibili da uhar-  
te osoan zehar; izan ere, penaz utzi  
duela adierazten du.

Iraila ezkerro Inglaterran bizi  
izan da Naroa Etxebarria; Bir-  
mingham hirian, hain zuzen ere.  
Esperientzia urtarrilean amaitu  
zitzzion 21 urte dituen arrasate-  
arrari, eta orain Arrasate Irra-  
tian dabil lanean jo eta su.

Ikasketengatik kanpora ate-  
ratzeko aukera irten zitzaiola  
gogoratzen du. Ikus-entzunezko  
Komunikazioko hirugarren ikas-  
turtea egiten ari da Eskoriatza-  
ko unibertsitatean; izan ere, uni-  
versitate horrek University of  
Central England-ekin hitzarme-  
na dauka sinatuta, hemengo ikas-  
leek hantxe ikas dezaten ahalbi-  
detzeko asmoz.

Hala, bada, irailaren hasie-  
ran, lau lagunez osaturiko taldea  
abiatu zen Birmingham aldera;  
eta haien artean zegoen Etxe-  
barria. Eskolak hasi barik zeuden  
oraindik, eta, hori dela eta, "han-  
go girora ohitu beharra zegoen",  
azaltzen du.

## KULTURA ANIZTASUNA

Oso gustura ibili dela onartzen  
du, hasierako egunetan "galdu  
samar" egon bazen ere. Naroaren  
irriz, "kultura oso diferentea da;  
kultura aniztasuna izugarria da".  
Horixe da, zehazki, gehien harri-  
tu zuena. Denbora aurrera joan  
ahala, ordea, jende mordoa eza-  
gutzen joan zen.

Erresidentzia antzeko batean  
bizi izan da hilabete hauetan guz-  
tietan arrasatearra. Auzo antze-



Naroa Etxebarria Arrasaten bueltan da.

**"Hango irakasleak guztiz  
hotzak dira; pentsaezina  
da eurentzako, ikasle  
guztiekin berba egitea  
edo baten lagun izatea"**

ko baten, hainbat eraikinetan  
sei lagunentzako etxebizitzak  
zeuden. Hain zuzen ere, Lituania-  
ko neska bi, Alemaniako bat,  
Poloniako bat eta Ugandako bat  
izan ditu bizikide.

Eskoletan, berriz, Eskoriatza-  
ko lagunen ondoan izan da.  
Bakoitzak zer klase mota nahi  
zuen aukeratu behar zuen, eta,  
batean izan ezik -hark beste bat  
hautatu zuen-, gainontzeko guz-

**"Parranda oso diferentea  
da: hemen tabernetara  
joateko ohitura dugu,  
eta han, berriz, poteoa  
ez da existitzen"**

tietan euskaldun guztiak batera  
egon direla aipatzen du.

Hasieran, ingelesarekin ohi-  
ko zaitasunak izan zituela gogo-  
ratzen du. Era berean, eskola  
ordu gutxi zituela adierazten du.  
Bederatzia edo hamar bat astean,  
besterik ez. Horrek aisialdirako  
denbora nahikotxo uzten zion.

Arlo akademikoari dagokio-  
ne, berriz, ezberdintasun han-  
dia igarri du batetik bestera; izan

ere, hango irakasleak "gutziz  
hotzak" direla uste du.

"Pentsaezina da eurentzako,  
ikasle guztiekin berba egitea  
edota irakasle batek ikasleen  
lagun izatea". Irakasteko modua  
ere erabat ezberdina dela dio:  
"Han teknologia berriei garran-  
tzi handiagoa ematen diete", gai-  
neratzen du.

Bestalde, Bolognako proze-  
suaren zenbait ezaugarri dagoe-  
neko praktikan jartzen ari diren  
itzura hartu dio arrasatearrak.

Eskolarik ez zuenean, Bir-  
mingameko erdigunera joaten  
zen; eta, hiri ikaragarri handia  
izanik, kultura eskaintza asko-  
tarikoa zela azpimarratzen du.

## PARRANDA

Eskoriatzako eskolako kideekin  
eta Madrilgo lagun batekin ibili  
da han inguruan, denak batera.  
Afaldu ondoren parrandarako  
astia geratzen zitzaiola gogora-  
tzen du. Hala ere, Euskal Herri-  
koarekin zerikusirik ez duela  
dio: "Oso diferentea da. Hemen  
tabernetara joateko ohitura  
dugu. Han poteorik ez dago". Gai-  
nera, Birminghamen gauza  
gehienak askoz garestiagoak  
direla ere aintzat hartu behar da,  
eta, beraz, gaua etxe edo taberna  
bakarrean egiten zuela dio.

Aste bukaeretan Britainia  
Handia ezagutzeko aprobetxa-  
tzen zuen, lagunekin batera. Lon-  
dresen bizpahiru alditan egona  
da arrasatearra, baita Liverpool-  
en eta William Shakespeare jaio  
zen herrian ere, Stratford-Upon-  
Avonen, hain zuzen ere. Eskozia-  
ra hurbiltzko astia ere izan du;  
Edinburgora, zehazki.

Sinestezina bada ere, egural-  
diarekin ere zorte ona izan due-  
la azpimarratzen du Etxebarriak;  
izan ere, Inglaterran egon den  
bitartean euri gutxi egin duela  
esan digu, eta, beraz, bisitak  
askoz atseginagoak izan direla.

Birmingham atzean geru-  
da, eta orain, ohiko bizimodura  
moldatu beharko du.

bere ustez



Jokin Etxebarria

Pisuak gora,  
pisuak  
behera

**E**gia esan, pisuek behera  
gutxitan egiten dute. Urte guztia ematen dugu  
gimnasioan, Urkulura korri-  
ka egitera joaten eta gure  
errepeide arriskutsu eta ziki-  
netatik bizikletan ibiltzen.  
Baina, abuztuko oporrak dire-  
la, Gabonetan bapo jartzen ga-  
rela edota Aste Santuen buel-  
tan San Blas opilari eta amak  
etxeen egindako torradei  
haginkada bat eman gabe ezin  
gaitezkeela geratu, pisuak,  
urtero, gora egiten du.

Duela gutxi lagun bat  
entzun nion Azkoitian pisuak  
%0,2 jaitsi zirela. Etxebizi-

**"Gazteriak bailaran  
pisua erosи nahi  
badu, euro-milioien  
mirarian sinistu  
beharko du"**

zen prezioez ari naiz noski.  
Zaila egin zitzaidan sinistea,  
klase honetako pisuek ere  
normalean gora egiten dute-  
lako, eta ez alderantzik.

Gure bailaran behintzat  
horrela da, eta agian horre-  
gatik askok kostara emigra-  
tza erabaki dute. Han ere  
Madrazo legea bera da, eta  
prezioak zeruetatik gora igo-  
ta daude, baina han, gutxie-  
nez, diru kopuru antzekoan  
hondartzan ondoan dute. Hori  
dela eta, Arrasatek beste urte-  
betez pisua galdu du, baina  
biztanle kopuruan.

Kontuak kontu, gaztediak  
ibarrean pisua erosи nahi ba-  
dugu, euro-milioien mirarian  
sinistu beharko dugu. Nik, ba-  
daezpada, Santa Barbarako  
ahatee dagoeneko eskatu diet  
lekutxo bat egiteko zubi  
azpian.

**PUB  
MAIZEA**

arrasate

**UGARTE**  
AROTZTEGIA-ALTZARIAK  
K21

Arotz lanak orokorrean  
Horma armairuak  
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA  
Ikerlekua zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91 / Fax: 943 76 08 04

**BASATI  
TABERNA**

943 711768

## &gt; INAUGURAZIOA

**Umore-Ona elkartea inauguratuko dute gaur, egubakoitza**

Gaur, egubakoitza, iluntzean inauguratuko dute Umore-Ona elkarte, Bergarako pia-nodun elkartea bakarra. 20:00etan da inaugurazioa. Apaizak bedeinkatu egingo du berriztatutako lokala eta segidan Umore-Onako zortzi-koak hiru kantu abestuko ditu Jesus Berroyaren zuzendari-tzapean. Iñigo Alberdik pia-noa joko du. Bukaeran, luntax egongo da bazkide guztien-dako. Egun 103 bazkide ditu, baina badago tokia gehiago-rendako. Datorren urtean 60 urte beteko ditu elkarreka.

## &gt; LANPOSTUA

**Otsailaren 26a arte luzatu dute gizarte laguntzailerako epea**

Aldi baterako gizarte lagun-tzailea kontratatzeko deialdia otsailaren 26a arte luzatu du Bergarako Udalak. Jarritako baldintza batzuk zalan-tzak sorrarazi dituztelako era-baki du Udalak epea luzatzea. Eta zalantzak ere argitu ditu: langabeziaren egotea eta Bergarako Udalarekin aldi baterako harremana izateko bal-dintza, kontrataua sinatzen den unean bete behar duela puntuazio altuena lortu due-lako epaimahaiak proposa-tako hautagaiak.

## &gt; GARRAOA

**Ordutegien panelak jarriko dituzte autobus geltokian**

Autobus zerbitzuari buruzko informazioa eta ordutegia duten panel berriak jarriko dituzte autobus geltokian. Informazio hori falta dela kexatu dira hainbat herritar, eta arazoak konpontzeko har-tu du Udalak erabakia. 6.000 euroko aurrekontua du panel berriak jartzeak, baina Uda-lak 1.000 euro gehiago gorde ditu horretarako, panelen batek obra zibila egitea eska-tuko balu ere.

## &gt; ZERBITZUAK &gt; ZINEMA ETA ANTZERKI ARETOA

# Zabalotegiko aretoa askotariko erabilera izateko egokituko dute

Ia 12.000 eurotan adjudikatu diote proiektua Zumarragako enpresa bati

Formatu txikiko zinema emanaldiak eta antzezlanak taularatuko dituzte

**OIHANA ELORTZA > BERGARA**  
Zabalotegiko aretoa zinema eta antzkerki areto bihurtzeko proiektua egitea onartu zuen udalbatzak asteluheneko ezohiko osoko bil-kuran. EAJ, EA eta Aralarren botoekin onartu zuten, PSE abstenuit ginen eta EB eta PP ez ziren joan.

Aretoaren egokitze proiektua Zumarragako E. Igartua Estudios y Proyectos SL enpresari adjudikatu diote 11.985 eurotan. Udalak jakinarazi dio erabakia enpresari eta, hain zuzen, hilabete eman dio proiektua udale-xean aurkezteko.



ZABALOTEGI Erabilera askotariko aretoa izango da Zabalotegiko berriztatu ostean.

GOIENKARIA

**ARAUDI BERRIRA EGOKITUTA**

Proiektua egin behar duen enpre-sako Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak azaldu duenez, aretoa araudi berrira egokitzeak bal-dintzatuko du proiektua: "Komu-nak egin behar dira eta oztopo-

rik gabeko aretoa izango da gero. Gora igotzeko eskailerak zabala-goak izango dira eta goian langi-leendako biltokia eta filmak botatzeko aparailuak egongo dira. Behean, zinema eta antzkerria ikusteko agertoki txukun bat eta

ikusleendako eserlekuak", azal-du du Estibaliz Igartuak. Iku-sle kopurua zehaztu ez duten arren, alkateak esan du 150 bat lagunen-dako tokia egongo dela eta lanak urtea bukatu aurretik amaitu nahi dituztela.

## &gt; ZIBURUAK &gt; JARRITAKO ZAHARRAK EZ DITUZE KENDUKO

# Labegaraietan ere ziburu berriak

**O.E. > BERGARA**

Espoloiko ziburu zaharrak Labegaraietan jarri dituzte, eta auzo-tarrak kexu dira: "Auzoan ez dute ziburu berririk jarri, baina batez ere segurtasunak kezkatzen gaitu, ziburu zaharren egoerak eta azpian falta den segurtasun gomak. Herriko kirodegia hemen egonda, ume asko ibiltzen dira", dio Maite Arregi auzota-

rrak. Juanjo Arrieta udal ordez-kariak azaldu duenez, "berriak ere jarriko ditugu han. Adituek ziurtatu dute zaharrek ez dutela arriskurik, ondo daudela. Espoloitik kendu genituen zuhaitz artean ezin direlako egon, eta ez egoera txarrean daudelako. Jarri eta gero pintatuko ditugu eta lurrean zulodun goma berezi bat jarriko dugu segurtasunerako".



ZIBURUAK Espoloiko ziburu zaharrak jarri dituzte Labegaraietan.

O.E.



## POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

**Sugoi**  
ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 beheha  
943 76 59 54 BERGARA

## Aldoka Maldoka

TABERNA  
  
Kruz Gallastegi  
BERGARA

## K O N D E PANADEROKUA



Burdinatxe 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

## LAPURRETAK

# Lapurrik sartu dira herriko lau enpresatan

Ateak apurtu eta pabiloiak kaltetu dituzte, baina diru gutxi eraman dute

O.E. > BERGARA

Lapurrik sartu dira Azkarantzko eta Labegaraietako lau enpresatan: Naparra Burdinak, Errotagain Galdragintza eta Tritor eta Torber lanetietan. Zapatutik domekara bitarteko gauean sartu ziren lapurrik. Naparra Burdinak enpresan, adibidez, aurreko astean ere sartu ziren lapurrik eta kobrea lapurtu zuten orduan. Oraingoan ez dute materialik lapurtu, baina diru pixka bat eraman dute eta atea apurtu dituzte. Tritor enpresatik 20 bat euro hartu dituzte eta Torberren bulegoa hankaz gora utzi dute. Ateak apurtu dituzte bietan. Errotagainen, lau pabiloitan egin dituzte kalteak, atea apurtzeaz gainera. Bada, denuntzia jarri dute lau enpresek eta Ertzaintza egon da, han ikerketa hasteko datuak batzen.

## > AZOKA Zuhaitz azoka egingo dute zapatuan herriko plazan

Zuhaitz azoka egingo dute bihar, zapatua, San Martin plazan. Batetik, baso lanerako tresneriarekin erakusketa eta salmenta egongo da, eta, bestetik, zuhaitzen ezaugarrien inguruko erakusketa.

Guztira 16 bat postu egingo dira eta horietatik bakarra izango da Bergarako: nekazaritzarako tresnak salten dituen Altuna etxea, hain zuzen ere. Gainerako postuak kanpokoak izango dira. Azoka herriko plazan egingo dute, 09:30ean hasita.



POLTSIKOKOA Pello Arrondo irakaslekaz azaldu du poltsikoko gezidun botoiak erabilita lor daitekeela ikastetxeko informazio osoa.

AMAGOIA LASAGABASTER

5533 zenbakira  
idatzi eta IMALTUNA  
jarrita edo  
ikastetxeko  
webgunera sartuta  
har daitezke hango  
informazioa eta  
mapak

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Poltsikokoarekin SMS bat bida li eta Miguel Altuna Institutuko informazioa jasotzeko bidea zabaldu du ikastetxeak berak. Lau helburu lortu nahi ditu sistema horrekin: ikasleei ikastetxe ko informazioa era errazeen ematea, ikastetxearen publizitatea eta eskaintza zabaltzea, teknologia berriak erabiltzea informazioa lortzeko eta hori guztia garapen iraunkorraren ikuspegitik

TEKNOLOGIA > INFORMAZIOA POLTSIKOKOAN

# Poltsikokoan jaso daiteke Miguel Altunako informazioa eta eskaintza

egitea. Miguel Altunako Pello Arrondo irakaslea izan da sisteman sortzailea eta hark azaldu du zer egin behar den: "Nahikoan da SMS bat bidaltzea 5533 zenbakira IMALTUNA jarrita. Ikastetxean, doan bidal dezakegu mezua bluetooth zerbitzua erabilita". Aurkezpenean, Lanbide Heziketako Josu Aboitiz eta ikastetxeko zuzendari Iñaki Larrañaga ere egin ziren.

**IKASTETXEKO INFORMAZIO OSOA**  
SMS hori bidalita edo [www.imaltuna.com/wap](http://www.imaltuna.com/wap) helbidean sartuta jaso daiteke informazioa poltsikokoan: heziketa zikloak, barne antolaketa, kokapena, eraikinaren mapa, ordutegia, ikastaroak... Azken finean, webgunean dagoen informazio guztia jaso daiteke poltsikokoan. "Intereten, ikastetxeko helbidean sartzen zaren bakoitzean ordaindu behar

duzu. Sistema horrekin, ordea, behin bakarrik ordaindu behar duzu", azaldu du Mikel Meokik, proiektua poltsikokoetan banatzen lagundu duen Bluexare enpresako ordezkariak. Mezuaren kostua 0,60 euro da (gehi BEZA). 85 kilobyte hartzen du mezu estandarrak eta 62 bertsio laburrik. Baldintza bakarrak dira poltsikokoak Java lengoaia irakurtzea eta wap zerbitzua izatea.

**((112))**  
**SOS DEIAK**

Diodo bidezko laser depilazioa:  
eraginkorra eta azkarra

**GORPUTZ GUZTIRAKO DEPILAZIOA:**

- Hiru hilabetean behin
- Tratamendua bukatzeko 4 edo 6 saio
- Osasunean profesional direnek egina



Presta zaitez  
udarako, orain!

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

**ETXEBERRIA**

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**BERGARA**  
**Margoak**



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. [bergara.margoak@terra.es](mailto:bergara.margoak@terra.es)

MUSIKA &gt; UDAL MUSIKA BANDA

# Bandaren 175. urteurrena astelehenean

Bandak kalejira egingo du San Martin plazatik  
irtenda; diskoa maiatzean grabatuko dute

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

Astelehenean, otsailaren 19an, 175 urte beteko dira Bergarako Udal Musika Banda sortu zenetik. Hori ospatzeko, Bandako kideek kalejira egingo dute astelehenean bertan, 20:00etan San Martin plazatik irtenda. Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendaria aurreratu digunez, *Versalles martxa* joko dute herriko kaleetan. Aipatutako pieza askotan jotzen zuen garai baten Bandak; Ignacio Gonzalez Escala (Gonzalez

Chirlaqueren aitaita) zuzendari zeneko garaian, hain zuzen.

Pazkoen aurretik Bandak egingo duen azken agerraldia izango da. Bien bitartean, maiatzeko lehen bi aste bukaeretan urteurreneneko diskoa grabatuko dute. Grabazioa udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo dute, Elkar argitaletxearekin. Miguel Gonzalez Bastidari eskainitako diskoa izango da: haren zazpi abesti eta Gonzalez Chirlaqueren beste bat jasoko ditu diskoak.



BANDA 175. urteurreneko diskoa udaletxeko osoko blikuren aretoan grabatuko dute, maiatzean.

GOIENKARIA

**KONTZERTUA GAUR FRONTOIAN**

Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Aratusteetako emanaldia egingo dute gaur gauean Udal Pilotalekuaren, 22:30ean. *Cielo andaluz, Marcha eslava* eta *Bal-*

*kan dreams* joko dituzte Bandako kideek eta Orkestak beste bi pieza interpretatuko ditu: *Spartacus* eta *Marcha hungara, nº5*. Azkenik, bi taldeek *Les gitans* joko dute elkarrekin, Gonzalez

Chirlaqueren zuzendaritzapean. Gaurko kontzerturako sarre-rak 5 eurotan salgai daude ohi-ko tokietan. Fron-toiko leihatilan ere salduko dituzte emanaldia-ren aurretik.



E.M.

## Amodiozko gutunen lehiaketako irabazoleak

Amodiozko gutunen lehiaketako sari banaketa ekitaldia egin zuten eguztenean, kultura etxearen. Goiko argazkian, aurteno sardunak: Iñaki Serrano eibartarra (bigarren saria), Goizalde Hernando arrasatearra (SMS bidezko mezurik onena), Amaia Urtzelai (bere ahizpa Nerea izan da Bergarako onena), Ainhize Errasti aretxabaletarra (irakurle gazteek emandako saria jaso zuen) eta Oihan Zubizarreta arrasatearra, lehiaketa-ren 15. ekitaldia irabazi duena. [www.goiena.net/blogak/jardun](http://www.goiena.net/blogak/jardun)

**JAIAK > ARATUSTEAK**

## Gaztetxoendako ekitaldiak nagusi aste bukaeran

Aratuste-martitze-nean karaoke festa eta su-ikuskizuna izango dira

E.M. > BERGARA  
Neska-mutikoei zuzendutako bi ikuskizun izango dira Udal Pilotalekuaren: domeka, *Xurdin kobazuloan galdurik* antzer-

ki musikala izango da, 17:30ean. Bestalde, Pirritx eta Porrotzek zapatuan egin beharreko bi emanaldiatarako sarrerak agortu egin dira; leihatilan ez da sarrerarik salduko.

Zapatu arratsaldean, erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira izango da 18:00etan, Golkaren kalejira eta Galtzagorria txaranga jarraian eta gauean, DJ Axularrek eta haren taldea San Martin plazan, 23:00etan.

**Aratusteetako egitaraua**

Zapatua, 16:30/18:30	Pirritx eta Porrotx	Udal Pilotaleku
Zapatua, 18:00	Kale animazioa	Kalejira
Zapatua, 23:00	DJ Axular eta taldea	San Martin plaza
Domeka, 17:30	Xurdin kobazuloan galdurik	Udal Pilotaleku
Martitzena, 16:15	Karaoke festa	San Martin plaza
Martitzena, 19:30	0,7 Cabriolas y Diablitos	Kalejira

**SANTOS**  
  
Etxetresna elektrikoak  
eta argiztapena  
Masterreka 2. BERGARA  
Tel.: 943 76 26 10

**BERGARA  
MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA**  
Sukalde eta bainu enzimerak  
Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**disdira**  
ile apaindegia  
edertze gela  
Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

**TELEIXA  
BILTEGIAK**  
Eraikuntza  
materialak  
Telleria (Labegarieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

**Dixula**  
**BOKATAK  
DAUZKAGU**  
Barrenkalea 32  
BERGARA  
Tel.: 943 76 44 95

‘07

merkemerkaua

Arrasateko merkealdien azoka

★ Ordainketak: eskudirutan

Otsailak 24-25 11:00 - 20:00 Uarkape pilotalekua



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

■ Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saria



**FUTBOLA**

## BTLSko neskek Zarautz dute aurkari

M.B. > BERGARA

Partidu ikusgarria eta interesarri jokatuko dute asteburu honetan BTLSko neskek, igoera fasearen sailkapenaren barruan.

Bergararrak Zarauzko taldearen aurka lehiatuko dira bihar, zapatua, 15:15etatik aurrera, Ipintzan.

**LEHENENGKO POSTUAN**

Ezin hobeto ekin diote igorera faseari Bergarako taldekoek. Lehen postuari eustea lortzen ari dira momentuz. Zarauzkoak ere ondo moldatzten dira, eta bigarren daude sailkapenean.

Hain zuzen ere, emozioz bateriko partidua izan daitekeela ematen du.

**GIMNASIA ERRITMIKOA**

## Ezin hobeto moldatu zen Ariznoa Arrasaten

M.B. > BERGARA

Joan den zapatuan, Gipuzkoako B taldeko ikastetxeen arteko gimnasia erritmikoaren lehenengo fasa jokatu zuten Arrasateko Uarkapen. Ariznoako neskatilek lan bikaina egin zuten.

Kimuen taldeak hirugaren postua lortu zuen, pilotarekin aritutako proban.

**BIKAIN**

Haur mailan, uztaiarekin, lehenengo eta bigarren postuak eskuratu zituzten. Amaia Irastortza, Eukene Bastarrika, Ane Alberdi, Jone Larrañaga eta Onintza Legorbururen taldea onena izan zen. Banaka, Jennifer Pineda gailendu zen sokarekin.



EUSKADIKO TXAPELKETA Abenduan jokatu zen Bergaran.

GOIENKARIA

**IGERIKETA > LEHIAKETAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN EZIN IZANGO DA IGERILEKUA ERABILI**

# Haurren eta gazteen Gipuzkoako txapelketa jokatuko da Agorrosinen

Bergarako hamabi neska-mutil lehiatuko dira Gipuzkoako igeriketa txapelketan; hori dela eta, igerilekua itxi egingo dute erabiltzaileentzako

MIRIAN BITERI > BERGARA

Bergarako igeriketa taldeak 35 urte bete dituela aintzat hartuta, Gipuzkoako Federazioarekin eta herriko Udalarekin batera, infantil eta junior mailetako neguko Gipuzkoako igeriketa txapelketa antolatu dute. Bihar eta etzi jokatuko dute.

Hori dela-eta, jaioberrien ur saiorik ez da izango asteburu osoan zehar, eta, lehiaketak irauten duen bitartean, ez da igerilekua erabiltzerik egongo.

Herriko igerilari askok lehen-dabizikoz bertan lehiatzeko aukera paregabea izango dute. Orotarra, Bergara igeriketa elkarteko hamabi igerilarik hartuko dute parte.

ONATIKOAK ERE BAI

Zehazki, Mikel eta Xabier Labaka, Peru Alustiza, Erik Iñarra, Nielka eta Urki Ibarguren, Jon Muxika, Nekane Alegria, Irati Fernandez, Amaia Azpeitia, Ainhoa Goienetxea eta Mikel Muxi-

ka arituko dira Agorrosinen asteburu osoan zehar. Bakoitz aibito ibiltzen den modalitatean eta luzeran. Oñatiako Aloña Mendikoak ere izango dira.

Bihar goizean emango diote hasiera lehiaketari. Lehenengo partaideak 10:30ean sartuko dira igerilekura eta 13:00ak aldera utziko dute. Arratsalde partean, berriz, 17:00etatik eta 20:00ak bitartean izango dira.

Txapelketarekin batera, Bergara igeri elkarrekin argazki era-kusketa txiki bat prestatu du. 35 urte bete dituenez, ibilbide osoko irudi esanguratsuenak ikusgai izango dira. Ziur gaude batz baino gehiagorri oroitzapenak ekarriko dizkiola...

## Iabegaraieta

**EMAIZTAK**

Errotagain - Piperrak .....	15-1
Iribide - Teatkh .....	1-9
Tiki-Taka - Belengua.....	7-3
T. Deba-Irish Pub .....	2-13
Niu Tim -Altospornos .....	7-1

**SAILKAPENA**

	P	J
1. Errotagain .....	36	12
2. Niu Tim .....	33	12
3. Teatkh .....	24	12
4. Altospornos .....	24	12
5. Tiki-Taka .....	18	12
6. Irish Pub .....	12	12
7. Belengua .....	9	12
8. Iribide .....	9	12
9. Komando Piperrak.....	6	12
10. Tornilleria Deba .....	3	12
11. Azkenak .....	0	0

## Errota Gain eta Niu Tim artean hiru puntuko aldea bakarrik

Asteburuan, Aratusteak direla-eta, ez da jardunaldirik jokatuko. Atsedena izango dute jokalariek.

Denboraldiren ibilbideari dagokionez, aipatzeko da Errotagain taldekoak egiten ari diren lan bikaina.

Jokatutako hamabi partiduak irabazi egin dituzte. Hori dela eta, 36 puntuarekin taularen lehenengo postuan daude momentu hone tan. Guztira, 97 gol sartu dizkiete aurkariei eta 19 baino ez dituzte jaso.


Gertu dituzte, baina, Niu Tim-eko mutilak. Hiru puntuko diferentzia baino ez dago bien artean. Eta merezi dute, hamaika partidu irabazi eta bakarra baino ez dute-eta galdu.

Adi ibili beharko dute, beraz, Errotagain taldekoek, lehenengo postuari eutsi nahi badiote. Hirugarrenak, berriz, ez du erraza izango aurrekoak hartzea, bigarrenetik bederatz punta dago eta.

Bestalde, denboraldiari hamabi taldek ekin bazioten ere, batek ez du lehiatzen segitzen: Azkenak kanporatua izan zen, eta, ondorioz, ez du lehiaketan parte hartzen.

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
BERGARA OÑATI  
943 76 45 53 943 78 24 13

# ARISTEGI

iturgintza

Tel.: 943 76 25 57  
Mug.: 646 02 16 94

Ibargarai hiribidea 32-04.B  
BERGARA

# EDEL

TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiiena

Alfonbrak, kordinak, kordinoiak, koltxak, edredoia, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



# BOLU SUKALDEAK



Gremioen koordinazioa

Aurrekontua  
konpromiso barik.




Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxa: 943 76 27 02  
[bolusukaldeak@euskalnet.net](mailto:bolusukaldeak@euskalnet.net) • [www.euskalnet.net/bolusukaldeak](http://www.euskalnet.net/bolusukaldeak)

# ELKAR

ELEKTRAGINTZA

ZURE  
ZERBITZURA!!


## Mota guztiako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA



Aratustea  
Ihauteriak  
Inauteriak

Ondo pasa!

# EGUZKiGRAF

inprimategia



Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

Araba ibilbidea

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com



# GUREA

Gora Inauteriak!

TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta

Tel.: 943 79 20 64



KOADRILAK Mozorrotutako koadrila Durana kaletik dator, Udalak antolatutako desfile barruan, iaz.

M.A.

JAIAK > ARATUSTEAK

## Aratuste-domeka iristeko zain koadrilak eta herritarrak

Herri bazkarirako txartel guztiak saldu dituzte, eta 500 lagun inguru elkartuko dira

Argazkia aterako dute martitzenean, 'Bai eskolak euskalduntzeari' ekimenak deituta

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**  
Mozorroari azken ukituak emanen dabilta koadrila zein herritarrak Aretxabaletan. Aratuste-domekan izango dugu isilpean izan duten mozorroaren berri.

**HERRI BAZKARIAN 500 LAGUN**  
Mozorroa gertatzeko lekua behar zutela-eta egin zioten eskaera koadrilek alkateari, Karnabal Komisiñuan bateratuta. Eta, iaz ez bezala, aurten onartu egin zien alkateak. Hala, Gellaora bidean

dagoen pabiloian ibili dira hainbat koadrila mozorroaren gerta-keta lanak egiten.

Koadrilek iaz beste eskaera bat ere egin zuten: herri bazkaria egitea. Eta izandako arrakasta dela eta, aurten ere egingo dute, kirol etxean. San Kanuto jaia antolatzen duen taldeari eman dio Udalak bazkaria prestatzeko ardura, eta dagoeneko bukatu dira salgai ipinitako txartelak. Hortaz, 500 lagun inguru elkartuko dira kirol etxean, domekan.

**KALEAK ZIRKULAZIOARI ITXITA**  
Udaleko Kultura Sailak jai gironan lagun egingo dien txaranga ekarriko du, baina mozorrotau-ko koadrilak eta herritarrak izango dira protagonista domekan. Egurdian desfilea egingo dute guztiak, eta arazorik egon ez dadin Udalak jakinarazi du 12:00etan 14:00etara bitartean zirkulazioari itxita egongo direla lau kale: Mitarte, Durana, Errekabarren eta Andramari. Hortaz, ezingo da autorik ibili.

LANAK > AOZARATZAKO ELIZA AURREA

## Aozaratzako eliza aurrea berritu dute galtzada-harria jarrita


**M.A. > ARETXABAleta**  
Aozaratzako auzoko eliza aurrean dagoen plazatxoan berritzen ibili dira azken hilabeteotan, eta azken ukituen zain dago lanok guztiz bukatzeko.

**ARGITERIA BERRITU**  
Auzotarren izenean egin zuen eliza aurreko plazatxoan konpontzeko eskaera auzo alkate Josu

Mendietak. Lurrean era irregularrean sartutako harriz osatuta zegoen plazako zorua, baina ez zegoen batere egoki oinezkoendako. Hala, elizara joaten ziren auzotarrek arazoak izaten zituzten, eta aldatzea erabaki zuen Udalak. Galtzada-harria jarri dute lehengoaren ordez, eta bide batez argiteria eta euri urak jasozko erretenak berritu dituzte.

Gainera, plazatik kanposanturraino doan espaloia konpondu dute, eta horma berritu.

97.474 euroko aurrekontua izan duten lanok abenduarekin batera hasi zituzten Amaral enpresako langileek, eta otsailarekin bukatuko dituzte. Tarte horretan ez dute mezakirik esan Aozaratzan, baina laster arazo barik hurreratuko dira elizara.



ELIZA AURREA Galtzada-harria jarri dute Aozaratzako eliza aurrean.

M.A.

## Aratusteetako egitarauak

### 18, Aratuste-domeka

- 10:00 Diana txistulariekin.
- 12:00 Koadrilen desfilea Akelarre txarangak lagunduta. Herriko Plazan eta Durana kalean elkartuko dira koadrilak eta desfilea Errekabarrenetik Duranara egingo dute.
- 12:30 Txino dantza Santa Ageda neska-mutilen eskutik.
- 14:30 Herri bazkaria kirol etxeen.
- 17:30 Kalejira kirol etxetik Herriko Plazara txarangarekin.
- 18:30 Mozorro lehiaketaren sari banaketa. Bost sari 16 urtetik gorakoendako: 300 euro, 250, 150, 120 eta 100. Eta beste bost 16 urtetik beherakoendako: 150 euro, 120, 100, 80 eta 60. Afalostean Akelarre txaranga.

### 20, Aratuste-martitzena

- 11:00 Kalejira Incansables txarangarekin.
- 16:30 Txaranga Herriko Plazan.
- 18:00 Buruhandiak txarangaren laguntzarekin.
- 18:30 Euskal diskos festa Herriko Plazan.
- 20:00 Txinoaren hileta Santa Ageda neska-mutilen eskutik. Mitarte kaletik Herriko Plazara joango dira lutoa jantzita eta kandelak eskuan.

## ARATUSTE-MARTITZENA

Baina domekan ez dira bukatuko Aratusteak. Martitzenean ikastetxeetako umeen txanda izango da, eta goizean guztiak elkartuko dira Herriko Plazan txarangaren atzetik ibiltzeko. Arratsaldean ere izango dute ondo pasatzeko aukera buruhandiak direla, diskos festa dela. Eta jaiari agur esateko txinoaren hileta egingo dute Santa Ageda neska-mutilek herritarrekin.

## ARGAZKIA ATERATZEKO DEIA

Bestalde, Aratuste-martitzenean bertan, *Bai eskolak euskalduntzeari* ekimenak deituta argazkia aterako dute Herriko Plazan. 17:00etan izango da ekitaldia, eta helburua da babesia ematea aipatutako ekimenari. Iaz sinadura bilketa egin zuten, eta aurten beste era bateko ekitaldiak egingo dituzte eskolak euskalduntze-ko eskaera kanpaina barruan.

KOMERTZIOAK &gt; 'MERKEMERKAUA'

# Kilima eta Ktibos dendak Arrasateko 'Merkemerkaua'-n

Beherapenetako arropak eta oinetakoak eroango dituzte, eta jende asko hurreratzea gurako lukete

M.A. &gt; ARETXABAleta

Otsailaren 24an eta 25ean egingo dute Arrasateko Uarkape pilotalekuaren *Merkemerkaua* izeneko merkealdien azoka. 23 saltoki jarriko dituzte, eta horien artean Aretxabaletako bi egongo dira.

**MERKEALDI AZOKEN ALDE**

Kilima dendako Meritxell Serratori beti iruditu izan zaio ideia ona merkealdi azokak antolatzea: "Nik neuk ez ditut ezagutzen beste herri batzuetakoak, baina ondo egin didate berba eta ideia ona deritzot; egun batetik bestera animatu nintzen parte hartzera", esan digu.

Umeen eta haurdunen arropa salten du Serratok, eta iazko udako arropa eta neguko beherapenetako hondarrak eroango ditu: "Jende asko etortzea gurako nuke, eta asko saltza, jakina", dio.

Ktibos zapata denda daukan Gely Dos Santosek Eibarko eta Gernikako azokak ezagutzen ditu: "Jende asko ibiltzen da eta izugarrizko arrakasta izaten dute", argitu digu. Merkatari txikiei halako aukerak ematea benetan ona dela dio. Neguko beherapenetako oinetakoak eroango ditu saltzeko: "Eta udan beste bat egitea gurako nuke", bukatu du irribarre eginez.

KTIBOS Gely Dos Santos oinetako denda aurrean *Merkemerkaua*-ren kartela alboan duela.

MIRARI ALTUBE



MURUKIXO

## Elur gutxi baina giro bikaina eskizaleen artean

Elur gutxi dagoela entzun eta jende asko atzera bota zela uste dute Murrukixo MEko kideek, baina "bi egunean eskiatzeko beste topatu genuen", diosku eski irteera antolatu zuen Iker Akizu kideak. 17 mutilez osatutako taldea joan zen -neskarik ez-, eta giro bikaina sortu zuten denen artean. Zapata Luz Ardidenean eman zuten, eta domekan lehenengo La Mongie-ra joan ziren, baina elur gutxitxo zegoela pentsatu eta Gavarnie-n bukatu zuten. Gustura itzuli zen mutil koadrila.

ONGIZATEA &gt; FAMILIA UGARIAK

## Ezarri ditu Udalak familia ugariei kirol etxeko tasa murrizteko irizpideak

Ongizate Saileko zinegotziaren esanetan tasa ez da oztopo izan behar kirol leku itxian egin gura dutenendako

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**  
Herriko familia ugariei kirol etxeko tasetan eskaintzen dien dirulaguntzak arautu gura zituen Udalak, eta dagoeneko ezarri ditu irizpideak.

**FAMILIAK BAZERTUTA**  
Ezarritako irizpideak familia bakoitzak dituen diru-sarrera gordinen araberakoak izango

dira. Ongizate Saileko zinegotzi Iñaki Sanz-Azkunagaren esanetan, helburua da kirola leku estaliar egin gura duen edozeinek aukera izatea, tasak traba izan barik. Haren arabera, orain arte ez zegoen irizpiderik laguntzak emateko orduan eta diru-sarrera gutxien zuten familiak baztertu samar geratzen ziren. Eskaera udaletxeko Ongizate Sailean egin beharko dute interesatuek.

**Irizpideak:**

Irabazi gordinak	Laguntza
17.000 baino gutxiago	%100
26.000 baino gutxiago	%80
35.000 baino gutxiago	%60
45.000 baino gutxiago	%40
60.000 baino gutxiago	%10

&gt; PRESOAK

## Mendi irteera egingo dute bihar, eta ondoren ekitaldia Zuhaitz Errasti eta Kepa Urria gogoan

Bihar, hilak 17, Zuhaitz Errasti eta Kepa Urra preso aretxabaletarren urtebetetzea ospatuko dute hainbat herritarrek, Euskal Preso Politikoaren Kolektiboak deitura. Mendi ibilaldia egingo dute goiz partean, eta hitzordua 09:00etarako egin dute Azbe lantegi parean. Eguerdirako itzuliko dira, eta 13:00etarako ekitaldia antolatu dute Mitarte kalean. Horren ostean mokadutxoa eskainiko diete guztieie Urbaltz elkartean.

Etzirako, hilak 18, beste ekitaldi bat antolatu dute. Aratustedomeka dela-eta kirol etxeen egingo duten herri bazkaria bukatutakoan, 17:30 inguru, kalejira egingo dute *Amnistaren alde* lelopean, jai giroa eta aldarrikapena bat eginda



# Zenbaki Ahokulariak



EMPRESA  
CERTIFICADA  
ISO 9001:2000

**Juridikoa:**

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekursoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

**Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...

- **Fiskala:** Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

**Kontabilitatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABAleta. Tel.: 943 71 21 12 • [www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)

KIROLA

## Futbol eskolarako izenematea bukatzea

Kirol etxeko zerrenda galdu egin dute, eta izena berriro ematea komeni da

M.A. > ARETXABAleta  
Futbol eskola jarri gura du abian UDAk. Hala hitzartu zuen Aldundiarekin, Gipuzkoako Futbol Federazioarekin eta Real Sociedad taldearekin, eta otsailean bukatuko da izena emateko epea. Kirol etxean jaso dituzte interesatuen izenak, baina, ezusteko bat dela tarteko, galdu egin dute zerrenda. Hala, berriro ematea komeni da, kirol etxean bertan edo [goienasport@goienasport.com](mailto:goienasport@goienasport.com) helbidean.

### 1997-1999 ARTEAN JAIOAK

1997 eta 1998an jaiotako neska-mutikoak hasiko dira orain lanean, eta 1999an jaiotakoek –benjamin aurrekoak– ekainaren 20a arte itxaron beharko dute. Antolatutako ekinzak eskola kirolekoen osagarri izango dira, eta Realak egindako helburu eta edukien ereduia jarraituko dute.

### > IRTEERA

### Sagardotegira egingo du irteera Loramendi EEk martxoaren 3an

Datorren martxoaren 3rako, zapatua, sagardotegira irteera antolatu du Loramendi Euskara Elkarteak. Autobusa 12:00etan aterako da herrikik, eta 13:00etan Hernanin egingo dute poteoa. Astigarragako Mendizabal sagardotegian bazkaldu, eta arratsaldea Hernanin pasatuko dute 00:00etan itzultzeko. Edonor joan ahal izango da, eta izena emateko azken eguna otsailaren 23a da. Horretarako Loramendi EEn hartztu txartela 35 euroren truke.

# Iber

Loteria  
Paper denda  
Liburuak

Otalora 2.  
ARETXABAleta  
Tel.: 943 79 04 39

mingainari tiraka

Oier Etxebarria > Copreciko langilea Txinan

# "Domekan urte berria hasiko dute Txinan"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Dagoeneko bi urte eta erdi egin ditu Oier Etxebarriak Txinan, Copreci lantegirako lanean. Beste urtebete emango du hantxe, baina ekainera bitartean gure artean izango dugu.

Txina oso handia da; non zaude?

Hegoaldean, Zhuhai herri handian.

Iritsitakoan zein izan zen lehen burutazioa?

Moderno dela, eta kontraste handiak dituela: oso aberatsak eta benetan pobreak.

Zelako langileak dira?


Oso finak. Diru gutxi irabazten dutenez ordurako sartu gura dituzte, eta 12 ordurako egiten dute lan astean sei-zazpi egunean.

Zer moduz moldatzzen zara haietan?

Ixitak dira. Euren burutik pasatzen dena ulertza zaila da, eta ez diot hizkuntzagatik. Nik ez dut egin lagun txinatarrikin.

Zergatik dira ezberdinak?

Adibidez, adiskidetasun eta maitasunaren kontzeptu ezberdinak dituzte, eta



diruari izugarrizko garrantzia ematen diote.

**Ikasi duzu mandarina?**

Apur bat, bai. Kantonera zailagoa da, biak berdin idatzi arren.

**Txinako parajeak ezagutu dituzu?**

Gutxi bidaiatu dut. Batez ere bi lekutan egon naiz, eta zoragarriak dira biak. Halako asko ditu Txinak, baina mendebaldeko turismorako ez dago gertatuta.

**Eta mutil asko dago?**

Nik ez dut nabaritu, baina orain dela bi urte debekatu egin zuten abortatzea. Gainera, umea izateko baimena eskatu behar dute, eta bakarra izan dezakete.

**Komunistak direla igartzen zaie?**

Nik ez diet igarri. Hori bai, Gobernuak oso kontrolatuta ditu, eta zentsura handia dago bai Interneten, bai telebistan.

**Ze sasoitan bizi dira orain?**

Bihar Urtezahar eguna da, eta domekan urte berria hasiko dute.

BERTSO ESKOLA > TALDEA LANEAN HASI DA

## Egubakoitzetan bertsoak ikastera

Taldea zabalik dago, eta 8 eta 12 urte arteko gaztettoek Loramendin eman behar dute izena


Jolasen bidez egiten dute bertsozat: errimak landu, doinuak ikasi eta kopla zaharrak abestu

M.A. > ARETXABAleta

Dagoeneko hirugarren urtea da Aretxabaletan bertso eskola antolatzen dutena. Lehenengo urtean talde galanta elkartu zen, baina orain behera egin du kopuruak. Orain dela bi aste lanean hasi zen, eskolan hiru ikasle daude –hirurak mutilak–, baina taldea zabalik dago. Hemendik eta ekaina bitartean bertsoen gaineko kontu asko dituzte ikasteko.

JOLASEN BIDEZ IKASTEN

Bertso eskola Loramendi EEk antolatu du, eta egubakoitzetan elkartzen dira, 17:00etatik 18:00etara. Nerea Urria arrasatearra da irakaslea: "Jolasen bidez egiten dugu bertsozat, doinuak ikasi, errimak landu, bertso eta kopla zaharrak abestu... Ez da komentu ikastaro astuna izaterik", azaldu digu. 8 eta 12 urte arteko neska-mutikoak batzen dira, eta eskolatik oinarriarekin dato: "Ahozkotasuna eta



IKASTEN Unai Diez, Nerea Urra irakaslea eta Oier Arizabaleta.

M.A.

bertsolaritza lantzen dute ikastetxe guztietan; hortaz, ez dugu hutsetik hasi behar". Bertsoak egiten idatziz ikasten dute; papeleta eta arkatzak eskuan hartu eta errima topatu behar dute. Eta maiatzean, Euskararen Egune-

an, herritarren aurrean abesten dute. Esate baterako, Unai Diez eta Oier eta Benat Arizabaleta anaiek hiru urte daramatzate eskolan, eta gustura baino gusturagodabiltza bertsolaritzaren gainerako kontuak ezagutzen.



Herriko plaza Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 09 33

Ondo pasatu Inauteriak!

Girorik onena geurean!

**JAIAK** > ARATUSTEAK MARTITZENEAN ETA ZAPATUA OSPATUKO DITUZTE

# Aratusteetako zapatua indartzeko ahalegina

Aratusteetako egitaraua umeei zuzenduta dago, baina helduak ere inplikatu gura dituzte

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**

Eskoriatzan bi egunean ospatzen dituzte Aratusteak: zapatuan eta martitzenean, hain zuen ere. Horrez gain, gogoratu beharra dago atzo, eguna, herriko txikiiek Urdelardero Eguna ospatu zutela. Aspaldiko usadio horri jarraituta, herriko txikienak kalean ibili ziren kantuan *ziria* eskuan zutela.

Gainontzko herritarrak, berriz, zapatua eta martitzena heltzeko zain egongo dira, mozorroto eta jaian sartzen.

Bihar, zapatua, trikitilaria eta txaranga ibiliko dira kalejiran. 12:30ean irtengo dira kale-

ra. Horren ostean, 14:30ean, herri bazkaria egingo dute pilotaleku.

#### BAZKARIRAKO TXARTELAK SALGAI

Herri bazkariak oso harrera ona izaten du urtero, eta txartelak dagoeneko salgai daude. Interesatuek Inkernu, Goxotxiki eta Mirentxu tabernetan eskura ditzakete txartelak.

Bazkarirako menuak ere zehaztu ditzigute: helduek patatak errioxar erara, bakailaoa piper gorrien saltsan eta ijito-besoak jango dituzte; eta umeek makarroiak, oilasko izterra labean erre eta izozkia. Lehenengo-


ek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta txikienek, berriz, 9 euro. Beraz, gustu guztietarako menuak egingo dira.

#### MOZORROTUTAKOENDAKO SARIAK

Horrez gain, aurten herriko dendariekin batera, mozorrotzen diren herritarrendako zozketa berezia antolatu dute. Baita makilatzeko doaneko tailerra ere.

Gainontzean zapatu arratsaldean zezen txikiak eta *poney*-ak izango dira; eta gauean, berriz, dantzaldia.

Martitzenean, goizean umeen jaialdia egingo dute, eta horren ostean txistorra-jana izango da. Arratsaldean, osteria, kukumarroak ibiliko dira kalean, eta jokoak eta txokolate-jana izango dira gaztetxoendako.



HERRITAREN ESKU-HARTZEA Argazkian, ume koadrila mozorrotuta.

UDALA



IKER BARANDIARAN

## Arrasatera joan da dendarien zozketako saria

Eneritz Oruna arrasatearrak irabazi du Eskoriatzako dendariekin eta merkatarien Gabonetan egiten duten zozketako sari nagusia. Asteon eman diote saria, Edurne estetika zentroan, han eskuratu zuen-eta bonua. Saria honako hau da: 1.000 euro herriko denda edota negozioetan gastatzeko eta bi lagunendako afaria herriko jatetxe baten. Biharko, zapatua, egin beharko ditu erosketa horiek guztiak. Gainontzko sariak (100 euroko bost sari) urtarilean banatu zituzten.

**PREBENTZIOA > KALAMUAREN GAINeko INFORMAZIOA**

## Kalamuaren gaineko gida kaleratu du Udalak

Egunotan 26 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoei bidaltzen dabiltza



Banatutako gida.

GOIENKARIA

#### I.B.-> ESKORIATZA

Udala kalamuaren gaineko informazioa batzen duen triptikoa banatzen dabil. Udaleko Prebentzio Sailak egin du triptikoa, Durangoko Sasoia taldearen laguntzarekin.

Udaleko teknikariek ondorioztatu zuten herrian kalamua nahikotxo kontsumitzen dela. Hori dela eta, erabaki zuten kalamuaren gaineko informazioa gurasoei ematea. Hala, 14 eta 16 urte bitarteko seme-alaben gurasoei zuzendutako gida egin dute. Gerora, erabaki dute



Banatutako gida.

GOIENKARIA

triptikoa 26 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei ere bidaltza. Hala, asteon dabilta zeregin horretan, eta herriko 350 bat etxetara bidaliko dute.

#### > IBILALDIA

## Amuska elkartea Arabako Errioxara egun bateko txangoa antolatu du martxoaren 10erako

Amuska emakumeen elkartea beste txango bat antolatu du. Martxoaren 10ean Arabako Errioxara joko dute egun bateko txangoa egitera. 08:30ean batuko dira herriko plazan eta iluntzean bueltan izango dira.

Txangora joateko interesa dutenek oso egun gutxi dituzte izean emateko. Astelehen eta martitzena jarri dituzte horretarako, eta kultura etxean egongo dira 18:00etatik 19:00etara bitartean jendeari arreta egiten. Goizean, Eltziegoko Marques de Riscal upeltegia ikusiko dute; eguerdian, berriz, Guardian bazkalduko dute. eta arratsaldean Logroño bisitatuko dute. Bazkideek 40 euro ordaindu beharko dituzte; eta gainontzkoek 50 euro.

## DE LA TORRE igeltserotza

*Erreformak orokorrean  
Gremioen koordinazioa*

Intxaurtxeta 7 2-D  
20540 Eskoriatza  
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27



Aranburuzabala 22, beheha  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 51 20

ARGITALPENAK > MUGARIEN GAINeko LIBURUXKA

# Udalerriko mugarriren gaineko liburuxka kaleratuko dute

Udalak salgai jarriko du liburuxka hori udalerriko mapekin batera, oso merke

Mugarrien argazkiak, non kokatuta dauden eta zer duten inguruau azaltzen da liburuxkan

## IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Dagoeneko Eskoriatzako Udalak lortu du udalerriko mugarrien zedarriztapena (deslindea) gaurkotzea. Denbora luzeen eman dio Barrundiako udalerriaren eta Eskoriatzaren artean zeuden mugarriak leku aldatzeko auzia konpontzeak.

Iaz Arabako udalerri horretako arduradunak eta Eskoriatzakoak ados jartza lortu zuten, eta behin betiko lekuau jarri zitzutzen mugarriak.

Aretxabaleta eta Eskoriatza udalerriren arteko 44 mugarriak ere iaz zehaztu zituzten. Aldundi topografoek egin zuten lan hura.

Orain, Udalak erabaki du topografoek egindako lan hori argitaratu eta ezagutzera ematea.

## UDALERRIA OSO-OSORIK

Topografoek egindako lana oso zehazta da eta udalerriko mugarriak banan-banan deskribatzen ditu. Bakoitzaren argazki bat

batu dute, eta mugarri bakotzaren gaineko informazio zabala ere badakar: non kokatuta dauden, zerez eginda dauden, zer neurri duten, zer duten inguruau, handik zer ikusten den, zer errepideetatik joan daitekeen hara, hegazkinetik egindako horien argazki...

Mugarri horien kokapenari dagokionez, bitxia da horietako bi, adibidez, Fagor Ederlango aparkalekuau bertan egotea, eta ez mendian, askotan irudikatzen ditugun moduan.

## OSO PREZIO MERKEAN SALGAI


Udaleko ordezkarien esanetan, lan hori oso interesgarria izan daiteke udalerriaren gaineko halako zehaztasunak jakin gura dituzten eskoriatzarrendako: "Udalerraren beste alderdi

batzuk ezagutzeko bidea ere bada", azaldu zuten, "eta aukera hori eman ahal izateko salgai jarriko ditugu ale batzuk. Dena dela, liburuxka hori oso prezio merkean eskuratu ahal izango da", azpimarratu zuten.

## MAPEKIN BATERA BANATU

Horrez gain, Udalaren asmoa da liburuxkekin batera udalerriaren gaineko mapa bi ere banatzea. Mapa horiek Gasteizko Georama topografia enpresa egiten dabil, eta horren truke Udalak 12.000 euro ordainduko ditu. Jaurlaritzako Lurralte Antolamendu eta Ingrumen Sailak kostuaren %60 finantzatuko du.

Mapak 1:15.000ko eskalan egingo dituzte, eta bi plano bereiztuko dituzte: hegazkinetik egindako eta orokorra.



MUGARIEN DESKRIPZIOA Aldundiko topografoek udalerriko mugarriren gainean egindako lana liburuxka baten batu dute.

IKER BARANDIARAN

## > IKASTAROAK Etorkinek euskal kultura hobeto ezagutzeko ikastaroa

Udaleko Euskara Zerbitzutik jakinarazi digitenez, etorkinendako ikastarorako ize-nematea bukatzea dago.

Eskoriatzan bizi diren etorkinei herrian hobeto integratzeko erraztasunak eman gura dizkiete. Hala, euskaren eta euskal kulturaren gaineko ikastaroa antolatu dute. Eskola horietan Aisa izeneko unitate didaktikoa erabiliko dute.

Taldea osatzeko sei lagun behar dituzte. Hala, etorkin guztieei dei egiten diete esku har dezaten.

## > KIROLA Luz Ardidenera irteera egingo dute hilabete bukaeran

Mendia eta eskiatzea gustuko dutenak pozarren egoteko moduan daude. Izan ere, otsailaren 24tik 25era bitartean eski irteera egingo dute Eskoriatzako Kirol Elkarteko mendidi taldeko lagunek.

Aste bukaera horretan Luz Ardidenera joko dute. Interesatuek 95 euro ordaindu beharko dituzte.

Izena emateko edo argibide gehiago jasotzeko, interesatuek honako telefono zenbakira deitu beharko dute: 943 71 43 27 (Garbiñe).


## > AZPIEGITURAK Onbide.org elkarrean batzar orokorra egingo du zapatuan

Onbide.org elkarrean ibarrean egin gura dituzten azpiegitura erraldoien kalteak txikitu gura ditu. Horretarako sortu zuten, eta lanean dihardu gogotsu.

Elkartetik jakinarazi digute bihar, zapatua, elkarrearen batzar orokorra egingo dutela. 12:00etarako egin dute hitzordua, eta kultura etxearen izango da.

Elkarrearen hurrengo iloak, elkarrearen egitura eta beste landuko dituzte.

**AZKOAGA**  
**ESTANKOA**  
943 71 48 77  
Zure  
Zerbitzura



**FAGOR**

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealeku 7

20540 Eskoriatza

Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00

Faxa: +34 943 71 90 01

MONDRAGON  
UNIVERSITY OF MONDRAGON

> HAUTESKUNDEAK  
**Ezker Abertzaleak aurkezpena egingo du zapatu eguerdian**

Bihar, zapatua, 12:30ean, Ezker Abertzaleak bere aurkezpena egingo du Zurrategin hauteskundeei begira.

Herritarrei jakinarazi nahi diente hauteskundeetan egongo direla eta hainbat lan taldek dihardutela lanean, zerrendak osatzeko eta herri programa prestatzeko.

> HIRIGINTZA  
**Kalebarren hiritartzeko lanak lehiaketara ateratzen**

Antzuola Udal Etxegintza Elkarte Publikoak lehiaketa- rara atera ditu Kalebarren urbanizatzeko lanak. Otsailaren 28ra arte dute enpresek eskaiztak aurkezteko epea. Eraberritze lanok 280.359 euroko aurrekontua izango dute eta hiru hilabeteko epean amaitu beharko dituzte.

> INAUTERIAK  
**Gaur eta domekan Inauterietako ospakizunak**

Gaur, egubakoitz, 16:30etik aurrera umeendako jaia egin- go dute, frontoian; txokolate jana eta pailazoak izango dituzte. Domekan, Oinarin taldearen dantza emanaldiak izango ditugu; saioa 12:30ean izango da Zurrategin; eguraldi txarra egiten badu, frontoian izango da.

> FUTBOLA  
**Berdinetarekin hasi du igoera fasea futbol talde nagusiak**

Aurreko asteburuan ekin zion Antzuolako futbol talde nagusiak igoera fasea jokatze- ari. Donostian jokatu zuten, La Salle taldearen aurka eta ez zen golik egon. Oraingo asteburuan, etxean jokatuko dute, Eibarko Gazteak taldearen aurka.



**BESTE SARRERA BAT** Atzoko aldean, eskolako jolastokiaren parean, egingo dute sarrera, irisgarritasuna bermatzeko. A.I.

**ONDAREA > BESTE SARRERA BAT EGINGO DIOTE, IRISGARRITASUN ARAZOAK KONPONTZEKO**

## Eliza eraberritzen aurten hasiko direla espero dute

Goitik behera eraberrituko dute eliza, kanpotik eta barrutik: erretila, fatxada, kanpandorrea, eliza barruko zorua, korua, margoak...

**AINTZANE IRIZAR-ANTZUOLA**  
Urtebete baino gehiago darama herriar talde batek lanean Errukizko Amaren parroquia eraberritzeko helburuarekin. Batzorde bat osatu zuten hamar bat lagunek eta hainbat urrats egin dituzte ordurik hona. Eraberritze lanen proiektua esku artean dute dagoeneko.

**PREMIAZKOENA, TEILATUA**  
Parrokiako batzordeko ardura-dunak ohartu ziren itoginak zeudela eliza barruan, teilitua txarto zegoen-eta. Hain zuzen, kezka hura izan zen eliza eraberritzeko herritarren batzordea osatzeko arrazoi nagusia. Kontuan hartu behar dugu orain dela 40 bat urte konpondu zutela azkeneko aldiz elizako teilitua. Hala ere, premiazkoena teilitua eraberritzea

izan arren, beste hainbat konponketa ere egin beharra zegoela ikusi zuten eta lanari ekin zioten.

**PROIEKTUA ESKU ARTEAN**  
Batzordeko kideek, eraberritze proiektua handia zela ikusita, lanen zuzendari bat kontratatu zuten: Luis Mari Alberdi, hain zuzen ere. Hasteko, elizaren egoeraren azterketa egin zuen eta diagnosia ondoren. Eraberritze lanen proiektua ere hark egin du eta dagoeneko bukatuta dago.

**BESTE SARRERA BAT EGINGO DUTE**  
Eraberritze lanak aurten bertan hasiko dituztela espero dute; bi fasetan egingo dituzte: lehendabiziko fasean kanpoko lanak eta bigarrenean barrukoak.

Batzordearen nahia da aurten hastea lehen faseko lanekin;

fatzada eta kanpandorrea txukundu, erretila egin, elizpea txukundu... Berritasun nagusia, baina, izango da beste sarrera bat egingo dutela. Atzoko aldean, eskolako jolastokiaren parean, egingo dute sarrera hori. Horren helburua da irisgarritasuna bermatzea; izan ere, oraingo sarrek arazoak sortzen dizkie mugikortasun arazoak dituztenei.

Bigarren faseko lanak 2008an egingo dituzte. Barruko lanak egingo dituzte orduan: zorua, korua, organoa eta abar konponduko dituzte. Eta kupulako margoak eraberritu egingo dituzte.

**HERRITARREN LAGUNTZA**  
Lan horiek guztiek 1.200.000 euroko aurrekontua izango dute; Diputazioak 700.000 euroko laguntza agindu die. Udalak eta Gotzaintzak ere jarriko dute dirua, baina oraindik ez diente zehaztu zenbat. Hori guztia lotuta daukatenean, herritarren aurrean aurkeztuko dute proiektua, haien ere diruz laguntza eskatzeko.

**bere ustez**



Kontxi Laskurain

## Azkenaldian berria nagusi

Azkenaldian, errekaren obra dela eta, gure aurrekoak egindako hainbat lan ikusteko aukera izan dugu; zoritzarrez, ez denbora luzez, agertu bezain laster txikitu eta ezkutatu ditugu eta. Hor joan dira egoki tolostutako erreka-harriz egindako arkudun zubi ederra, sasoi baten plaza estaltzen zuen galtzada... Beharbadan, ez zen samurra izango zeuden moduan lagatzea, baina zergatik ez birziklatu eta berriro erabili edo traban ez badaude bakean utzi?

**"Modernitatea da nagusi eta zaharkinak museoetarako lagatzen ditugu"**

Hala ere, azken erasoak ez dut uste beharrezko zenik, hainbat urtetan espaloia osatzen zuten losak -herrian gelditzen ziren azkenak- kendu egin dira eta horien ordez Leonen egindako adokin prefabrikatuak -ori bai, "envejecidos"- jarriko dira.

Plaza modernoa izango dugu, hormigoizkoa, ez dakit nondik ekarritako kanterako harri grisez itxura aldatuta. Ez al da hobe itxurak egitea baino losa zaharrak erabiltzea?

Badirudi modernitatea dela nagusi eta zaharkinak museoetarako lagatzen ditugu.

Nire ongietorria larruren interpretazio zentroari; baina, aldi berean, benetako ahaleginak egin ditzagun gure arbasoek utzi diguten ondarea gordetzen.

**EGAÑA**  
Era guztiako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**LARREA**  
**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**DEKORAZIOA  
ABAD  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUA  
INDUSTRI MANTENIMENDUA**

**Jose  
Gomez  
Abad**

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INAUTERIAK > GAUR, BARIKUA, OSPATUKO DITUZTE INAUTERIAK HERRIAN

# Arratsaldean galdaragile jantzita alaituko dituzte herriko kaleak eskolako umeek

Jarraian, Maala guraso elkarreka antolatutako jolasak, txokolate-jana eta disko-festa izango dira eta 22:30ean bi taldek kontzertua egingo dute gaztetxeen

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA  
Festa giroa izango dugu gaur Elgetan. Inauteri-barikua izanda, iluntze aldera irtengo dira hainbat lagun mororrotua kalera. Lehenago, ordea, herriko txikiek girotuko dute eguna.

Eguraldiak laguntzen badu, aurreikusita dago eskolako 80 bat ume galdaragile jantzita irteera. 14:30ean emango diote hasiera jaiari, eta karroza eta guzti irtengo direla jakin du GOIENKARIAK. Irakasleak eurak ere tartearen izango dira.



INAUTERIAK 14:30ean hasiko da festa herrian.

GOIENKARIA

## KONTZERTUA GAZTETXEAN

Herriko Plazan prestatutako dantzak egingo dituze eta jarraian, 16:00etan, Maala guraso elkarreka gertatutako jolasak eta txokolate-jana izango dituzte. Hori guz-

tia Herriko Plazan eta euria eginetako frontoian. Disko-festa ere egingo dute, 18:00etan, Espaloian.

Gauean, 22:30ean, kontzertua egingo dute gaztetxeen Bide Bat eta Urgabe taldeek.

HIRIGINTZA > TRANSFORMADOREAREKIN BUELTAKA

# Uruburuko transformadore elektrikoarendako beste kokapen bat du Udalak

Domingo Iturbe kaleko iturri ondoan jarriko dela zabaltzerakoan, kale horretako bizilagun talde batek azalpenak eskatu ditu udaletxeen

L.Z. > ELGETA

Kezka sortu da Domingo Iturbe kaleko bizilagun batzuen artean. Aralarren azken buletinean honako irakur daiteke: "Urtarileko Hirigintza batzordean esan zenez, transformadore elektrikoa Domingo Iturben dagoen iturriaren aldamenean kokatuko da".

Udaleko Hirigintza teknikari Edorta Silvak GOIENKARIAKI azaldu dionez, oraindik erabakitzeke dago transformadore elektrikoen behin betiko kokapena: "Oraingo erabakita dagoen gauza bakarra da transformadorea ez dela etxebizitza tasauen azpian joango".

## TRANSFORMADOREA BUELTAKA

Silvak onartu du Udal transformadorearenak beste kokapen bat aztertzan ari dela, baina erabakia oraindik hartzeke dagoela: "Gobernu batzarrak hartzen ditu horrelako erabakiak eta aurretik, oraindik, otsaileko Hirigintza batzarra egin behar dugu hilaren 26an".

Aralarrek GOIENKARIAKI esan dio hasieratik defendatu duela transformadoreak etxeetatik ahalik eta urrutien egon behar duela. Herriko transformadoreen gaineko ikerketa eskatzen du.

> FUTBOLA  
**Elgetako taldeak bihar, zapatua, hasiko du igoera txapelketa**

Irungo Mariño taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, Elgetako taldeak. Partidua Unben izango da, 18:30ean.

Igoera txapelketan taldeak etxetik kanpo jokatuko dituen partiduetarako autobusa antolatzeko asmoa dago. Patxi tabernan eman behar da izena. Prezioa: umeek 3 euro eta nagusiek 6.

> KARTA-JOKOAK OZKARBIN  
**Erretiratuen elkarreka mahai-jokoak antolatu ditu hilaren 23rako**

Hilaren 23an, barikua, mahai-jokoak egongo dira Ozkarbi elkarrean. Elgetako erretiratuen elkarreka antolatu du jarduera. Brisikan, musean eta tutean egiteko aukera izango da bertan.

Joko horietan parte hartu gura duten erretiratuek Ozkarbi elkarrean joan behar dute hilaren 23an, 16:00etatik aurrera.

> MENDI MENDIAN ELKARTEA  
**Lehenengo aldiz emakume bat onartu dute bazkide**

Mendi Mendian Elkarteko kideek otsailaren 2an egindako batzarrean onartu zuten Dayami Varo bazkide.

Ez da batzar horretan onartzea adostu zen sozio berri bakarra, baina bai emakume bakarra. Eta lehenengoa elkarrearen historian. Varo pozik dago. Bere neurrira egindako elkarrea dela dio.

Patxi Montero > Munduko dantzen irakaslea

# "Dantzaren bitartez beste kultura batzuk ezagutzen ditugu"

L.Z. > ELGETA

Duela bi urte hasi zen Patxi Montero munduko dantzak ikasten. Orain, irakasle lanak egiteko esku tu diote, eta gustura dabil. Elgetan, Aste Santura bitartean domekerio elkartuko dira kirodegiko gimnasioan dantzak ikasteko.

Zelan joan zen domekako saioa?

Hamar lagun batu ginen domekan, baina beste bederatzi falta zirenez ez ginen ikastaroarekin hasi. Demostrazio txiki bat egin genuen, proba bat. Eta oso ondo joan zen.

Zer dira munduko dantzak?

Munduko edozein tokitako folkloreko parte diren dantzak dira. Kultura horietan sustraitutako herri dantzak. Errazak, oso dibertigarriak eta oso politak dira. Gainera, dantzak ikastea gain, kultura horiek ezagutu eta disfrutatzea ere bada gure helburua. Azkenean, ezkutuan, bakea sustatzea.

Konkretuki zein lekutako dantzak erakusten dituzu?

Nire irakaslearen gandik jaso ditudan dantzak erakusten ditut. Kaukaso, Israel, Turquia, Grezia, Errusia, Frantzia, Irlanda... Europakoak orokorrean. Guztiak taldean dantzatzen dira, askotan borobilean.



Patxi Montero. JOSETXO ARANTZABAL

Zailak dira dantza horiek?

Ez, oso errazak dira, eta, gainera, gure helburua ez da perfekzioa. Gure helburua ondo pasatzea da.

Zein dantzak dute arrakasta handien?

Zalantzari gabe, dantza meditatiboek. Edozein herrialdetakoak izan daitezke. Musika lasaiak dute eta oso koreografia simplea. Saio amaieran egiten ditugu, jendea oso sentsazio onarekin gelditzan delako.

Zabalik dago oraindik izenemate epea?

Bai. Martxoaren 11n hasiko gara ikastaroarekin. Nahi duenak zabalik ditu ateak.

KIROLAK > EGOKI TALDEAREN 2007KO PROGRAMA

# Zortzi proposamen egin ditu taldeak uztailera bitarterako

Bi ikastaro, lau irteera eta bi proba egingo ditu Egokik sei hilabeteotan

Beste bi mendi irteera ere egingo dituzte. Apirilaren 22an Udalatxera eta ekainaren 17an Iturriotz-Herniora. Bi ibilbide izango dira aukeran bietan ere, eta 8 urtetik gorakoendako zabalduko dute izenematea.

Ikastaroak patinaje eta eskladakoak izango dira, baina datak zehazteko daude oraindik. Martxoan eta maiatzean egingo dituzte.

Bi kirol probei dagokienez, berriz, herri krosa eta bizikleta lasterketa izango dira. Lehenengoa martxoaren 11n egingo dute eta bigarrengoa, berriz, ekainaren 16an. Biak ere Elgetan.

BTT IRTEERA BARDEETARA

Zehazteko dago noiz egingo duten, baina Egoki taldeak Bardeetan BTT irteera antolatzeko konpromisoa hartu du.

Uztailean egingo dute eta 16 urtetik gorakoendako zabalduko dute izenematea.

**AHT**

## AHTren kontsulta dela eta, azalpenak

AHTren kontrako taldeak gogorarazi du otsailaren 21ean hitzaldia dagoela

**U.M. > ARAMAIO**

AHTren gaineke herri kontsulta antolatzen zebilen taldea desegin egin zen. Horren harira, AHTren kontrako taldeak zenbait azalpen egin nahi ditu.

**GEHIENGOA DELA-ETA**

Udalak esan zuen taldeko gehiengoa erabaki zuela kontsultarako hauteskunde mahaik Ibarra bakarrak ipini behar direla eta ez auzo guztietan, AHTren kontrakoek eskatu bezala. Hori dela eta, salatu gura dute talde hori zegoela eratuta EAJ, EA eta AHTren kontrako bina lagunekin: "Guk nahi genuen EAJ eta EAko bana eta gure taldeko bi lagun, parekatuta egoteko. Taldea eratu zen moduan, argi dago gehiengoa zeinek duen, desberdintasun handia zegoen. Hasieran ez genion garrantzirik eman eta aurre-rea egin genuen. Begira orain".

Bestalde, Legebiltzarrazk esandakoarekin bat egin eta Udalak esan zuen Jaurlaritzeta eta Legebiltzarrean onartuta dagoela proiektua eta diputazio, Estatuko gobernu, Europano batzorde eta EAeko udal gehienetan babes duela: "Estatuko Kongresuko gehiengoa erabaki zuen baita ere Irakeko gerrara joatea, baina herriarrek ez zuten berdin pentsatzentz. Antzerakoa da hau", dio-te trenaren kontrakoek.



GAZTEAK Entseatzan dabiltzan gizonen adina 40 urtetik gorakoa da; gazte bakarra animatu da parte hartzera.

U.M.

**KULTURA > LAGUN ARTEAN DANTZA TALDEAREN OMENALDIA**

## Gizonak behar dira dantza taldearen omenaldirako

Apirlaren 22an egin behar diote omenaldia Lagun Artean dantza taldeari, 50. urteurrenarengatik

**UBANE MADERA > ARAMAIO**

Eguenetan andreak eta martitzen eta eguenetan gizonak elkartzen dira eskolako kirolegian dantzak entseatzeko; izan ere, apirilaren 22an saiotxoa egin nahi dute, Lagun Artean dantza taldearen omenaldian.

Emakumeei dagokienez, 30 bat lagun animatu dira ekimenean parte hartzera. Hala, zortzi laguneko hiru talde egin ahal izango dituzte.

Gizonezkoek, berriz, talde bakarra osatzea lortu dute oraingoz: "Bigarren taldea sortzeko biz-

pahiru mutil falta zaizkigu", kontatu dute omenaldia antolatzen dabiltzanek. "Badakigu dantza taldean ibilitako gizonezko dantzari gehiago daudela Aramaion; beraz, haiak animatu gura genitzke", gaineratu dute.

Hori bai, dauden mutilek gogoz hartu dute ekimena eta hemendik eta apirilaren 22ra arte astelean birritan elkartuko dira: "Mutilen dantzak aspalditik ez dira egiten. Ondorioz, ez ditugu ondo gogoratzen. Eta horregatik entseatzentz dute mutilek birritan eta andreek behin".

Edozelan ere, omenaldiaren eguna gerturatu ahala, ekimenean parte hartu behar duten talde guztiek elkartzen hasiko dira, entseguak batera egiteko. Hala, andre eta gizonekin batera, gaur egun dantza taldean dauden umeek ere jardungo dute.

**DANTZA SORPRESA**

Entseatzan dabiltzala kontatu dute, bai, baina ez zer entseatzan dabiltzan: "Dantzak sorpresa izango dira". Zelako janzkera era-mango duten aldiz kontatu dute: "Guztiodako jantziak ez daude nez oraingo dantza taldean, erabaki dugu baserritar janztea, bai andreak eta baita gizonak ere; antzera, ahal dela".

**> HITZALDIA**  
**Barreterapiaren hitzaldiari behin betiko data ipini diote**

Hirugarren aldiz ipini dute hitzordua barreterapiaren gainerako ikastaroaren dako. Izan ere, birritan atzeratu egin behar izan ikastaro hori, elurragatik bata eta irakasleak ezin zuelako eterri bestea.

Bada, otsailaren 22rako egin dute hitzordua, 18:00etan, kultura etxearen. *Bihotzaren barrea* izenburua du eta ordubate ingurukoa izango da. Txirritola elkartea antolatu du

**> AZPIEGITURAK**  
**AHTren gaineke planoak kontsulta daitezke udaletxean**

Abiadura Handiko Trenarekin lotuta, Udaletik jakinarazi digute han dituztela trenaren trazatua eta afekzioak edo okupazioak erakusten dituzten planoak, Aramaiori dagozkionak. Hori horrela, interesa daukan edozein herriarrek udaletxera jo dezake kontsulta egitera, nahiz eta trenak haren gain eragin zuzenik ez izan.

**> GIZARTEA**  
**Errefuxiatutako umeak Aramaiora ekartzeko deia**

Beste urte batez dei egin du Aramaioko Udalak Saharako kanpalekuaren bizi diren umeak aramaioarren etxean hartzeko. 470 ume ekarri nahi dituzte Euskal Autonomia Erkidegora.

Interesa daukanak martxoaren 31 baino lehen jo beharko du udal bulegoetara izena ematera. Iaz bi ume ekarri zitzutzen Aramaiora.

**Eztiñe Ormaetxea > Albaitaria**

## "Orain oilaskoari ebakuntza egiten zaio, zikiratzeko"

**U.M. > ARAMAIO**

Joanden astea ezkerro, kapoiak egiteko ikastaroa egiten dabiltza Aramaion, arrakasta handiarekin, gainera. Eztiñe Ormaetxea bermeotar albaitaria dabil eskola praktikoak ematen ikastaroan izena eman duten 30 lagun ingururi.

**Hasteko, zer da kapoa?**

Da oilasko bat, gaztea denean testikuluak kentzen dizkiotena. Horri zikiratzea esaten zaio.

**Zergatik egiten dira kapoiak?**

Haragiaren kalitatea hobetu

egiten delako. Koipea haragira sartzen da eta gozotu egiten du, jabugoko urdia zpikoarekin geratzen den moduan. Bestalde, animalian ere eragiten du aldaketa: kapoiak ez du oillarraren moduan kantatzen; ez dauka gandorrik. Loditu egiten da kapoiak eta lumek distira handiagoa hartzen dute.

**Lehen eta orain, desberdin zikiratzen (kapatu) da?**

Bai. Lehen bi modu zeuden: batetik, atzamarra ipurditik sartu, testikuluei heldu eta haiei bueltak emanda ateratzea. Hori

oso gogorra zen. Beste moduan hormona femeninoak sartzea oilaskoari, lepotik injektatuta. Hori kartzinogenoa da. Orain, berriz, ebakuntza egiten zaio. Saihetsen artetik zabaltzen da eta tresna bereziekin ateratzen zaizkio testikuluak.

**Baina hori edozeinek egin dezake; zerbait berezia behar da?**

Gaitza ematen du, baina praktika kontua da. Tresnak erosia egiten dira. Zizurkilen saltzen dituzte, (655 70 72 83). Oilaskoak ere saltzen dituzte, eta kapoiak eginda.



Eztiñe Ormaetxea albaitari bermeotarra.

GOIENKARIA

## LANAK

### Hilabete beharko dute jolas parkea bukatzeko

Hesia dago jartzeko eta txintxaunen aurrekontua eskatuta daukate

M.A. > GATZAGA

Udaletxe alboan dagoen parkeko lanak aurrera doaz. Atzealdean harrizko horma egin dute, eta datozen egunean, hesia jarriko diote gainean. Hantxe zeuden txintxaunak aldatu egingo dituzte, eta Udalak dagoeneko eskatuta dauka aurrekontua. Txintxaunak jarri aurretik, baina, belarra ereiteko asmoa daukate, lehen bezala uzteko.

HEZETASUN ARAZOAK

Hain zuzen, berritze lanak egitea erabaki zuten jolas parkean zeuden hiru pinuen sustraia arazoak sortzen hasi zirenean alboko etxebizitzan. Hala, pinuak bota eta asfaltozko estaldura jarri dute etxearen horman hezetasun arazorik izan ez dezaten.



GOIENKARIA

JAIA > INAUTERI-ZAPATUA

### Herritarrek sortutako giroa protagonista

Jolasak egingo dituzte neska-mutikoek arratsaldean, eta gaean afaria eta musika edonorendako Garro jauregian

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Ohiko itxura alde batera utzi, mozorroa jantzi, eta jai giroa sortzeko garaia da. Halaxe egingo dute gatzagarrek bihar, Inauteri-

zapatua. Txiki zein heldu, herritarrek izango dira protagonista, eta Udalak egitarau txukuna geratu die.

16:00etan hasi eta 19:00ak inguru arte jolasak izango dituzte neska-mutikoek pilotalekuaren. Gurelen eskutik. Udalak, berriz, antzerkia eskaini gura die. Eta bukatutakoan, txokolate beroa izango dute Garro jauregian. 20:30ean helduen txanda izango da, eta 21:30ean afaltzeko elkartuko dira. Afalosteak Kaixo taldeak girotuko die, eta askok goizaldera arte luzatuko dute jaia.

> ONGIZATEA

### Datorren martitzenean elkartuko da Bideberri mankomunitatea azken kontuak lotzeko

Martitzenean, otsailak 20, elkartuko dira Antzuola, Elgeta eta Gatzagak osatu duten Bideberri mankomunitateko ordezkariak. Ongizateko gaiak bideratzeko sortu duten mankomunitatearen azken agiri kontuak lotzen dabilta, eta lehenbailehen hasi gura dute lanean. Bien bitartean, Gatzagako herritarren beharrak aztertu dituzte, Ongizate Saileko langileak zenbat egunean eterri behar duen herrira zehazteko.



M.A.

### Txapelketaren zain entrenatzen

Gaur, egubakoitza, jokatuko dute herriko pilotari gazteek txapelketa Amurrioko aurka. 14 bat gaztetzok jardungo du norgehiagokan 18:00etan hasita, eta, horretarako, aurrelik gogor entrenatu behar da. Asmo horrekin batzen dira eguztenero Gatzagako pilotalekuaren, Jose Inazio Beloki entrenatzailea gidari eta aholkulari dutela.



### Milesman Diodo laserra

Laserraren iraultza

Euskadiko zentro bakarrean.



### Presta zaitez laser depilaziorako

- Besapeak
- Iztaik
- Aurpegia (bibotea, patillak)
- Sorbalda
- Hankak
- Besoak



3-6 saiotan ilea desagertzea ziurtatzen du  
Etorri eta informa zaitez konpromiso barik.



*Gemes*  
estetika

Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18  
ARETXABAleta



UMORE ONEZ Azken hilabeteotan gogor entrenatzen ibili badira ere, Irizarrek eta Velascok ez dute barre egiteko gogorik galdu.

XABIER URTZELAI

**XABIER URTZELAI > ARRASATE**  
Aruten, profesional mailan ibarreko txirrindulari bi izango ditugu Euskaltel-Euskadi taldean lehian. Errepidean adi dabilenak erraz ikusiko ditu Markel Irizar (Oñati, 1980) eta Iban Velasco (Arrasate, 1980) laranja jantzi, batera entrenatzen dira-eta. Hala, entrenamendu amaieran egin dugu haietan hitzordua, Debatik bueltan datozena.

Izaera erabat ezberdinak, Irizarrekin erraza da orriak eta orriak betetzea; izan ere, lasterketak umore onena duenak irabaziko balitzke, Oñatikoa beti txapeldun. Velasco, aldiz, ez da horren zabala: "Kafe bat hartzen duen arte, e! Orduan ikusi egin behar da zelan egiten duen berba!", dio Irizarrek, barrez. Ibanek onartu digu gero, behin konfiantza hartuta, erabat aldatzen dela: "Gezurra badirudi ere, batzuetan Markelek baino berba gehiago egiten dut".

**DENBORALDIA, HASITA**  
Lerro hauetik irakurtzen dituzunerako Oñatiko txirrindulariak dagoeneko hasita izango du denboraldia, egunotan Mallorkako Challenge proban izan da-eta. Bost hilabete entrenatzen igaro eta gero, Velasco ere irrikan dago debutatzen: "Gogor hasteko esku zidaten, eta Valentziako Itzulian egongo naiz. Egia esateko, bost hilabete entrenatzen ibili eta gero, deseatzen nago lehenbailean lehiatzen hasteko".

Oraindik denboraldia erabat zehaztu gabe badaukate ere, Irizarrek eta Velascok badakite urte erdia nondik nora egingo duten: Mallorka, Andaluzia, Paris-Niza, Lizarrak, Aragoi, Suiiza eta bestelako txapelketetan izango da Irizar. Hala, lasterketa handiak erabaki ez badituzte ere, Oñatikoa espero du joan den urteko egutegia errepikatzeari; Alemaniako Itzulian eta Vuelta egotea, alegia. Esan dugu Valentzian hasiko dela Velasco, eta gero etorriko dira Santarengoko Volta (Portugal), Gazzela eta Leongo itzulia, klasikoak (Paris-Roubaix)... Horrekin batera, Arrasatekoak Aragoiko Itzulian egotea espero du, eta baita Girona ere. Hori, baina, oraindik ez diote konfirmatu.

**NORK BERE HELBURUA**  
Irizarrendako laugarren urtea izango da profesional mailan. Oñatikoa ez da sailkapenetan aurrean ikusi dugun txirrindularia izan, orain arte taldearen-dako isilpean lan egin duen morroi fina izan da-eta: "Joan den denboraldian izan nuen aurrerago ibiltzeko aukera. Ihesaldi gehienetan sartu ahal izan nintzen, baina ez nuen zortea aldeko izan -gorputzaldi onean zegoela, Paris-Nizan erori egin zen-, eta ezin izan nuen aurrerago ibili".

Aurtengo denboraldirako, baina, Irizarrek badaki taldearen-dako bezala, badela ordua beretako ere lan egiten hasteko: "Jonek (Odriozola) aspaldi esan zidan txirrindularitzan norberak ondo jakin behar duela zein den bere lekua, hori ez jakitea

**ZIKLISMOA > IRIZAR ETA VELASCO DENBORALDI BERRIAREN AURREAN**

# "Entrenamenduetan bezala estutzen bagaituzte, probetan laranja ikusiko da"

## MALLORKA ETA VALENTZIA

Irizarrek dagoeneko hasi du denboraldia Mallorcako Challengean; Valentziako Itzulian hasiko da Velasco

## BATERA ENTRENATU

Entrenamendu saio berezirik ez badute, Arrasateko eta Oñatikoa elkarrekin ibiltzen dira bizikletan, ibarrean askotan

## ERABAT EZBERDINAK

Eta, hala ere, ederto moldatzen dira biak; badute antzekotasunik: gustuko dute bizikleta gainean jasotako datu guztiak aztertzea

akats handia dela. Hori horrela, orain arte besteendako lan egi-tea egokitu zait, baina pertsonak norberarenganako maitasuna ere badu, eta, lehenagoko lana beteta, neuregan ere pentsatu behar dut. Azken baten, morro lana egiteko beste edozein gaste etor daiteke atzetik, eta nik hori baino gehiago erakutsi behar dut".

Iban Velascoren egoera, berriz, bestelakoa da. Joan den urtea Orbean egin zuen, eta orain urte bakarra izango du Euskaltelek fitxatzea erabaki ona izan den ala ez erakusteko: "Alde horretatik, baina, trankil nago, joan den urtean ere urte bakarra izan nuelako balio nuena era-kusteko. Orbean urtebete baino ez nuen egin, eta orain Euskaltelelen nago. Aukera ezin hobea da ikasten jarraitzeko, eta aukera aprobetxatzeko asmoa daukat".

Arrasatekoak berandu egin du profesional mailara jauzi -26 urte ditu-, baina ondo ezagutzen dutenek urte polita egin dezakeela diote, aldapa gora bikain doala eta kasta handiko mutila dela: "Taldeko zuzendarien oraindik ez didate ezer esan, baina nik argi daukat aurten besteendako lan egin beharko dudala, aukera gutxi izango dudala niretako".

#### AURTEN ERRONKA HANDIA

Irizarrek dioen moduan, Euskaltelek erronka handia izango du auren, izei handiko hainbat txirrindularik taldea utzi eta gazte asko etorri direlako: "Ez da Mayo bakarrik, auren ez dira gurekin egongo Iker Camaño, David Lopez, David Herrero, Roberto Laiseka... Guretako oso txirrindulari garrantzitsuak izan dira, eta haien hutsa bete egin behar-

**Irizar: "Orain arte taldekoideendako ibili naiz lanean, baina aurtengo denboraldian niregan ere pentsatu behar dut apur bat"**

**Velasco: "Urte bakarra daukat Euskaltelen, baina joan den urtean ere horrela egin nintzen Orbean, eta hori ez zen arazo izan"**

ko dugu. Hortxe egongo da Euskaltelen erronketako bat; horren bestez, taldeak badaki emaitzak lortzen ez baditugu egurra jaso ko dugula".

Denboraldi-aurrean egindako lana ikusita, baina, Oñatiakoak ondo ikusten du taldea: "Exijentzia maila oso handia egon da, eta ondo estutu gaituzte. Uste dut aurre-lan hori ondo egin dugula eta orain errepidean erakutsi behar dugu egindako lana. Gainera, Jon (Odriozola) gurekin dator bai Mallorkara eta baita Andaluziara ere. Uste dut hura dela auto barrutik taldea gehien alda dezakeen zuzendarria, eta auto barruan entrenamenduetan moduan jarraitzen badu, ez dakit lasterketak irabaziko ditugun, baina seguru nago maillo laranja aurrean ikusiko dugula. Hori bai, akaso, 60. kilometroan lehertu egingo gara denak".

#### EUSKALTEL BEREZIA DA

Velasco ere berehala konturatua da Euskaltelen korritzea berezia dela: "Orain arte gehien harritu nauena da taldearen atzean zenbat jende dagoen ikustea. Joan den urtean, Euskal Biziakletan Euskalteko txirrindularien ondoan joan eta harrigarria zen jendeak zelan animatzen zituen. Ni eurekin batera nindoan, eta inork ez zidan ezer esaten".

Irizarrek ondo daki zer den Euskalteko elastikoa janztea: "Onerako eta batzuetan txarrera da Euskaltel berezia, zale batzuek futbol taldeztat hartu gaituzte-eta".

Kontuak kontu, bi ordezkarri horiek izango ditugu goi mailako txirrindulari taldean. Bi ordezkarri, laranja jantzita; bi ordezkarri gurean entrenatzen. Adi egon, badatoz Irizar eta Velasco, egin errepidean lekua.

BATAK BESTEARI EGINDAKO ELKARRIZKETA

Markel Irizar eta Iban Velasco > Euskalteko txirrindulariak

## "Taldetik botatzen gaituzten artean, gu bizikletan ibiliko gara, seguru"

X.U. > ARRASATE  
Ondoko lerroetako elkarritzeta Markel Irizarrek Iban Velascori egindakoa da, eta alderantziz. Ondo eza-gutzen dute elkar, eta batak beste-ari guk baino galdera interesgarriagoak egingo dizkiote.

Markel: Kanpotik ikusita, akaso, jendeak ez du Iban Velasco horrenbeste ezagutuko. Zelakoa zara, bai ziklista eta baita pertsona moduan?

Iban: Pertsona moduan, isil sammara naiz. Gero, konfiantza daukada-nean, batzuetan berba larregi ere egiten dut. Nire lagunen laguna naiz, eta ez dakit zer gehiago esan... Txirrindulari moduan, esango nuke oraindik ez dakidala zein den nire leku. Aldapa gora nahiko ondo ibiltzen naiz, eta oraindik ikusteko dago noraino iritsiko naizen.

Iban: Zenbat lasterketa irabaziko dituzu aurretan, Markel?

(Barre). Aurreko batean ibili ginen komentatzen zenbat gauza egin gura ditugun, eta horiek guztiak egiteko, gutxienez, pare bat lasterketa irabazi beharko ditut. Hamar urte egin gura ditut txirrindulari moduan, eta horretarako lasterketak irabazi behar dira; bestela, jai daukat-eta.

Markel: Iban, Badakigu oso metodikoa zarela, eta datuak eta bestelakoak alderatzen ibiltza atseginduzu-la. Baino zerbait falta zaizu, ala?

Ondo dakizu SRM gailu bat behar dudala. Egia da bizikleta gainean noa-nean erreferentziak, datuak, pultsazioak, indarra... Datu guztiak kontutan hartzea atsegin dut. SRMak, pultsazioak neurtu beharrean, indarra wattetan neurzen du, eta serieak egiteko horrelako baten atzetik nabil.

Iban: Aita izan berri zara; Markel, zure ustez, Xabatek zelan eragingo du zure kirol ibilbidean?

Hasteko, Xabati jaten eman behar zaio, eta hori motibazio handia izango dela uste dut. Azken baten, denbora mordoa egiten dut etxetik kanpora, eta hori gogorra da bai neure-tako, bai Alaitzendako, eta seguruenik semearendako ere bai. Hala, kanpoan egon behar dudanez, gutxienez ete-kin bat ateratzeko egin behar dut lan. Ziklismoa alde batera utzita, baina, pertsona moduan sekulako esperienzia izan da.

Markel: Kanpotik ikusten gaituenak zera pentsatuko du: "Hor doaz el gorro y el flaco". Batek tixerriek beste jaten du, eta besteak txoriek beste. Zer daukazu esateko?

Iban: (Barre). Hori genetika kontua dela. Egia da Markelek nik baino gehiago zaintzen duela zer jaten duen, nik ez daukat-eta horretarako horren-bestea arazo. Kontrara, medikuak esan dit apur bat gizendu egin behar dudala, kontsumo handia daukat-eta.



Mikrofono aurrean aurrez aurre jarri ditugu bi txirrindulariak.

Markel: Eta horrek morala jaten du. Noizean behin Ibanek esaten dit hau jan ahal izan duela, eta bestea probatu. Nik ez daukat horrelako zor-terik; jaten dudana asko zaindu behar izaten dut.

Iban: Zenbat urte egin gura dituzu profesional mailan?

Markel: Nik argi daukat, eta baita zuk ere, taldekit bota artean hemen egongo garela. Urte batzuk igarota,

kirolari batzuek esaten dute euren bizi-tzari beste norabide bat eman gura diotela... Nik ez, nik ez dut horrelako-rik esango, eta zuk ere ez. Bizikleta gainean jarraitzen ez badut bota egin nautilus izango da. Bizikletak bete egiten nau, eta gustura egongo nintzateke 35 urte egin arte bizikletan ibiltzen. Gertatzen dena da ziklismoa dagoen moduan dagoela, eta ez dagoela kontratu luzerik sinatzerik, ezta jarraitutasuna izaterik ere.

## 'Asteleheneko Goienkaria', Debagoieneko kirol taldeekin

### Arrasate Eskubaloi Taldea 06-07 astelehen honetan, Asteleheneko Goienkaria-rekin

Debagoineneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihardu astero Asteleheneko Goienkaria-k.

Oraingo astelehenean, otsailak 19, Arrasate Eskubaloi Taldearenak argitaratuko ditugu. Jasoko ditu saileko lau taldeen argazkiak. Horietako bat, senior mailako mutilena, nazional mailan diharduena, handiz eta jokalarien izen-abizenekin. Erdi-erdian, koloretan.

Ez galdu aukera eta eskuratu Asteleheneko Goienkaria.



# INAUTERIETAN EZ GAZ DANOK!




KEPA URRA



JON AGIRRE




JOSU URBETXEBAARRIA




LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO




TXUS GOIKOETXEA




JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT




ARATZ GOMEZ




JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR



IGOR LETONA



KRISTINA LARRAÑAGA




KRISTINA GOIRIZELAIA



AMAIA ARRIBA



## ETXEAN NAHI DITUGU!



ERREFUXIATUAK

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:  
**Irati, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Kimetz, Jai-Zale, Muxibar, Dat**



## > ANTZERKIA

'Meando fuera de tiesto' antzezlana domekan Arrasaten > **45**



## > KOMUNIKAZIOA

Gazteei zuzendutako bloga aurkeztu dute: 'aizue.com' > **51**

## > NEREA ETXEBARRIA

Arte Ederrak ikasi zituen Bilbon eta Erasmus bekari esker Italiara jo zuen gero. Orain, Zamorako herri txiki baten dabil, elizako erretaula zahar-berritzen > **50**



Rene Lavand

ALEX AZKARATE

# René Lavand ilusionista, zapatuan Elgetako Espaloian

'No se puede hacer más lento' ikuskizuna ekarriko du Elgetara zapatuan, 22:30ean

Munduko ilusionistarik onenetako da eta mundu zabalean ibilitakoa da Lavand

**EDU MENDIBIL** > BERGARA René Lavand ilusionista argentinarra Elgetan izango da zapatua gauean. Kartomagia egiten maisua da René Lavand (Buenos Aires, 1928). Eta badu berezitasun bat: umetan izandako zirkulazio istripu baten ondorioz, eskuin besoa galdu zuen, eta esku bakarrarekin egiten ditu trukauak. "Marta Argerich da Argentinako piano jotzaile onenetakoa eta ez dit ardura esku bakar batekin, birekin edo laurekin jotzen duen pianoa... Entzuleak hunkitzea da kontua. Nire kasuan, ikusleen harridura pizten saiatzen

naiz", diosku. Zapatuan, *No se puede hacer más lento* ikuskizuna ekarriko du Elgetara. Emanaldia 22:30ean izango da Espaloia Kafe Antzokian eta sarrerak 15 eurotan daude salgai.

### IBILBIDE LUZEA

Elgetan emanaldia egiteko irrikaz dago. Atzo goizean berba egin genuen telefonoz harekin, Kata-luniatik bueltan Gasteizeko hotel batean zegoela. Amaren partetik amama nafarra zuen eta jatorri asturiarrak ere baditu aitaren partetik. Hector René Lavandera da haren izena eta 1961a ez-

ro ilusionista (ez du mago berba atsegina) profesionala da.

Munduko onenetako dela diote hainbat adituk: "Gorritu egingo naiz halakoak entzuten... Ez dakit, besteek esan behar dute hori...". Buenos Aires estetik nahi ko gertu dagoen Tandil hirian bida gaue eta sarri etortzen da Europara emanaldiak egitera. Mundu zabalean ibilitakoa da eta baditu hainbat lan argitaratura, tartean *Barajando recuerdos* biografia eta magian aritzen diren iuzendutako lanak; *La belleza del asombro*, esaterako. Tandilen tren bagoi zahar bat ego-

kituta dauka, bisitan joaten zaizkion lagunak hartzen.

Zapatuko ordu eta erdi inguru saioa izango da. Umorerik ez dela faltako dio: "Harridura, samurtasuna, drama... Emozio aldaketarik gabeko ikuskizunik ezin da egon". Bere ibilbide luzean ikasitako trukuekin ikusleak txunditzen saiatuko da Lavand zapatuan. Eta 78 urte izan arren oraindik ez du erretiroarekin pentsatzen: "Jockerrek erretiratuko nauela uste dut. Akordio bat egina daukat harekin. Bien bitartean, jarraitzeko ilusioz nago". Ilusionistaren ilusioa.

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

**Manu Muniategiandikoetxeak Instrucciones para naufragos. Soilik itxuraz liburua aurkeztu du ARCO.** Arte garaikidearen ferian beteranoa dugu dagoeneko margolari bergararra: 1995etik hona urtero hartu du parte. Oraingoan, liburuaz gain, *Mesa negra* izenburuko koadroa (2,5x2,5 metro) eta altzairuz egindako hainbat eskultura eraman ditu Madrilera, *Espacio mínimo* galeriarekin.

**Zelako liburua da *Instrucciones para naufragos*?**

Aspaldiko proiektua da. Due-la zazpi bat urte hasi nintzen marrazki erotikoak egiten, marrazki liburu bat egiteko asmoarekin. Azkenik, bazkide edo mezenas batzuk topatu ditugu liburua argitaratu ahal izateko, eta proiektua gauzatu da: azken 16 hilabeteak estanpazioak egiten eman ditut, eta eskuz egindako liburua dela esan daiteke. 300-400 marrazki inguru neuzkan eta libururako 89 aukeratu ditugu. Liburuaren zuzendaritzar artista-koa eraman duten Lahia estudioko Santos Bregañak eta Ane Ibañezek lagundu didate aukeraketa egiten. Edizio mugatua da: 150 ale besterik ez. 100 saltzeko, 30 bazkide horiendako, hamar han eta hemen erakusteko eta beste hamar guretako.

**Zure marrazkiekin batera Harkaitz Canoren testuak dira liburuan.**

Bai, hala da. Hasiera baten, nik hautatutako testu batzuek azaldu behar zuten, baina Santos Bregañaren bitartez Harkaitz Cano hasi zen testuak idazten. Testu erotikoak edo pornoak zirenean, marrazkiekin ez zutela bat egiten konturatu ginen, marrazkiak testuen ilustrazioak zirela ematen zuen. Eta halaxe, probak eginez, Harkaitz Canoren testu baten pertsonaietako bat irakurtzen ari den *Instrucciones para naufragos* (Juan Navarro Dañino fragata kapitainak idatzitakoa) primean zetorrela ikusi genuen. Surrealista samarra dela ematen du, baina funtzionatzen du. Harkaitz Canok egin du itzulpena, euskalrara. Puntu komikoa duten testu laburrak dira, marrazkiei ondo laguntzen dietenak.

**Nola tartekatzen dira testua eta marrazkiak?**

Testu oso laburrak dira, 9-10 paragrafo guztira. Lau lerro txi-

**Manu Muniategiandikoetxeak > Margolaria**

# "Ikuslea voyeur bihurtzea, liburuan sartzea nahi izan dut"



Margolari bergararrak *Instrucciones para naufragos. Soilik itxuraz* liburua aurkeztu du ARCO ferian.

ENEKO AZKARATE

ki hasieran, dozena bat marrazki jarraian, beste testu txiki bat ondoren... Testuak irakurtzean atseden moduko bat hartzetu duzu, eta aurrera jarraitu. Liburua bukatzean hartzentzu diozu guztiari zentzua, baldin badauka.

**Eta zer adierazi nahi izan duzu?**

Ez dakit, sexua edo erotismo puntu hori leku guztieta dagoe-la, eta nire gauzetan ere bai. Normaltasun osoz aurkeztu nahi izan dut, nire nahiak nolabait azalera-tu, natural azaldu. Oso nirea, hurbilekoak ikusten dut lan hori, eta alde horretatik badu lotura aurre-tik egindako lanarekin. Idaztea bezala izan da, poliki-poliki eraikitzen joan naizen liburu bat.

**Marrazkietako batzuk oso esplizituak dira, ala?**

Bai. Larrua jotzen azaltzen diren marrazkiak gutxi dira, baina badira felazioak eta horrela-

**"Aspaldiko proiektua da; duela zazpi bat urte hasi nintzen marrazki erotikoak egiten, marrazki liburu bat egiteko asmoarekin"**

koak. Mingain asko ikusten da, ez dakit zergatik. Beste irudi asko, aldiz, normalagoak dira: ni hondartzan, edo neskak sexua erakusten, eskuak... Marrazki asko ez dira oso definituak. Ikus-leak topatu behar du asuntoa, iru-dia bete nolabait. Erretretueta-ko asko eta zerbait erakusten duten beste irudi asko ikusleari begira daude. Ikuslea voyeur bihurtzea, liburu barruan sartzea nahi izan dut.

Dena dela, edozein eszena erdi erotikoa esplizitua denean,

marrazki bihurtzen denean esplizitua den hori ematen du ez dela hain gogorra. Hala ere, per-tsona nagusiei-eta liburuak ez diela grazia handirik egiten igarri dut.

**Nori zuzendutako liburua da? Prezioa (1.800 euro) ez da edo-zeinek ordaintzeko modukoa...**

Marrazkiak gustuko dituzte-nei gustatuko zaie agian... Ikusi behar. Edozein modutan, liburu formatua izan arren, objektu bezala ikusten dut, artelan bat.

**Zure moduko artista batenda-ko ezinbestekoa da ARCO egotea?**

Ez. Badira etortzen ez direnak, galerietatik kanpo lan egiten dutenak ere bai... Galeriekin lan egiten dugunontzat aukera interesgarria da ARCO. Feria handi bat da, handiegia behar-bada, saltzeko eta kontaktuak egiteko aukera eskaintzen dizu-

na. Urtero ia jende berdina elkar-tzen gara. Azken baten, artistak, museoko zuzendariak, galeristak, kritikoak eta zaleak mundu txiki bat osatzen dugu. Jai erraldoia bilakatu da ARCO, herriko jaietan betiko lagunekin elkartzea bezala. Agian errota-zio gehiago egongo balitz eta gehiago salduko bagenu, hobeto egongo litzateke. Ea aurten-goa zelan doan... Ondo saltzea eta saldu eta gero kobratzea kome-ni..., hori ere zaila izaten da batzuetan-eta.

**Eta nork markatzen du arte-lan baten balioa gaur?**

Kritikak eta azken baten zure ibilbideak zeresan handia dute horretan: zein galeriarekin lan egiten duzun, nondik deitzen dizuten erakusketak egiteko, zein publikoarengana heltzen zaren... Eskaintzak eta eskariak agin-tzen dute, beste gauza askotan bezala.



MARRAZKIAK Manu Muniategiandikoetxearen *Instrucciones para naufragos. Soilik itxuraz*. liburuak 116 orrialde ditu eta 89 marrazki datozen. Goian, hiru adibide.



MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA

ANTZERKIA > KUNKA ETA GLU-GLUREN EKOIZPENAK

# Umorezko bi antzezlan esanguratsu izango dira asteburuan

Gaur, egubakoitza, 'Ama, quiero ser lehendakari' antzezlana izango da Oñatin eta domekan 'Meando fuera del tiesto' Arrasaten

IKER BARANDIARAN > ARRASATE  
Asteburuan umorezko bi antzezlan ikusteko aukera izango da ibarrean. Gaur, egubakoitza, Glu-Glu antzerki taldeak *Ama, quiero ser lehendakari* ikuskizuna egingo du Oñatiko Santa Ana Antzokian, 22:30ean. Etzi, domeka, berriz, Kunka antzerki taldeak *Meando fuera del tiesto* lana eskainiko du Arrasateko Amaia Udal Antzokiko agertokian. Domekako ikuskizuna 19:30ean izango da.

**SOBRADUN-ENERRAUTSETATIK**  
Kunka antzerki taldea berria da, baina haren atzean aktore, zuendari eta gidoigile ezagunak daude. Hain zuzen ere, Ñake, Trapuzaharra, La Tirili, Picor eta Sobradun taldeetan ibilitakoak, besteak beste.

Kunka taldea lau lagunek osatzen dute, eta horietatik hiru aritzen dira arlo artistikoan, oso ezagunak hirurak: Eloi Beato, Gorka Aginagalde eta Josean De Miguel, hain zuzen ere. Antzerkian, zinemana, telebistan eta besetako batzuetan lan egin dute guztiek. Nabarmendu beharra dago hirurak batera Sobradun taldean ibili zirela, eta haiei zor dizkiegula *Herminio y Miguelito, 30 millones de gilipollas* eta *No hay huevos* lanak.

#### UMORE GARRATZA

*Meando fuera del tiesto* hogei bat esketzek osatzen dute, eta hiru aktoreek hogeitik gora pertsonaia antzeztuko dituzte. Umore garraza, basatia, aldrebesa, proboka-tzailea, zentzugabea, zirikatzalea, zoroa eta ederra lantzen dute-



KUNKA Promozioa egiteko Kunka taldekoak Arrasaten egon dira asteon. Kale agerraldia egin zuten.

IKER BARANDIARAN

la diote. Eta zentsura, tabu, lotsa eta ikurrik ez dutela diote: "Personas txarrendako umore ona egiten dugu".

#### LEHENDAKARI BERRIAREN BILA

Bestalde, gaur, egubakoitza, umorezko beste antzezlan bat ikusteko aukera dago Oñatiko Santa Ana Antzokian, 22:30ean.

Glu-Glu antzerki taldea oso ezaguna egin da aspaldian, bestetako beste, *Cocidito madrileño* eta *Todos nacemos vascos* ikuskizunak sortu dituelako, aktore ezagunek lan egiten dutelako eta EITBren babesa duelako.

Euskal Herriko familia tipiko bat jarriko dute agertokian. Familia amaren inguruan batu-

ta dagoela, lehendakari izateko ahalmena duen pertsonaren bila dabiltzala jakingo dute. Guztiek ikusiko dute euren burua horretarako gai, eta elkarren artean lehiatubeharko dute.

Aizpea Goenaga da zuzendarria. Aktoreak, berriz, Ane Gabarain, Galder Perez, Loli Astorreta eta Patxi Perez, besteak beste.

# HITZALDIA PATXI ZABAleta

**Gaia: Ezkerraren erronka etorkizunean**

**Noiz: Otsailaren 20an, asteartea**

**Ordua: 19:30ean**

**Non: Aramaioko Kultur Etxean**

**aralar**

**INMOBILIARIA IMOKOROSTI**  
Ibarra 3 • BERGARA  
Tel./Fax: 943 76 97 97  
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGA**  
**Bergara:**  
• Antonio 50 m<sup>2</sup>. Berrieta.  
• Arizala, 100 m<sup>2</sup>. Eguzkitua.  
• Maseretea 92 m<sup>2</sup>. Ondo.  
• Koldo Eleizalde 87 m<sup>2</sup>. Ondo.  
• Angiozar Bi logola. Berrieko.  
• San Pedro 110 m<sup>2</sup>. Estreñateko.  
• Zabaloteig 50 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
• San Pedro 65 m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
• Aranerreka 87 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
• Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>. Ondo.  
• Ibarra 87 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
• Ortubia 97 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
• Osintxu 95 m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
• Zubiaurre 60 m<sup>2</sup>. Berrieta.

**Etxebizitza berrien eraikuntza San Lorenzen, 2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobeak.**

**Elgeta:**  
• Etxebizitza berrien eraikuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajeak, terraza. Bista politak.

**DEBA GARAIA INMOBILIARIA**  
Teleforo Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**  
• Matxiategi, 80 m<sup>2</sup>. Ondo.  
• Simon Arrieta, 80 m<sup>2</sup>. Ondo.  
• Iparragirre, 160 m<sup>2</sup>. Berrieta.  
• Artekelo, 72 m<sup>2</sup>. Ondo.  
• Bidekerutzea, 55 m<sup>2</sup>. Berrieta.  
• Ibarra, 118 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
• Zubiaurre, 60 m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
• Ibarra, 70 m<sup>2</sup>. Berria.  
• Zabaloteig, 80 m<sup>2</sup>. Ondo.  
• Koldo Eleizalde, 107 m<sup>2</sup>. Ondo.  
• Zabaloteig, 50 m<sup>2</sup>. Berrieta.  
• Osintxu, 72 m<sup>2</sup>. Garajearekin. Ondo.  
• Osintxu, 125m<sup>2</sup>. Berrieta.  
• San Lorenzen, 18 etxebizitza berri, garajeak eta trastelekuarekin.

**SORALUZE**  
• Gabolatz, 65 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
• Atxuri, 93 m<sup>2</sup>. Oso ondo.

**ANTZUOLA**  
• Beheko auzoa, 53 m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
• Duplex berria, erdialdean  
• Eguzki auzoa, 85 m<sup>2</sup>. Erdi Berrieta.

**ARETXABAleta**  
• Mikel, 2 logola, sukaldea, egongela, bainueta eta ganbara ditu. Eguzkitua eta berrieta. 639 58 13 83.

**Alfa INMOBILIARIA HIPOTECAS**  
Parroquia ondoan  
Tel: 943 77 19 19 / 677 49 89 89

**ARRASATE**  
• Ergun: 2 logola, sukaldea, egongela, bainueta eta berrieta. 30.000.000 pta.  
• Santa Teresa: 3 logola, sukaldea, egongela eta bainua. 30.000.000 pta.  
• San Josepe: Erreber berrieta. Igogailua. 42.000.000 pta.  
• Urbe Auzo: 4 logola, sukaldea, egongela eta bainua. Berehala joateko. 53.500.000 pta.  
• Matxetena: 72 m<sup>2</sup>. Berriko.  
• Ergun: 65 m<sup>2</sup>. Oso ondo.

**ARETXABAleta**  
• Mikel, 99 m<sup>2</sup>. Bi trasteleku eta garajeak.  
• Etxe bakaria, 140 m<sup>2</sup>. 400 m<sup>2</sup>-ko lursala. Garajeak.  
• Estreñateko etxebizitza. 3 logola, 2 bainu, egongela, sukaldea, ganbara eta garajeak. 49.000.000 pta.  
• Portsol, 85 m<sup>2</sup>. Berrieta. Prezio ona.  
www.alfamondragon.com  
orrialdean 7.000 etxebizitza  
balio gehiago aukera

**1/ ETXEBIZITZAK**

**101. SALDU**  
**Antzuola.** Beheko auzoan, 4. solairua. Bi logela, egongela, bainueta eta ganbara ditu. Eguzkitua eta berrieta. 639 58 13 83.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadro. Erdialdean. Azken solairua (buhardilla). 16 metro koadroko garajeak dauka. Berrizkuntzen bat behar du. 659 64 67 38.

**Aretxabaleta.** Etxea salgai Mar-kole kalean. 97 m<sup>2</sup>. Telefona: 649 66 49 70.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Otalora 2an. Azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logola, 2 komun. Bizi izatera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** Etxea Grupo San Juan auzoan. Bi logela, berogailu individuala, eguzkitua. Ganbarekin. 606 25 92 80.

**Arrasate.** San Andresen, Doctor Bañez kalean. 75 metro koadro. Berrizkuntza beharrean. 230.000 euro. 629 10 41 31.

**Arrasate.** Zigorrolan etxebizitza salgai. 665 73 25 74.

**Arrasate.** Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldea eta trasteleku. Oso eguzkitua. 652 73 22 83.

**Arrasate.** Grupo San Juanen. 60 m<sup>2</sup>. Ganbara, igogailua eta berogailua. 606 25 92 80.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Tokiederren. 607 27 20 23.

**Bergara.** Baserreria salgai. 260 m<sup>2</sup>-ko tailurrarekin. Garajeak eta 300 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Telefona: 660 04 58 60.

**Bergara.** Bidekerutzetan etxea salgai. Bilogela, egongela, guzti berrieta. 699 65 48 34.

**Bergara.** Duplex berria salgai. Igogailuarekin. Garajeitxia aukera. 943 53 26 81.

**Bergara.** Etxea herri erdian. Lau logela. Altzarietkin. Telefona: 659 44 76 75.

**Bergara.** Boni Laskurainen. Hiru logela, 90 m<sup>2</sup>. Eguzkitua. Ganbarekin. 628 26 67 77.

**Bergara.** Etxea salgai Zubiaurren. Berrieta. Ganbarekin. 943 28 76 36.

**Bergara.** Zubiaurren. Guztiz berrieta, ganbara eta berogailuarekin. 943 28 76 36.

**102. EROSI**  
**Arrasaten,** Musakola auzoan etxebizitza behar da. Derrigorrezko hiru logela edukitzea. 653 71 64 79.

**103. ERRENTAN EMAN**  
**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. 649 54 66 58.

**Benidorm.** Apartamentua garajearekin errentan ematen da. 666 67 06 94.

**Eskoriatza.** Etxea herri erdian. Hiru logela. 696 16 83 06.

**Vera (Almería).** Apartamento ematen da errentan naturista-gune baten. Jantzia (TB, garbigailua, mikroun-labea...). Igerileku. 657 73 94 25.

**Bergara.** Duplex berria salgai. Igogailuarekin. Garajeitxia aukera. 943 53 26 81.

**Bergara.** Etxea herri erdian. Lau logela. Altzarietkin. Telefona: 659 44 76 75.

**Bergara.** Boni Laskurainen. Hiru logela, 90 m<sup>2</sup>. Eguzkitua. Ganbarekin. 628 26 67 77.

**Bergara.** Etxea salgai Zubiaurren. Berrieta. Ganbarekin. 943 28 76 36.

**Bergara.** Zubiaurren. Guztiz berrieta, ganbara eta berogailuarekin. 943 28 76 36.

**104. ERRENTAN HARTU**  
**Aretxabaleta.** Bi gazte langileek etxea hartuko lukete errentan. 616 00 65 91.

**Arrasate.** Etxebizitza batek etxe hartuko luke errentan semearekin bizitzeko. 629 94 66 61.

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 650 96 23 08.

**Arrasate.** Hiru mutil arduratsu etxebizitza bila dabilta. Inte-

**202. EROSI**  
**Oñati.** Garaje bat erosiko nuke San Lorenzen Auzoan. Telefona: 657 77 98 64.

**203. ERRENTAN EMAN**  
**Aretxabaleta.** Garajeitxia erren-

# IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU  
102. EROSI  
103. ERRENTAN EMAN  
104. ERRENTAN HARTU  
105. ETXEAK OSATU  
106. BESTELAKOAK

## 2. GARAJEAK

201. SALDU  
202. EROSI  
203. ERRENTAN EMAN  
204. ERRENTAN HARTU  
205. BESTELAKOAK

## 3. LOKALAK

301. SALDU  
302. EROSI  
303. ERRENTAN EMAN  
304. ERRENTAN HARTU  
305. BESTELAKOAK

## 4. LANA

401. SALDU  
402. EROSI  
403. ERRENTAN EMAN  
404. ERRENTAN HARTU  
405. BESTELAKOAK

## 5. IRAKASKUNTZA

501. JASO  
502. EMAN  
503. BESTELAKOAK

## 6. MOTORRA

601. SALDU  
602. EROSI  
603. ALOKATU  
604. KONPONDUA  
605. BESTELAKOAK

## 7. ANIMALIAK

701. SALDU  
702. EROSI  
703. EMAN  
704. BESTELAKOAK

## 9. HARREMANAK

901. AGURRAK  
902. HARREMANAK  
903. DEJAK  
904. BESTELAKOAK

## 10. RELAX

801. SALDU  
802. EROSI  
803. EMAN  
804. HARTU  
805. TRUKATU  
806. GALDU  
808. BESTELAKOAK

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri dirugu.

**943 25 05 01**  
sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU; GAINERAKO 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## LAN ESKAITZA

**GAIA: ALDI BATERAKO GIZARTE LAGUNTAZALEA KONTRATATZEKO DEIALDIA.**

## OHARRA:

Bergarako Udalak 2007ko urtarrilaren 18an GAOan argitaratu zuela aldi baterako gizarte laguntzailea kontratatzeko oinarriak.

Kontuan izanda, 3 oinarriak g) atalean honako hau jasotzen duela:  
“Langabezia egoeran egotea edota enplegu gehitzeko eta beronen kalitatea hobetzeko lan merkatauren erreforma arautzen duen uztailaren 9ko 12/2001 legeak emandako erredakzioaren arabera martxoaren 24ko 1/1995 errege Dekretu Legeilearen 12 artikuluko 6. atalean jasotzen denarekin bat etorri, epe jakinerako kontratua izatea Bergarako Udalarekin.”

Aipatutako baldintzak zalantzak sortarazi dituela eta honen bitartez adierazi nahi da langabezia egotea edo Bergarako Udalarekin aldi baterako harremena izateko baldintza, kontratua sinatzen den unean bete beharra izango duela eta lehiaketa oposizioaldan puntuazio altuena lortu duelak Epaimahaia kontratatzea proposatzen duen izangaiak bete beharko duela.

Hau dela eta datorren otsailaren 26a arteko epe berri bat ematen da izena emateko.

Beraz, oposizioaldiko lehen azterketa ere atzeratu egindo da eta otsailaren 27an argitaratuko den behin betiko onartuen eta baztertuen zerrendarekin jakinaraziko da.

Bergara, 2007ko otsailaren 14a.  
ALKATEAK



## Aretxabaleta

**Aretxabaleta  
Instituukia lan orienta-  
tzalea behar du.**

## Eskatzen da:

- Lizentziatura
- Lan orientatzale gisa esperientzia
- Euskara eta ofimatica maila altaua

## Baloratuko da:

- Bailaran bizitza
- Bidali curriculum-ak honako helbidera:

ia@aretxabaleta.com

ARETXABAleta INSTITUTUA

Etxebarri auzoa z/g

Tel.: 943 797900

www.aretxabaleta.com

lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 657 71 51 94.

Neska euskalduna eta esperientziaduna sukaldean edo zerbitzari lanetan astean zeharlan egiteko gertu. 943 78 11 96.

Neska brasildarrak etxekolanak egin edo edadeko pertsona zainduko lituzke. 638 87 15 83.

Neska prest lan egiteko. Barneko langile erejardungo nuke etxean. 618 44 59 77.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

Bergara. 10 urteko neskatalak batek etxean eskola partikularrak jasotzeko irakaslea behar du. 943 76 21 79.

### 502. EMAN

Arrasate. Ingel eskolak ematen ditut. 943 77 16 90.

Bergara. Eskola partikularrak emango nituzke. Irakasle titulu dut. 636 16 30 10.

Bergara. Matematika eta fisika eskolak ematen ditut. Telefona: 696 38 10 07.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

Audi A3 Sportback 2.0 Tdi salgai. 2005ean erosia. 29.000 km. Estra ugari: S-Line paketea, bi-xenon, Tempomat... Oso ondo dago. 635 73 72 07.

Emakumea gertu Arrasaten edo Aretxabaletan adineko pertsonak zaintzeo (eskarmendua handia duka) edo orduka garibiketa lanak egiteko. 629 94 15 72 edo 695 74 05 54.

Debagoiena. Neska prest gastronomia elkartea edo etxe garbitzea. (Maite). 698 88 93 73.

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. 677 04 26

## hildakoak

- **Maria Amondarain Elustondo.** Bergaran, otsailaren 11n. 94 urte.
- **Etelvona Alonso Sanchez.** Arrasaten, otsailaren 11n. 91 urte.
- **Catalina Saramendi Urestain.** Arrasaten, otsailaren 14an. 94 urte.
- **Simon Garitano Berraondo.** Bergaran, otsailaren 5ean. 89 urte.
- **Pedro Arrazola Olañeta.** Elgetan, otsailaren 5ean. 85 urte.
- **Julia Siena Portalo.** Oñatin, otsailaren 5ean. 84 urte.
- **Juan Mari Lasagabaster Unzurrunzaga.** Arrasaten, otsailaren 4an. 69 urte.



**Unai Larrañaga** aramaioarra eta **Maider Sarriegi** beasaindarrira zapatuan, otsailaren 17an, ezkonduko dira Aretxabaletan. Familiakoen partetik, zorionak, bikote, eta ondo ibili eztei bidaian Zeelanda Berrian!



Arrasateko **Mari Carmen Busteros** eta **Felipe Martínez** 1957ko otsailaren 23an ezkondu ziren Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan. Urrezko ezteiak familiakoekin ospatu dituzte. Seme-alaben eta iloben partetik, zorionak, eta laztan handi bat.

### ESKER ONA

## Paulino Lasanta Otalora

Vicenta Uribarren Altunaren alarguna

Arrasaten hil zen 2007ko otsailaren 4an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2007ko otsailaren 16an.

### URTEURRENA

## Maite Mayo Larrea

Alzelai gozotegikoa

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 18an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.

*Egunero pizten da  
zure argia gure bihotzeten.  
Zure irudia, hitzak eta maitasuna  
gurekin ditugu beti.  
Urrun egon arren, alboan zaitugu.*



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.


### URTEURRENA

## Rufino Ugarte Balanzategi

Antoni Garai Iriarteren alarguna

Lehen urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 17an, 19:00etan,

Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Julian Errasti Azurmendi

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 18an, 11:30ean, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.

*Zutaz pentsatzeak  
ematen digu poza  
zurekin egingo da  
gure bihotza.*



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Maria Angeles Madariaga Epelde

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 18an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.

*Zure arrastoa  
zaila da galtzen gaur eta beti,  
benetan oraindik bizi-bizirik zaude  
gu guztiun bihotzeten*




Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### III. URTEURRENA

## Iñaki Irizar Leanizbarrutia

Hirugarren urteurreneko meza domekan, otsailaren 18an, 12:00etan, Arrasateko Uribarriko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Jose Gardoki Eguren

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 18an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



